
LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



**EGOERA
EKONOMIKOA
ETA LAN
HARREMANAK
EAE-N
2022AN**

**LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO
DE RELACIONES
LABORALES**

Alda. Urquijo, 2 - 3º
48008 Bilbao - Bizkaia
T 94 479 21 00
www.crl-lhk.eus

**EGOERA
EKONOMIKOA
ETA LAN
HARREMANAK
EAE-N
2022AN**

AURKEZPENA	6
SARRERA.....	10
1. EAE-KO EGOERA EKONOMIKOAREN ETA LAN HARREMANEN EZAUGARRI NAGUSIAK 2022AN.....	14
2. EAE-KO EGOERA EKONOMIKOA	29
2.1 INGURUNE EKONOMIKOA.....	29
2.2 EAE-KO EKONOMIA	32
3. ENPLEGUA, KONTRATAZIOA ETA LANEKO KOSTUAK	42
3.1. SARRERA.....	42
3.2. LAN MERKATUA ETA ENPLEGUA EAE-N.....	43
3.2.1. BIZTANLERIA AKTIBOA.....	43
3.2.2. BIZTANLERIA OKUPATUA	45
3.2.3. BIZTANLERIA LANGABETUA	49
3.3. JAKINARAZITAKO LANEKO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA (EAE).....	55
3.3.1. BILAKAERA OROKORRA ETA ERROTAZIOA	55
3.4. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA.....	59
3.5. SOLDATEN BILAKAERARI BURUZKO AURRETIAZKO GOGOETAK.....	66
3.6. LANBIDE ARTEKO GUTXIENENKO SOLDATA	68
3.7. LANEKO KOSTUAREN HIRUHILEKOKO INKESTA.....	70
3.8. LANEKO PREZIOEN INDIZEA.....	75
4. LAN HARREMANAK.....	79
4.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA	79
4.1.1. SARRERA	79
4.1.2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOKO AKORDIOEN ERAGINPEKO LANGILEEN EZAUGARRIAK	79

4.1.3.	2022KO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK	81
4.1.4.	NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2022AN	86
4.1.5.	2022RAKO NEGOZIAZIOAREN EMAITZAK	99
4.1.6.	2022AN INDARREAN ZEUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN ERAKUNDE NEGOZIATZAILEAK ETA SINATZAILEAK.....	111
4.1.7.	HITZARMEN KOLEKTIBOEN INAPLIKAZIOAK EAE-N	116
4.1.8.	NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA SEKTORE PUBLIKOAN.....	118
4.2.	LANEKO GATAZKAK	120
4.2.1.	ALDERDI NAGUSIAK	120
4.2.2.	LANEKO GREBAK EAE-N.....	121
4.2.3.	PRECON AURKEZTUTAKO GATAZKAK.....	127
4.3.	ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK	132
4.3.1.	SARRERA. ARAU ESPARRUA.....	132
4.3.2.	EAE-KO ADMINISTRAZIOAN AURKEZTUTAKO ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK	133
4.3.3.	EAE-KO ADMINISTRAZIOAK BAIMENDUTAKO EDO HARI KOMUNIKATUTAKO ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK.....	134
4.4.	LANEKO EZBEHAR-TASA	139
4.4.1.	LANEKO EZBEHAR-TASAREN BILAKAERA HISTORIKOA (EAE-ESTATUA; 2012-2021).....	139
4.4.2.	LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N ETA ESTATUAN 2022AN: ALDERDI NAGUSIAK..	140
4.4.3.	LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N: SEKTOREAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERAKO ANALISIA	144
4.4.4.	LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N: SEXUAREN ARABERAKO ANALISIA.....	148
4.5.	HAUTESKUNDE SINDIKALAK	150
ERANSKINA. EAE-KO SEKTORE HITZARMENEN ZERRENDA ETA HORIEN EGOERA 2022KO ABENDUAREN 31N		156

AURKEZPENA

Gizarte-eta lan-arloko aldagai nagusiek urtean zehar izandako bilakaeraren azterketa xehea jasotzen dute gure urteko txostenek. Alde horretatik, iragan hurbilaren gaineko hausnarketa egiten da, batez ere, txosten hauen bidez. Izan ere, behin betiko datuak itxi ondoren eta aztertutako aldiaz geroztik ia seihileko bat igaro denean argitaratzen dira. Baina bestalde, txostenaren aurkezpen publikoak aukera ona ematen du parametro horiek berberak aribideko urtean duten portaera baloratzeko. Ikuspegi bikoitz horri esker, azterketa estatikoa eta oinarriko joeren gaineko ikuspegi dinamikoagoa konbinatu ditzakegu.

2022aren hasieran hodei beltz batzuk ikus zitezkeen oraindik ere zerumugan. Ukrainako inbasioaren ondoriozko ezegonkortasun geopolitikoaz gain, etengabeko inflazioarekin lotutako beldurra nabari zen. Uztailean bi digituak gainditu zituen inflazioak, eta horrek negoziazio kolektiboa modu larrian oztopatu zezakeen beldur zen jendea, azken hamarkadetan zehar prezio egonkorreko agertokietan negoziatu izan baitira hitzarmen kolektiboak. Gainera, banku zentralak inflazioari eusteko hartutako neurriek ekonomiaren epe laburreko eta ertaineko bilakaerari eragin ziezaioketela uste zen eta, ondorioz, enpleguaren joerari.

Nolanahi ere, orduan aurreikusitakoa baino nabarmen hobeak izan dira azken emaitzak. Ekonomiaren hazkundea txikiagoa izan bazen ere, ekonomiak nahiko ongi funtzionatu zuen eta batez beste % 4,4 hazi zen urtean zehar. Bestetik, enplegua hazi egin zen kuantitatiboki eta, gainera, hobetzen jarraitu zuen laneko egonkortasunari dagokionez. Hala, gure lan-merkatuko behin-behinekotasun kronikoa behin betiko gainditzeko lehen pauso kualitatiboa eman zen, urte askoan emandako egiazko lehenengo pausoa. Horrez gain, negoziazio kolektiboaren portaera ere espero baino dinamikoagoa izan zen eta ekitaldia aurreko urteetako balioen oso antzekoekin ixtea lortu zuen, eguneratutako hitzarmenei eta negoziazio-jarduera eraginkorrari (2022an sinatutako hitzarmenak) dagokienez.

2023ko lehenengo bost hilabeteetan zehar aldaketa garrantzitsurik gabe mantendu dira joera horiek, aldakuntza batzuekin. Batetik, urteko sasoi honetan, analista gehienak neurritz ari dira haien goranzko aurreikuspenak berrikusten, eta igoera apala aurreikusten dute 2024tik aurrera. Dena den, ezin dugu ahaztu inflazioak balio altuetan jarraitzen duela, batez ere, azpiko inflazioa deritzonak; eta prezioen ezohiko igoera honi aurre egiteko banku zentralen politiken ibilbidea ez da amaitu oraindik. Beste batzuetan aipatu izan dudan moduan, nire iritziz, horrek enpleguan izan lezakeen eragina da garrantzitsuena. Hortaz, adi egon beharko dugu BPGak urtearen bigarren zatian zer bilakaera duen ikusteko eta, bereziki, enpleguak zer portaera duen ikusteko. Dena den, momentuz, enpleguaren aldagai ia guztiak indartsu mantentzen dira.

Lehenik eta behin, bilakaera kuantitatiboari dagokionez, instantzia publiko eta pribatuek dagoeneko askotan nabarmendu dute okupatuak kopuruak milioia gainditu zuela lehenengoz 2023an EAEn. Kohesio sozialaren gainean duen zuzeneko efektua da hazkunde horren lehenengo ondorio positiboa. Izan ere, bizi proiektu bat eraikitzeke beharrezko baldintza da enplegua, beti nahikoa ez den arren. Baina, zalantzarik gabe, badira beste batzuk ere: batetik, babes sozialeko sistema indartzeko biderik onena afiliazioaren bilakaera positiboa da eta, bestetik, okupazioaren igoera horrek esan nahi du langabezia-tasa ez dela jaitsi biztanleria aktiboa murriztu delako, enplegu-tasa hobetu delako baizik. Aipatu beharrekoa da enpleguaren beharra hazten

ari dela (bestetik, eraldaketa-prozesu azkarrean dago) eta potentzialki aktiboak diren pertsonen segmentua murriztu egingo dela epe labur-ertainean. Eta, hain zuzen ere, bi faktore horiek batzea izango da erronka demografikoaren desafio orokorretako bat. Ondorioz, beharrezkoa da jarduera-tasak igotzea eta, gainera, enpresen benetako eskakizunetara doitzen diren profil profesionalekin lotuta egitea.

Errepaso labur honetan eta alderdi kualitatiboari dagokionez, enpleguaren bi aurpegiak nabarmendu behar dira. Batetik, egonkortasuna irabazi du, modu nabarmenean, eta behin-behinekotasunaren tasa % 17tik behera kokatu da aspaldiko partez. Baina, bestetik, nahi gabeko partzialtasunaren ehuneko handia ez da murriztu, eta aurreko urteetako mailaren oso antzekoan jarraitzen du 2023an. LGSk hazkunde azkarra izan du, eta hori albiste ona da beti. Gainera, negoziazio kolektiboaren bilakaera nahiko ona izan da. Testuinguru horretan, nahi gabeko partzialtasunaren maila hori da, ziur asko, kolektibo batzuen soldatak oraindik ere eskasak izatean gehien eragiten duen faktorea.

Sarrera honi amaiera emateko, aipamen berezia egin behar zaio negoziazio kolektiboaren bilakaerari. Izan ere, haren portaera da lan- eta gizarte-eredu orekatu eta justu baten oinarrian dagoen hirugarren erpina: hazkunde ekonomikoa, enplegua sortzea eta lan-baldintzak aldian behin berritzea. 2023ko lehen bost hilabeteetan zehar, dezente desagertu da inflazioa akordioak lortzeko oztopo handia izango zen beldurra. Maiatzean itxitako datuek, gutxienez, hiru albiste on utzi dizkigute: lehendabizikoa, negoziazio-erritmoa nabarmen igo dela. Urte sasoi honetan, langileen % 25i eragiten dioten akordioak sinatu dira dagoeneko. Azken hamarkadako negoziazio-erritmorik azkarrena izateaz gain, bikoiztu egiten ditu 2012ko lan-erreformaz geroztiko erregistrorik onenak. Bigarrena, horren ondorioz eta aspaldiko partez langileen % 50ek baino gehiagok eguneratuta dituztela haien hitzarmenak, lehen seihilekoa amaitu aurretik. Horrek esan nahi du bitik batek eguneratuta dituztela haien lan-baldintzak. Akordio berriak (% 25) eta aurreko urteetatik datozenak (% 25) batuta eskuratzen da ehuneko hori. Eta hirugarren albiste hona zera da, hitzarmen kolektiborik gabeko pertsonen kopuruak behera egiten jarraitzen duela, eta 2023ko maiatzean % 6 inguruan kokatu zela.

Beste kasu batzuetan esan dudan moduan, nire iritziz, agertoki konplexu batean eta hainbat hamarkadatan ezagutu ez dugun agertoki batean erreakzionatzen eta irtenbideak topatzen jakin du negoziazio kolektiboak. Uste dut hori errepikatzeo aukera ona dela honako hau. Batetik, hitzarmenak eguneratzea beti delako albiste ona, baina, bereziki, prezioak azkar igotzen ari diren testuinguru batean soldata-baldintzak izozteak ondorio oso larriak dituelako bizitza-mailaren gainean. Dena den, ez nituzke inola ere ahaztu nahi aurrean ditugun erronkak. Beste % 50en itunak berritzea da agerikoena, eta 2012ko lege-erreformaren ondorioz hitzarmena berritu ez izanagatik estaldura galdu zutenak berriro ere hitzarmenen estaldurara itzultzea, behin betiko. Nire ustez, horiek dira presazkoenak, baina ez dira bakarrak. Hitzarmenen edukiak aberastearekin lotutako erronka orokorraren gainekoak dira gainerakoak, honakoetan aurrerapausoak emateko: genero-berdintasuna, laneko osasuna, formakuntza, adostutako malgutasuna... Hortaz, bidea dugu egiteko, hitzarmen kolektibo gehiago eta hobeak lortze aldera.

Era berean, sarrera hau aukera bat da niretzat, urte hauetan zehar Lan Harremanen Kontseilua osatzen duten pertsonak eman didaten babesak idatziz jasota uzteko. Nire esker ona ez da inoiz iritsiko haien konpromisoaren mailara, Kontseilua guk beti nahi izan dugun hori bihurtzeko konpromisoaren mailara, hain zuzen ere: lan-harremanei laguntzeko zerbitzu integrala eta erabilgarria, langileen bizitza hobetzen laguntzeko, apalki baina etengabe; ez gehiago, ez gutxiago.

2023ko uztaila

Tomás Arrieta Heras
Presidentea

SARRERA

Bi urtez, COVID-19 koronabirusaren ondorioek markatu zituzten gure gizarteko arlo guztiak. Hala, 2022an, gaixotasunaren hedapena saihesteko ezarritako murrizketak kendu zituztenean, gure bizimodua berreskuratu ahal izan genuen eta ekonomiaren pulstua berreskuratu genuen; izan ere, oraindik ere hibernazio-egoeran zegoen, nolabait.

2022a amaitzean gure BPGa pandemiaren aurrekoa baino baxuagoa zen oraindik, baina Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 2019ko abendukoa baino handiagoa zen. Eta kezka eta erronka berriak agertu baziren ere, pandemia gaindituta zegoela zirudien ekitaldiaren amaieran.

Lan Harremanen Kontseiluak egindako hogeita zazpigarren txostena da *Egoera ekonomikoa eta lan-harremanak EAEn 2022an* izeneko txosten hau, 2023ko urtarriletik maiatzera bitartean egina. Lan Harremanen Kontseiluari buruzko 4/2012 Legean ezarritakoa betetzeaz gain, EAeko gizarte-eta lan-arloko errealitateari buruzko ikuspegi ahalik eta objektiboena eskaintzea da txostenaren helburua.

Txostena lau kapitulutan egituratuta dago, aurreko edizioetan bezala. Egindako analisiaren ondorio eta aurkikuntza garrantzitsuenak azaltzen ditu lehenengo kapituluak, "EAeko egoera ekonomikoaren eta lan-harremanen ezaugarri nagusiak 2022an" izenekoak.

Bigarren kapituluak, "EAeko egoera ekonomikoa" izenekoak, EAeko ekonomiaren ingurunea eta bilakaera aztertzen ditu, labur.

Hirugarren kapituluak, "Enplegua, kontratazioa eta laneko kostuak" izenburua duenak, EAeko lan-merkatuaren hainbat alderdi aztertzen ditu (okupazioa, langabezia, kontratazioa, etab.).

Negoiazio kolektiboa laugarren kapituluan aztertzen da, "Lan-harremanak" izenekoan. Kapitulu horren barruan, negoziazio-dinamika eta emaitza nagusiak aztertzeaz gain, honako hauek ere aztertzen dira: hitzarmenen inaplikazioak, laneko gatazkak, enplegua erregulatzeko espedienteak, laneko ezbehar-tasa eta hauteskunde sindikalen emaitzak.

Azkenik, hainbat erakunderen elkarlana eskertu nahi dugu, horiek gabe ezin izango genukeelako gizarte- eta lan-arloko informazio-plan hau aurrera eramanez. Horren harira, honako hauek aipatu behar ditugu, beste batzuen artean: Lan eta Enplegu Saila (Eusko Jaurlaritza), Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, Eustat, Lanbide, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (SEPE) eta Bizkaiko SEPEren Lanbideen Behatokia.



**EAE-KO
EGOERA
EKONOMIKOAREN ETA
LAN HARREMANEN
EZAUGARRI
NAGUSIAK 2022AN**

1. EAE-KO EGOERA EKONOMIKOAREN ETA LAN HARREMANEN EZAUGARRI NAGUSIAK 2022AN

NDFren arabera, 2022an % 3,4 hazi zen munduko ekonomia, 2020ko jaitsieraren (-% 2,8) eta 2021eko igoera handiaren (+% 6,3) ondoren.


Ukrainako gerrak, prezioen gorakadak eta tentsio geopolitikoek markatu zuten nazioarteko testuingurua. Hala, ekonomia aurreratuek % 2,7ko hazkundera erregistratu zuten (2021ean % 5,4koa). Ekonomia sortu berrien eta garapen bidean dauden ekonomien BPGak, beste behin, hazkunde handiagoa izan zuen, % 4koa (2021ean % 6,9koa).

Eurogunea, Ukrainako gerraren ondorioek bereziki kaltetutako eremua, % 3,5 hazi zen 2022an. Europako Ekonomia handien artean, Espainia izan zen dinamikoena, eta % 5,5eko hazkundera izan zuen. Alemaniako BPGa, berriz, % 1,8 bakarrik hazi zen.

Hala, 2022aren amaieran Espainiak oraindik ere ez zuen berreskuratu pandemia agertu aurreko jarduera maila, Euroguneko ekonomia gehienek ez bezala. 2022an, Estatu osoko BPGa % 1,3 baxuagoa zen 2019koa baino.

1.1. GRAFIKOA

EAE-KO, ESTATUKO ETA EUROGUNEKO BPG-A



Iturria: Eustat, EIN eta Eurostat. 2023ko martxoa

EAEko ekonomia % 4,4 hazi zen 2022an, 2020ko jaitsieraren (-% 9,6) eta 2021ean erregistratutako % 5,9ko hazkundearen ondoren.

Barne-eskariak ehuneko 2,7 puntuko ekarpena egin zion EAEko hazkunde orokorrari 2022an; kanpo-eskariak, berriz, 1,7 puntuko ekarpena egin zion hazkundeari.

Hala, EAEko ekonomiak ere, 2022aren amaieran, ez zuen berreskuratu pandemia aurreko BPGa. Dena den, EAEren kasuan, haren ekonomia askoz ere gertuago zegoen 2019ko balioetatik Espainiaren kasuan baino; Espainian, 2019ko BPGarekiko aldea handiagoa zen.

Zehazki, EAEren 2022ko BPGa (kateatutako bolumenaren indizea) 111,9 puntukoa izan zen, 2019an erregistratutakoa (112 puntu) baino ehuneko hamarren bat txikiagoa. Espainian, aldiz, aipatu dugun moduan, 2019koa baino % 1,3 baxuagoa izan zen.

EAEko ekonomiaren produktibitatearen bilakaerari dagokionez, 2022an ageriko produktibitatea % 1,2 hazi zen aurreko urtearekin alderatuta, baina 2019koa baino baxuagoa zen oraindik ere, enplegua BPGa baino neurri handiagoan hazi zelako.


Ziur aski, prezioen gorakada handia izan zen nabarmenena, 2022an zein aurreko ekitaldian.

2021eko martxotik aurrera, prezioak gora egiten hasi ziren. Hala, 2021eko abenduan, % 6,5koa zen estatuko KPIaren urte arteko hazkundera.

Aipatu dugun moduan, inflazioaren joera goranzkoa zen, eta Errusiak Ukraina inbaditu izanak lagundu egin zion hazkunde horri. Hala, 2022 amaierarako, KPIaren urte arteko hazkundera % 5,7koa zen estatuan eta % 5,4koa EAEn.

Energiaren eta lehengaien prezioen gorakada ekonomia osora zabaltzen joan zen, pixkanaka. Hala, 2022. urtearen amaieran, azpiko inflazioaren (kalkulatzeko orduan, prestatu gabeko elikagaien eta produktu energetikoen prezioen igoerak barne hartzen ez dituen) hazkundera % 6,7koa zen EAEn eta % 7koa estatuan.

Etorkizunari begira, EAEko eta gure inguruko ekonomien hazkundera apala izango dela aurreikusten da, ziurgabetasunez betetako agertoki batean, esaterako, arrazoi hauen ondorioz: egungo tentsio geopolitikoak, Ukrainako gerraren luzapena, eta inflazioari eusteko interes-tasen igoera.

1.2. GRAFIKOA**BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA EAE-N* (MILAKA PERTSONA).
2008-2022**

* 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

Enpleguaren bilakaerari dagokionez, BJAREN arabera, 2022an 961.700 pertsonak¹ osatzen zuten biztanleria okupatua, hau da, aurreko ekitaldian baino % 2,4 gehiagok eta 2019an baino % 1,1 gehiagok.

2022an % 8,5era jaitsi zen langabezia-tasa. Hortaz, 2021ekoa (% 10) baino ehuneko 1,5 puntu baxuagoa eta 2019koa (% 9,8) baino ehuneko 1,3 puntu baxuagoa izan zen 2009. urteaz geroztik izandako langabezia-tasarik baxuena da.

Afiliatu kopuruaren bilakaerari dagokionez, 2022ko abenduan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua (hileko batez bestekoa) milioi bat pertsona baino apur bat baxuagoa izan zen (994.077 pertsona), azken urteetako zifrarik altuena.


Erregimen Orokorrean afiliatutako pertsonen kopurua asko hazi zen: 2019ko abenduan baino 16.423 pertsona gehiago (+% 2,1). Horrek eragin zuen Gizarte Segurantzako afiliazioaren hazkundera, gainerako erregimenetan gutxitu egin baitziren afiliatuak.

Gizarte Segurantzak argitaratutako datuen arabera, 2019 eta 2022 artean hazi egin zen enplegu publikoa, eta horri dagokio afiliazioaren hazkunderaren zatirik handiena. 2019an 142.390 langile publiko zeuden eta, 2022ko abenduan, 153.295. Aldi horretan Erregimen Orokorrean sortutako enplegu guztiaren % 66,4 dagokio hazkunde horri.

¹ Urteko batez bestekoa. 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako behin-behineko datuak.

1.3. GRAFIKOA


GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO PERTSONA KOPURUA EAE-N (HILABETE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKOA). 2008-2022



Iturria: Gizarte Segurantza.

1.4. GRAFIKOA

EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO PERTSONEN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ETA LANALDIAREN ARABERA (HILABETE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKOA). 2019KO ABENDUA - 2022KO ABENDUA



(*) Barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak) eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeke langileen sistema bereziak.

Iturria: Gizarte Segurantza.

2019az geroztik asko aldatu da Erregimen Orokorrean afiliatutako pertsonen osaera, kontratu motaren arabera. Afiliatuak bi talde handitan banatuz gero (kontratu mugagabea dutenak eta aldi baterako kontratua dutenak), 2022ko abenduan afiliatuen % 81,5ek² kontratu mugagabea zuten; 2019an (% 72,2) erregistratutakoa baino 9 puntu handiagoa da ehunekoa hori.

2022an indarrean sartu zen lan-erreformarako, enplegu-egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua. Haren bidez, arau berriak ezarri zituzten aldi baterako kontrataziorako, eta mugatu egin zuten. Hori erabakigarria izan da afiliazioaren osaera aldatzeko.

Halaber, arau hau indarrean sartu izanaren ondorioz, nabarmen murriztu dira sinatutako aldi baterako kontratu berriak eta asko ugaritu dira kontratu finkoak, batez ere, aldizkako finkoak.

2022an zehar 815.719 kontratu jakinarazi zituzten guztira. Horietatik % 24,5 (199.995) mugagabeak izan ziren eta, gainerako % 75,5ak (615.724), aldi baterakoak.

2022aren aurreko urteetan, EAEn sinatzen ziren kontratuen % 90 aldi baterakoak ziren (2019an, % 91,7); 2022an, berriz, % 75,5era jaitsi zen ehuneko hori. Bestalde, 2019. urtean sinatutako kontratu guztien artetik, % 8,3 ziren mugagabeak; 2022an, guztizkoaren % 24,5 izan ziren mota horretakoak.

1. 1. TAULA

EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATU KOPURUA, URTEAREN ETA KONTRATU MOTAREN ARABERA

	2019	2021	2022	ALDAKUNTZA TASA 22/19
Mugagabeak	83.931	80.545	199.995	138,3
Aldizkako finkoak	4.333	4.620	36.748	748,1
Gainerako mugagabeak	79.598	75.925	163.247	105,1
Aldi baterakoak	924.244	781.181	615.724	-33,4
Praktikak eta formakuntzakoak	7.704	7.473	7.102	-7,8
Gainerako aldi baterakoak	916.540	773.708	608.622	-33,6
GUZTIRA	1.008.175	861.726	815.719	-19,1


Iturria: SEPE.

Enplegua erregulatzeko espedienteen eraginpeko pertsonen dagokienez, krisi ekonomiko eta sanitarioaren faserik larriena gainditu ondoren nabarmen murriztu ziren ABEEE-en eraginpeko pertsonak 2022an.

² Mugagabetzat hartu ditugu "Beste batzuk" atalean txertatuta daudenak, gehienak funtzionarioak direlako. "Beste batzuk" atalak barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak) eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

1.5. GRAFIKOA

EAE-N BAIMENDUTAKO EDO KOMUNIKATUTAKO ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEEN ERAGINPEKO PERTSONA KOPURUAREN BILAKAERA. 1993-2022.



Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

2022an zehar enplegua erregulatzeko 565 espediente aurkeztu zituzten EAEn, eta horiek 19.772 langileri eragin zieten. Hortaz, aurreko urtearekin alderatuta, % 69,6 murriztu zen espediente kopurua eta % 39,6 eraginpeko pertsonen kopurua.

Murrizketak amaitu izana erabakigarria izan zen aipatutako jaitsiera gerta zedin. Hala, eraginpeko pertsonen kopurua 2012ko edo 2013ko kopuruak baino beherago kokatu zen, baina pandemia agertu aurreko urteetako baino gorago.

1.2. TAULA


ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK EAE-N, ARRAZOIAREN ARABERA. 2022. URTEA

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO PERTSONAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
Arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketa-arrazoiak edo ekoizpen-arrazoiak	392	18.272	1.102	16.739	431
Ezinbestea	173	1.500	163	1.331	6
Guztira	565	19.772	1.265	18.070	437

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Aldi baterako enplegua erregulatzeko espedienteek (ABEEE) pertsona gehienei eragin zieten (% 97,8), eta 437 langileri bakarrik eragin zieten lan-harremana iraungitzeko espedienteek, guztizkoaren % 2,2ri.

Negoiazio kolektiboaren bilakaerari dagokionez, 2022aren amaieran, langileen % 45,4k eguneratuta zituzten haien hitzarmenak (indarraldi betean), % 47,4k luzapen-egoeran zituzten haien akordioak, eta % 7,2k indargabetuta eta estaldurarik gabe zituzten haien hitzarmenak. Hala, 2022aren amaieran, 2012ko lan-erreforma onartu zenetik izandako baxuena izan zen hitzarmenak indargabetuta zituzten langileen ehunekoak.


1.6. GRAFIKOA**EAE-KO LANGILEEN BANAKETA, EHUNEKOTAN, HITZARMENAREN INDARRALDIAREN ARABERA (URTE BAKOITZEKO ABENDUAREN 31KO DATUAK)**

Arabako Industria Siderometalurgikoko Hitzarmena sinatu zuten 2022an, indargabetuta baitzegoen. Horri esker, hitzarmenak indargabetuta zituzten langileen kopurua % 7,2 murriztu zen ekitaldiaren amaieran (43.752 pertsona)

2022an zehar haien hitzarmenak berritu zituzten pertsonen ehunekoa (% 18,9) aurreko urteetakoaren antzekoa izan zen arren, urtearen hasieran hitzarmenak berrituta zituzten langileen ehunekoa baxuagoa zen 2019koa eta 2020koa baino. Ondorioz, urtearen amaieran hitzarmena eguneratuta zuten soldatapeko langileen ehunekoa % 50etik behera kokatu zen berriz ere gure erkidegoan (% 45,4).

Sexuaren araberako banaketari dagokionez, aurreko urtearekin alderatuta murriztu egin zen hitzarmenak indarrean zituzten gizonen ehunekoa (2021ean % 51,5 eta 2022an % 49,5). Hitzarmenak eguneratuta zituzten emakumeen ehunekoa, berriz, hazi egin zen: 2021ean % 38,8 eta 2022an % 40.

1.7. GRAFIKOA

**NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ERAGINPEKO PERTSONEN BILAKAERA EAE-N
(ABENDUAREN 31KO DATUAK)**


Lurralde eremuaren (EAE/Estatua) araberako analisiak erakusten duenez, 2022an finkatu egin zen gure negoziazio eremu propioak berreskuratzeko prozesua. EAEen negoziatutako hitzarmenen (indarrean eta luzatuta) eraginpeko langile kopurua 10.000 langile baino gehiago areagotu zen aurreko urtetik, eta 391.633 pertsonara heldu zen. EAEen eragina duten estatu mailako hitzarmenen eraginpeko langileen kopurua, berriz, 5.000 pertsona baino apur bat gutxiago hazi zen eta 169.026 pertsonara heldu zen ekitaldiaren amaieran.

Eremu funtzionalen (enpresa/sektorea) araberako azterketak erakusten duenez, 2022ren amaieran, enpresako hitzarmenen eraginpeko langileen % 53,8k eta sektoreko hitzarmenen eraginpeko langileen % 42,6k eguneratuta zituzten haien hitzarmenak. Hala, aurreko urtearekin alderatuta, ehuneko hori 7 puntu baino gehiago hazi zen enpresako hitzarmenen kasuan eta 3 puntu murriztu zen sektoreko hitzarmenen kasuan.

1.3. TAULA EAE-N NEGOZIATUTAKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN NEGOZIAZIO- PROZESUEN IRAUPENA (BATEZ BESTEKO EGUN KOPURUA)*

	URTE HONETAN ERREGISTRATUAK:		URTE HONETAN INDARREAN	
	2021	2022	2021	2022
Guztira	339	286	295	288
Sektorekoak	677	530	671	496
Enpresakoak	313	258	273	272

Iturria: LHK.

EAEen negoziatutako hitzarmen kolektiboen negoziazio-prozesuen iraupena nabarmen murriztu zen, batez ere, sektoreko hitzarmenen kasuan. Kasu horietan, negoziazio-prozesuen batez besteko iraupena 671 egunetik (2021) 496 egunera (2022) murriztu zen, indarrean zeuden hitzarmenei dagokienez.

Dena den, 2022an EAeko sektoreko negoziazioan aurrerapen handia erregistratu bazen ere, 2008ko krisiaren aurreko batezbestekotik (250 egun baino gutxiago) urrun gaude oraindik ere.

EAEen 2022an indarrean zeuden hitzarmenetan (EAEen eragina duten estatu mailako hitzarmenak barne) adostutako batez besteko soldata-igoera % 4,08koa izan zen, estatuko hitzarmen kolektiboetan adostutako batez besteko soldata-igoera (% 2,78³) baino 1,3 puntu handiagoa.

1.4. TAULA 2021ERAKO ETA 2022RAKO ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK*

	SOLDATA IGOERA	
	2021	2022
EAE, guztira	1,23%	4,08%
EAEen negoziatutakoak	1,16%	4,80%
Áraba	2,63%	4,78%
Bizkaia	1,34%	4,29%
Gipuzkoa	0,57%	5,76%
Lurralde artekoak	1,25%	2,39%
Estatu mailakoak	1,37%	2,89%

* Urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak.



** EAEen eragina duten estatu mailako hitzarmenetako soldata-igoerak.

Iturria: LHK.

2022ko soldata-igoerak % 4tik gorakoak izan ziren lurralde eremu guztietan, EAEen eragina duten estatu mailako hitzarmenen kasuan izan ezik. Gipuzkoa nabarmendu zen, bertan indarrean zeuden hitzarmenetan negoziatutako soldata-igoera % 5,76koa izan baitzen.

2018, 2019 eta 2020an baxuak izan ziren inflazio-tasak. Horri esker, soldata-igoerak handiagoak izan ziren inflazioa baino. Hala ere, 2021ean eta 2022an prezioak igo izanaren ondorioz, 2021eko eta 2022ko negoziazio kolektiboan itundutako soldata-igoerak KPIa baino dezente beherago kokatu ziren.

³ Estatu osorako hitzartutako soldata-igoera, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak 2023ko urtarrilaren 31n emandako informazioaren arabera.

1.8. GRAFIKOA**EAEN ERAGINA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOETAN ADOSTUTAKO SOLDATA-IGOEREN BILAKAERA****1.9. GRAFIKOA****EAEn KPI-AREN URTE ARTEKO IGOERAK ABENDUAN ETA KPI-AREN BATEZ BESTEKO IGOERA URTE BAKOITZEAN**

Hitzarmenetan soldata-igoerak finkatzeko erabilitako formulari dagokionez, hitzarmenak eguneratuta dituzten langileen (273.938 pertsona) banaketa agertzen da 1.5. taulan, haien negoziazio kolektiboko hitzarmenek 2022rako soldata-igoera islatzen duten moduaren arabera.

Hala, langileen % 58,4k soldata-igoera finkoa zuten ezarrita 2022rako haien hitzarmenetan. % 30,4k 2021eko KPIaren arabera soldata-igoerak zituzten adostuta 2022rako, eta % 3,3ren kasuan 2022ko KPIaren arabera zen igoera. Gainerako % 7,9ak soldata-igoerak hainbat parametroren arabera berrikustea zuen hitzartuta (2022ko KPIa gehieneko mugekin, etekinak, BPGaren bilakaera, etab.).

1.5. TAULA

HITZARMENAK INDIRREAN DITUZTEN LANGILEEN BANAKETA, 2022RAKO ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERA APLIKATZEKO FORMULAREN ARABERA

Igoera finkoa	% 58,4
2021eko KPIaren arabera	% 30,4
2022ko KPIaren arabera	% 3,3
Hainbat parametroren arabera	% 7,9

Iturria: LHK.

Enpresa batzuen kasuan ez dugu ezagutzen aplikatu beharreko igoera, etekinen, salmenten eta abarren arabera delako. Hortaz, horiek ezin ditugu kontuan hartu soldata-igoera kalkulatzeko. "Hainbat parametroren arabera" atalean sartu ditugu hitzarmen mota horiek sinatu dituzten langileak, baita hitzarmena indarrean izan arren zer soldata-igoera izango duten ez dakiten langileak ere.

Gatazken bilakaerari dagokionez, pandemiak eragindako egoeraren ondorioz gatazkek murriztu egin ziren 2020an. 2021an eta 2022an, gutxika normaltasunera itzultzearekin batera, gatazkek ere areagotu egin ziren, bereziki, greba kopurua eta lan egin gabeko egunak kontuan hartzen baditugu.

Hala, 2022an zehar 342 laneko greba erregistratu ziren EAEn eta 106.998 pertsonak parte hartu zuen horietan. Lan egin gabeko lanaldien kopurua 384.459koa izan zen. 2021arekin alderatuta, greba kopurua % 37,9 areagotu zen, eraginpeko langileen kopurua % 620,6 eta lan egin gabeko lanaldien kopurua % 173,1.

1.6. TAULA
LANEKO GREBAK (EAE)

	GREBAK	PARTE HARTZAILE KOPURUA	LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	GREBA BAKOITZEKO PARTAIDEAK	GREBA BAKOITZEKO LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	LAN EGIN GABEKO ORDUAK PARTAIDE BAKOITZEKO
2010	298	38.090	179.519	128	602	37,7
2011	240	18.640	83.935	78	350	36,0
2012	278	21.600	130.930	78	471	48,5
2013	350	37.020	140.391	106	401	30,3
2014	236	17.126	56.648	73	240	26,5
2015	184	10.608	18.222	58	99	13,7
2016	164	13.735	58.157	84	355	33,9
2017	214	59.505	96.423	278	451	13,0
2018	264	48.696	110.838	184	420	18,2
2019	308	79.860	391.830	259	1.272	39,3
2020	190	25.642	59.741	135	314	18,6
2021	248	14.848	140.775	60	568	75,8
2022	342	106.998	384.459	313	1.124	28,7

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Sektoreko gatazka bakar batek azaltzen du igoera handi horien zati bat, hain zuzen ere, Bizkaiko Industria Siderometalurgikoko Hitzarmenaren negoziazioetik eratorritako gatazka.

Bizkaiko Metalaren sektoreko greba deialdietan parte hartu zuten pertsonak izan ziren 2022ko eraginpeko pertsonen % 59,6; gatazka horri zegozkion lan egin gabeko lanaldien % 62. Hain zuzen ere, Bizkaiko industria siderometalurgikoan lan egin gabeko lanaldiak (238.325) kanpoan utziko bagenu, lan egin gabeko lanaldien kopurua 146.134ra jaitsiko litzateke.

Sektore ekonomikoen araberako azterketak erakusten digunez, 2022an industrian pilatu ziren gatazken % 27,8, eraginpeko pertsonen % 76,6 eta lan egin gabeko lanaldien % 79,7.

EAEko laneko ezbehar-tasari dagokionez, 2020an nabarmen jaitsi zen baja eragin zuten laneko ezbeharren tasa, aurreko urtearekin alderatua (-% 18,6). 2021ean jarduera berreskuratzearekin batera, ezbehar-tasa ere dezente igo zen (+% 15,1).

Baja eragin zuten ezbeharrek urte arteko % 4,8ko hazkundera izan zuten 2022an, eta 37.933 pertsonari eragin zieten, 2019an (38.626 pertsona) baino apur bat gutxiagori.

1.7. TAULA**LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N (BAJA Hartu ZUTEN ERAGINPEKO PERTSONAK)**

	Baja eragin zuten istripuak, lanaldian								In itinere	Baja eragin zuten istripuak, lanaldian + In itinere		Gaixotasun profesionala	Guztira
	Guztira	Larritasunaren arabera			Sektorearen arabera					Traumatikoak	Ez traumatikoak		
		Arinak	Larriak	Hilgarriak	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak					
2019	33.007	32.819	162	26	679	11.794	3.766	16.768	4.099	37.044	62	1.520	38.626
2020	26.958	26.768	169	21	562	9.133	3.426	13.837	3.244	30.128	74	1.242	31.444
2021	31.232	31.017	184	31	578	9.867	3.749	17.038	3.619	34.780	71	1.347	36.198
2022	32.651	32.410	216	25	573	10.253	4.093	17.732	3.922	36.509	64	1.360	37.933

Iturria: Osalan. Abenduko hileko txostenak.

2019arekin alderatuta, baja eragin zuten lanaldiko istripuak % 1,1 murriztu ziren, baja eragin zuten "in itinere" istripuak % 4,3 murriztu ziren eta gaixotasun profesionalen ondorioz baja hartu zuten langileen kopurua % 10,5 jaitsi zen.

2022an 30 pertsona hil ziren istripu hilgarri baten ondorioz, lanaldian edo in itinere; 2019ko kopuru bera da. Horietatik 27 gizonak ziren eta 3 emakumeak.

Lanaldian ezbeharra izan zuten eta baja hartu zuten pertsonen ratioak (okupatutako mila pertsonako) urte arteko hazkundera izan zuten, bai EAEn, bai estatuan. Dena den, bi kasuetan, 2022an erregistratutako maila baxuagoa izan zen 2019koa baino.

Laburbilduz, 2022aren amaieran EAeko ekonomiak oraindik ere ez zuten berreskuratu 2019ko jarduera maila, baina afiliatuen kopurua handiagoa zen 2019ko abendukoa baino eta EAeko negozioazio kolektiboak aurrerapen handiak izan zituen. Gerrak, tentsio geopolitikoek, KPIaren gorakadak eta interes-tasen igoerak modu erabakigarrian eragingo diote 2023ko ekonomiaren eta enpleguaren bilakaerari.

2

**EAE-KO
EGOERA
EKONOMIKOA**

2.1. INGURUNE EKONOMIKOA

2020ko beherakadaren (-% 2,8) eta 2021eko gorakada handiaren (+% 6,3) ondoren, 2022an % 3,4 hazi zen munduko ekonomia

NDFren arabera, 2022an % 3,4 hazi zen munduko ekonomia, 2020ko jaitsieraren (-% 2,8) eta 2021eko igoera handiaren (+% 6,3) ondoren.

Ukrainako gerrak, prezioen gorakadak eta tentsio geopolitikoek markatu zuten nazioarteko testuingurua. Hala, ekonomia aurreratuek % 2,7ko hazkundera erregistratu zuten (2021ean % 5,4koa). Ekonomia sortu berrien eta garapen bidean dauden ekonomien BPGak, beste behin, hazkunde handiagoa izan zuen, % 4koa (2021ean % 6,9koa).

Aipatutako erakundeak apirilean egindako aurreikuspenen arabera, munduko ekonomia % 2,8 haziko da 2023an. Ekonomia aurreratuentzat aurreikusitako hazkundera askoz ere apalagoa da (% 1,3), ekonomia sortu berrientzat eta garapen bidean daudenentzat aurreikusitakoa baino (% 3,9).

Dena den, aurreikuspen ekonomiko horiek kontuz aztertu behar dira, ziurgabetasun maila altua delako.

Edonola ere, ez da oso gertagarria etorkizun hurbilean egungo tentsio politikoak desagertzea, eta hainbat faktorek baldintzatuko dute munduko ekonomiak datozen urteetan izango duen bilakaera: gastu militarren hazkundera, ekonomia berdeago baterako trantsizioa, moneta-politikaren gogortze posiblea (inflazioa kontrolatzeko) edo biztanleriaren zahartzea.

Europako ekonomia askok ez bezala, 2022aren amaieran Espainiak oraindik ere ez zuen berreskuratu pandemia agertu aurreko jarduera maila, eta haren BPGa 2019koa baino % 1,3 baxuagoa zen

Ukrainako gerraren ondorioek bereziki kaltetu dute Eurogunea, eta bertan BPGa % 3,5 hazi zen 2022an (aurreko ekitaldian, % 5,4). Hala, dezelerazioa da Euroguneko kideen arteko joera nagusia.

Europako Ekonomia handien artean, Espainia izan zen dinamikoena, eta % 5,5eko hazkundera izan zuen 2021ean zein 2022an. Alemaniako BPGa, berriz, % 1,8 bakarrik hazi zen (2021ean % 2,6).

Barne Produktu Gordina (BPG): ekonomia baten tamaina osoa baloratzeko erabiltzen den neurria. Honela kalkulatzen da: askotariko sektore instituzionalen edo jarduera adarren balio erantsi gordinen batura, gehi zergak, ken produktuen gaineko dirulaguntzak. Iturria: Eustat.

Hala, 2022aren amaieran, Europako ekonomia gehienek ez bezala, Espainiak oraindik ere ez zuen berreskuratu pandemia agertu aurreko jarduera maila. 2022an, estatu osoko BPGa % 1,3 baxuagoa zen 2019koa baino.

Espainian, BPGaren hazkundeak dezelerazio argia izan zuen ekitaldiaren bigarren erdian, eta urte arteko hazkundeek beheranzko joera hartu zuten 2022ko ondoko ondoko hiruhilekoetan zehar: (% 6,9 lehen hiruhilekoan, % 7,8 bigarrenean, % 4,7 hirugarrenean, eta % 2,6 laugarrenean).

Eraikuntza-sektorearen suspertzean (% 4,1eko hazkundera 2022an; 2021ean, aldiz, -% 3ko jaitsiera) eta zerbitzuen sektorearen dinamismoan (% 6,5eko hazkundera, eta aurreko ekitaldian % 6koa) oinarritu zen Espainiako ekonomiaren hazkundera. Industria, berriz, % 3 hazi zen (2021ean % 6,6), eta lehen sektoreak behera egin zuen (-% 1,1).

2.1. TAULA

BPG-AREN URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASAREN BILAKAERA ETA AURREIKUSPENAK

	Urtekoa			Aurreikuspenak	
	2020	2021	2022	2023	2024
MUNDUKO BPG	-2,8	6,3	3,4	2,8	3,0
Ekonomia aurreratuak	-4,2	5,4	2,7	1,3	1,4
Eurogunea (19 herrialde)	-6,1	5,4	3,5	0,8	1,4
Alemania	-3,7	2,6	1,8	-0,1	1,1
Espainia	-11,3	5,5	5,5	1,5	2,0
Frantzia	-7,9	6,8	2,6	0,7	1,3
Italia	-9,0	7,0	3,7	0,7	0,8
Erresuma Batua	-11,0	7,6	4,0	-0,3	1,0
Estatu Batuak	-2,8	5,9	2,1	1,6	1,1
Japonia	-4,3	2,1	1,1	1,3	1,0
Ekonomia sortu berriak eta garapen bidean daudenak	-1,8	6,9	4,0	3,9	4,2
Brasil	-3,3	5,0	2,9	0,9	1,5
Txina	2,2	8,5	3,0	5,2	4,5
India	-5,8	9,1	6,8	5,9	6,3


Iturria: NDF, WEO txostena. 2023ko apirillean eguneratua.

Barne-eskariak ehuneko 3,1 puntuko ekarpena egin zion BPGaren hazkundera globalari 2022an (2021ean 5,2koa), eta kanpo-eskariak 2,4 puntuko ekarpena (aurreko ekitaldian, ehuneko hiru hamarren).

Barne-eskariaren osagaiak aztertuz gero, aurreko urtearekin alderatuta, honakoak ikus daitezke: familien azken kontsumoaren gastuaren hazkundera moteldu egin zen (% 4,5ko hazkundera 2022an, eta % 6koa 2021ean), Administrazio Publikoen gastuak behera egin zuen (-% 0,7; eta, aurreko ekitaldian, % 2,9), eta kapitalaren eraketa gordinaren hazkundera ere apaldu egin zen (% 3,5; eta 2021ean % 5,9).

2.1. GRAFIKOA

EAE-KO ETA ESTATUKO BPG-AREN ETA ENPLEGUAREN MAILA (2000-2022) (INDIZE ZENBAKIAK: 2000-100 BALIOAK)



Iturria: LHK-k egina, Eustaten eta EINen datuetan oinarrituta. 2023ko martxoa

2.2. EAE-KO EKONOMIA

EAEko ekonomia % 4,4 hazi zen 2022an

2022an % 4,4 hazi zen EAEko ekonomia, 2020ko beherakadaren (-% 9,6) eta 2021ean erregistratutako % 5,9ko hazkundearen ondoren.

Hala, EAEko ekonomiak ere, 2022aren amaieran, ez zuen berreskuratu pandemia agertu aurreko BPGa. Dena den, EAEn kasuan, haren ekonomia askoz ere gertuago zegoen 2019ko balioetatik, Espainiaren kasuan baino; Espainian, 2019ko BPGarekiko aldea handiagoa zen.

Zehazki, EAEn 2022ko BPGa (kateatutako bolumenaren indizea) 111,9 puntukoa izan zen, 2019an erregistratutakoa (112 puntu) baino ehuneko hamarren bat txikiagoa. Espainian, aldiz, aipatu dugun moduan, 2019koa baino % 1,3 baxuagoa izan zen.

Hala ere, enpleguak (lanaldi osoko lanpostu baliokideen arabera neurtuta)⁴ % 3,1eko urte arteko hazkundea izan zuen 2022an EAEn, eta 998.089 lanpostura iritsi zen; hala, pandemiaren aurreko maila gainditu zen (2019an, 974.811).

EAEko BPGa 2019an baino % 0,1 baxuagoa izan zen 2022an, baina enplegua pandemiaren aurreko mailatik gora kokatu zen

Estatuan ere, 2022an handiagoa izan zen enplegua (lanaldi osoko lanpostu baliokideak), eta +% 3,1eko hazkundea erregistratu zen 2019arekiko.

2.2. TAULA

EAE-KO BPG-A ETA ENPLEGUA, HIRUHILEKOAREN ARABERA


		BPG (Kateatutako bolumenaren indizea)	Lanaldi osoko lanpostu baliokideak
Urteko batez bestekoa	2019	112,0	974.811
	2020	101,2	914.369
	2021	107,2	968.033
	2022	111,9	998.089
4. Hiruhilekoa	2019	112,9	978.335
	2020	104,4	936.517
	2021	109,5	983.094
	2022	112,7	1.002.138

Iturria: Eustat. 2023ko martxoa

⁴ Honela kalkulatzen dira lanaldi osoko lanpostu baliokideak: lan egindako ordu guztiak zati lanaldi osoko lanpostuetan lan egindako orduen urteko batez bestekoa. Jarduera bat aurrera eramateko lanaldi osoko zenbat langile behar diren jakiteko aukera ematen digu horrek. Adibidez, ABEEE egoeran dauden langile kopurua areagotuko balitz, lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopuruak behera egingo luke, baina ez lioke eragingo biztanleria okupatuari. Gauza bera gertatuko litzateke lehen lanaldi osoan lan egiten zuten eta orain lanaldi partzialean lan egiten duten langileen kopurua handituko balitz.

2.2. GRAFIKOA


EAE-KO BPG-AREN ETA ENPLEGUAREN* URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA, HIRUHILEKOAREN ARABERA



* Lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta.
Iturria: Eustat. 2023ko martxoa

2.3. GRAFIKOA

EAE-KO, ESTATUKO ETA EUROGUNEKO BPG-A. Urte arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat, EIN eta Eurostat. 2023ko martxoa

2022an barne-eskariak ehuneko 2,7 puntuko ekarpena egin zion hazkunde globalari, eta kanpo-sektoreak, 1,7 puntukoa

Estatu mailan ikusi dugun moduan, EAEn kasuan ere, barne-eskariak hazkunde globalari egindako ekarpen positiboa murriztu egin zen (ehuneko 2,7 puntu 2022an, eta ehuneko 5,4 puntu 2021ean); aldiz, kanpo-sektoreak ehuneko 1,7 puntuko ekarpena egin zion hazkundeari 2022an, eta aurreko ekitaldian ehuneko 5 hamarrenekoa.

Osagaien arabera, kontsumo pribatuaren urte arteko hazkundera eta kapital eraketa gordinaren urte arteko hazkundera 2021ean erregistratutakoak baino txikiagoak izan ziren (% 3 eta % 4,4 2022an, eta % 5,6 eta % 6 2021ean, hurrenez hurren). Kontsumo publikoa, berriz, murriztu egin zen (-% 0,4; aurreko ekitaldian, aldiz, % 3,9ko hazkundera).

2.3. TAULA

EAE-KO BARNE PRODUKTU GORDINA (EKARPENAK)

	Urte arteko aldakuntza-tasa	
	2021 (a)	2022(e)
Barne-eskariak BPGaren aldakuntzari egindako ekarpena (1)	5,4	2,7
Kanpo-saldoak BPGaren aldakuntzari egindako ekarpena (1)	0,5	1,7
BPG	5,9	4,4

a) Aurrerapena.

(e) Estimazioa.

(1) BPGaren aldakuntzari egindako ekarpenaren/kenketaren ehuneko puntuak.

Iturria: Eustat. 2023ko martxoa

Zerbitzuak (+% 4,7) eta industria (+% 4,6) izan ziren sektorerik dinamikoenak 2022an, eta lau sektore handien hazkunde-erritmoa apaldu egin zen, aurreko ekitaldiarekin alderatuta

2022an, aurreko ekitaldian baino hazkunde txikiagoa izan zuten lau sektore handiek. Zerbitzuek erregistratu zuten balio erantsiaren urte arteko hazkunderik handiena (% 4,7; 2021ean % 5,8); industriak jarraitu zituen, gertutik (% 4,6; 2021ean % 6,1); eta, distantzia handiagora, eraikuntza (% 2; 2021ean % 4,5) eta lehen sektorea (% 0,8; 2021ean % 21,9) kokatu ziren.

Zerbitzuen arloan, adar guztiak hazi ziren 2022an, baina aurreko ekitaldian baino intentsitate baxuagoarekin. Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren adarrak izan zuen hazkunderik handiena (% 10,7).

EAEko ekonomiaren produktibitateari dagokionez, 2022an % 1,2 hazi zen ageriko produktibitatea, aurreko urtearekin alderatuta. 2021ean % 0,1eko hazkundera erregistratu zuen, 2020ko eroriko handiaren ondoren (-% 3,6).

Ageriko produktibitatea: BPGa zati lanaldi osoko lanpostu baliokideetako enplegua.

2.4. TAULA

EAE-KO ALDAGAI MAKROEKONOMIKOAK

	Urte arteko aldakuntza-tasak			
	2019	2020	2021 ^(a)	2022 [*]
ESKARIA				
Azken kontsumoaren gastua	2,0	-8,9	5,2	2,2
- Familien eta horien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeen azken kontsumoa	1,7	-12,1	5,6	3,0
- Administrazio Publikoen azken kontsumoa	3,1	2,9	3,9	-0,4
Kapital Eraketa Gordina	3,3	-12,1	6,0	4,4
Barne-eskaria	2,3	-9,7	5,4	2,7
Esportazioak, guztira	-0,2	-15,9	12,7	10,2
Inportazioak, guztira	0,0	-15,8	11,6	7,5
BPG	2,2	-9,6	5,9	4,4
ESKAINTZA				
Lehen Sektorea	5,9	-16,9	21,9	0,8
Industria	1,4	-12,2	6,1	4,6
- Manufaktura-industria	1,1	-13,1	5,6	4,3
Eraikuntza	2,4	-14,4	4,5	2,0
Zerbitzuak	2,5	-7,9	5,8	4,7
- Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa	2,2	-20,4	11,8	10,7
- Administrazio Publikoak, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak	3,2	1,1	3,1	1,8
- Gainerako zerbitzuak	2,4	-4,3	4,0	2,8
Oinarrizko prezioei erantsitako balioa	2,3	-9,4	5,9	4,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	2,0	-11,9	6,1	3,3
BPG	2,2	-9,6	5,9	4,4
Pertsona okupatuak (lanaldi osoko lanpostu baliokideak)	1,5	-6,2	5,9	3,1
Lan-faktorearen ageriko produktibitatea	0,7	-3,6	0,1	1,2

(a) Aurrerapena.


(* Estimazioa.

Iturria: Eustat. 2023ko martxoa

Denbora-tarte luzeagoa aintzat hartuz gero, EAeko ekonomiaren produktibitate maila 2019koa baino baxuagoa zen oraindik ere 2022an, enplegua neurri handiagoan hazi zelako BPGa baino.


Aurrez aipatu dugun moduan, pandemiaren aurreko maila baino apur bat beherago kokatu zen BPGa 2022an EAEn (2019arekiko, -% 0,1). Enpleguak (lanaldi osoko lanpostu baliokideak), berriz, 2019an erregistratutako maila gaititu zuen (% 2,4 handiagoa).

EAEko ekonomiaren produktibitate maila 2019koa baino baxuagoa zen oraindik ere 2022an, enplegua neurri handiagoan hazi zelako BPGa baino

2.4. GRAFIKOA**AGERIKO PRODUKTIBITATEAREN* BILAKAERA EAE-N (2008. URTEA=100)**

* BPG (kateatutako bolumenaren indizea) / Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.

Iturria: LHK-k egina, Eustaten datuetan oinarrituta (Kontu Ekonomikoak, 2023ko martxoa).

2.5. GRAFIKOA**AGERIKO PRODUKTIBITATEAREN* HAZKUNDEEN BILAKAERA EAE-N (AURREKO URTEAREKIKO HAZKUNDEAK)**

* BPG (kateatutako bolumenaren indizea) / Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.

Iturria: LHK-k egina, Eustaten datuetan oinarrituta (Kontu Ekonomikoak, 2023ko martxoa).

2.5. TAULA

BARNE PRODUKTU GORDINAREN BILAKAERA (ERRENTA, EAE)

PREZIO KORRONTEAK (OINARRIA 2015). MILIOI EURO						
	BANAKETA EHUNEKOTAN			BANAKETA EHUNEKOTAN		
	2019	2020	2021 ^(a)	2019	2020	2021 ^(a)
Soldatapekoen ordainsaria (1)	37.434	35.749	37.011	47,06	49,77	47,45
Ustiapenaren soberakin gordina (2)=(3)+(4)	25.797	29.086	32.878	42,44	40,49	42,15
Ustiapenaren soberakin garbia (3)	25.797	21.474	24.973	32,43	29,90	32,02
Kapital finkoaren kontsumoa (4)	7.961	7.611	7.904	10,01	10,60	10,13
Ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak (5)	8.345	6.994	8.116	10,49	9,74	10,40
Merkatutako prezioen BPG (1)+(2)+(5)	79.537	71.829	78.004	100,00	100,00	100,00

(a): Aurrerapena.

Iturria: Eustat, 2023ko martxoa.

BPGa aztertzean errentaren banaketa aintzat hartzen badugu⁵, ikuspegi makroekonomikotik, 2021ean soldatapekoen ordainsariak EAEko BPGaren % 47,45 ordezkatu zuten, ustiapenaren soberakin gordinak % 42,15, eta ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak % 10,40.

Azpiko inflazioa: prezioen indize orokorraren aldakuntza, prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kontuan hartu gabe, horien prezioek gorabehera handiagoak izaten dituztelako.

Ziur aski, prezioen gorakada handia izan da berriz ere nabarmenena, 2022an zein aurreko ekitaldian.

2021eko martxotik aurrera, prezioak gora egiten hasi ziren. Hala, 2021eko abenduan, % 6,5ekoa zen estatuko KPIaren urte arteko hazkundea.

2.6. TAULA

KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA (KPI, 2022)

	EAE	ESTATUA
Indize orokorra (urteko batez bestekoa)*	8,0	8,4
Indize orokorra**	5,4	5,7
Azpikoa**	6,7	7,0

* 2022ko batez besteko balioaren aldakuntza-tasa, 2021eko batez besteko balioarekiko.

** Urte arteko aldakuntza-tasak, abendutik abendura.

Iturria: LHK-k egina, EINen datuetan oinarrituta.

⁵ Honekin lotuta, aipatu beharrekoa da EAEko BGParen banaketari dagozkion datuak (errenten aldetik) urtebeteko atzerapenarekin jartzen dituztela eskuragarri, kapitulu honetan emandako gainerako informazioarekin alderatuta.

2022an, EAEko KPlaren urte arteko hazkundera % 5,4koa izan zen abenduan, eta azpiko inflazioa % 6,7ra iritsi zen

Aipatu dugun moduan, 2022aren hasierarako, inflazioaren joera goranzkoa zen, eta Errusiak Ukraina inbaditu izanak lagundu egin zion hazkunde horri. Hala, urtearen amaierarako, inflazioaren urte arteko hazkundera % 5,7koa zen estatuan.

Hasieran, energiaren eta lehengaien prezioek egin zuten gora, eta gero ekonomia osora zabaldu ziren igoerak. Hala, 2022. urtearen amaieran, azpiko inflazioaren (kalkulatzeko orduan, prestatu gabeko elikagaien eta produktu energetikoen prezioen igoerak barne hartzen ez dituen) urte arteko hazkundera % 6,7koa zen EAEn, eta % 7koa estatuan.

Igoera horri aurre egiteko, interes-tasak igotzen hasi ziren banku zentralak, eta neurri horrek eragin negatiboa izan zuen ekonomiaren eta enpleguaren hazkunderan.

Etorkizunari begira, EAEko eta gure inguruko ekonomien hazkundera apala izango dela aurreikusten da, ziurgabetasunez betetako agertoki batean

Amaitzeko, aipatu beharrekoa da EAEko ekonomian hazkundera erregistratu arren, 2022aren amaieran oraindik ere ez zuela berreskuratu 2019ko jarduera maila. Hala, etorkizunari begira, EAEko eta gure inguruko ekonomien hazkundera apala izango dela aurreikusten da, ziurgabetasunez betetako agertoki batean, esaterako, arrazoi hauen ondorioz: egungo tentsio geopolitikoak, Ukrainako gerraren luzapena, eta inflazioari eusteko interes-tasen igoera.

ONDORIOAK

- 2020ko beherakadaren (-% 2,8) eta 2021eko gorakada handiaren (+% 6,3) ondoren, NDFren arabera, 2022an % 3,4 hazi zen munduko ekonomia.
- Estatuko KPIa % 5,5 hazi zen, baina, 2022aren amaieran, Espainiak ez zuen berreskuratu pandemia agertu aurreko jarduera maila.
- EAEko ekonomia % 4,4 hazi zen 2022an (lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta), eta enplegua % 3,1 hazi zen.
- EAEko BPGa pandemiaren aurrekoa (2019ko ekitaldia) baino -% 0,1 baxuagoa izan zen 2022an, eta enplegua (lanaldi osoko lanpostu baliokideak) % 2,4 handiagoa izan zen.
- Estatu mailan ikusi dugun moduan, barne-eskariak hazkunde globalari egindako ekarpen positiboa murriztu egin zen (ehuneko 2,7 puntu 2022an, eta 5,4 puntu 2021ean); aldiz, kanpo-sektoreak ehuneko 1,7 puntuko ekarpena egin zuen (2021ean, 0,5ekoa).
- Prezioen igoera handia izan zen 2022ko gertakaririk nabarmenena.
- 2022an, EAEko KPIaren urte arteko hazkundera % 5,4koa izan zen abenduan, eta azpiko inflazioa % 6,7ra iritsi zen.

3

**ENPLEGUA,
KONTRATAZIOA ETA
LANEKO
KOSTUAK**

3.1. SARRERA

Gure Erkidegoko lan-merkatuaren egoera aztertuko dugu III. kapitulan. Horretarako, estatistika eta erregistro administratibo nagusiak erabiliko ditugu.

Informazioa ikuspegi bikoitzetik eskaintzen da, laginaren ikuspegitik eta erregistroaren ikuspegitik. Izan ere, erabilitako iturriak osagarritzat hartzen ditugu, eta analisisia hobetzen laguntzen dute.

EAEko biztanleria aktiboa, okupatua eta langabetua aztertzeko, Eustatek argitaratzen duen Biztanleriaren Jardueraren Araberako inkesta (BJA) erabiliko dugu. Eta, estatuaren kasuan, Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI) eta honakoen inguruan argitaratutako datuak erabiliko ditugu: erregistratutako langabezia, jakinarazitako kontratazioa eta Gizarte Segurantzako afiliazioa.

Puntu honetara iritsita, aipatzekoa da lan hau egin dugun unean behin-behinekoa dela kapitulu honetan sartu dugun 2022ko BJAREN informazioa, 2023ko urtarrilaren 20an argitaratua.

Azkenik, alderaketa gehienak pandemia agertu aurreko urtearekin egingo ditugu, 2019arekin. Izan ere, 2022ko datuak zuzenean 2021eko datuekin alderatuz gero, ondorio okerrak atera genitzake, 2020an eta 2021ean beherakada handia izan zutelako jarduerak eta enpleguak, itxieren eta mugikortasun-mugen ondorioz.

3.2. LAN MERKATUA ETA ENPLEGUA EAE-N

3.2.1. BIZTANLERIA AKTIBOA

2022an urte arteko 6.700 pertsonako hazkundera izan zuen biztanleria aktiboak, baina oraindik ere 2019koa baino baxuagoa da datua

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) argitaratzen duen Biztanleriaren Jardueraren Araberako inkestaren (BJA) arabera, 2022an 6.000 pertsonako hazkundera izan zuen 15 urtetik gorako biztanleriak, aurreko urtearekin alderatuta. Biztanleria aktiboak 6.700 pertsonako hazkundera izan zuen (+% 0,6) eta biztanleria ez-aktiboa 700 pertsona murriztu zen (-% 0,1).

Dena den, 2022ko maila 2019koarekin alderatzen badugu, pandemiaren aurretik baino maila baxuagoan dago oraindik ere biztanleria aktiboa (4.500 pertsona gutxiago; -% 0,4). Biztanleria ez-aktiboa, berriz, aipatutako ekitaldian baino 16.000 pertsona handiagoa da (+% 2).

Biztanleria aktiboa: Hamasei urte edo gehiago izanik, ondasunak edo zerbitzuak ekoizten dituzten (pertsona okupatuak) edo horretarako prest dauden eta ordaindutako enpleguaren bila ari diren pertsonak (pertsona langabetuak) osatzen dute biztanleria aktiboa.

Iturria: Eustat.

Biztanleria ez-aktiboa: Honako egoeretako batean dagoen biztanleria:

- Pentsioa jasotzen.
- Irakaskuntza motaren bat jasotzen.
- Etxeko lanak egiten edo partekatzen.
- Oinarrizko jardueretarako laguntza beharrean (euren burua garbitu, jantzi, mugitu...).
- Boluntariora sozialeko zereginak egiten.
- Beste biztanle ez-aktibo batzuk (eskolatu gabeko adingabeak, oposizioak, errentadunak, etab.).

Iturria: Eustat.

Sexuaren arabera, aurreko urtearekin alderatuta, biztanleria aktiboa antzeko hazi zen gizonen eta emakumeen kasuan (+% 0,6 eta +% 0,7, hurrenez hurren). Baina 2022. urtea 2019arekin alderatzen badugu, gizonen kasuan beherakada handiagoa erregistratu zen (-% 0,7koa; eta, emakumeen kasuan, -% 0,1ekoa).

Biztanleria ez-aktiboari dagokionez, 2019arekin alderatuta, hazkunde handiagoa izan zuen gizonezko ez-aktiboek kopuruak (+% 2,5), emakumezko ez-aktiboek (+% 1,7) baino.

Adin taldearen arabera, 2019arekin alderatuta, biztanleria aktiboa 8.900 pertsona hazi zen gazteen artean, eta 35.900 adinekoen artean; 25 eta 44 urtekoen artean, berriz, 49.300 pertsona murriztu zen.

3.1. TAULA**16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA AKTIBOAREN ETA EZ-AKTIBOAREN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA. 2019-2022**

		BALIO ABSOLUTUA (MILAKA)			ALDAKUNTZA-TASAK	
		2019	2021	2022**	22/21	22/19
≥ 16 urteko biztanleria		1.855,2	1.860,7	1.866,7	0,3	0,6
Sexuaren arabera	Gizonak	891,1	893,2	895,6	0,3	0,5
	Emakumeak	964,1	967,5	971,1	0,4	0,7
Adinaren arabera	16-24 urte	173,9	184,0	185,6	0,9	6,7
	25-44 urte	538,4	504,1	493,4	-2,1	-8,4
	45 eta gehiago	1.143,0	1.172,5	1.187,7	1,3	3,9
Biztanleria ez-aktiboa		800,2	816,9	816,2	-0,1	2,0
Sexuaren arabera	Gizonak	340,8	349,9	349,2	-0,2	2,5
	Emakumeak	459,3	466,9	467,0	0,0	1,7
Adinaren arabera	16-24 urte	125,1	128,3	128,0	-0,2	2,3
	25-44 urte	52,3	61,0	56,6	-7,2	8,2
	45 eta gehiago	622,8	627,6	631,7	0,7	1,4
Biztanleria aktiboa		1.055,0	1.043,8	1.050,5	0,6	-0,4
Sexuaren arabera	Gizonak	550,2	543,2	546,4	0,6	-0,7
	Emakumeak	504,8	500,6	504,1	0,7	-0,1
Adinaren arabera	16-24 urte	48,8	55,8	57,7	3,4	18,2
	25-44 urte	486,1	443,2	436,8	-1,4	-10,1
	45 eta gehiago	520,1	544,9	556,0	2,0	6,9

* 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat)

Jarduera-tasa bi hamarreko igo zen 2022an aurreko ekitaldiarekin alderatuta, baina 2019koa baino baxuagoa izaten jarraitu zuen

Jarduera-tasa: 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren artean aktiboak diren biztanleen proportzioa. Iturria: Eustat.

Jarduera-tasa bi hamarreko igo zen 2022an (% 56,3) aurreko ekitaldiarekin alderatuta, baina 2019koa baino baxuagoa izaten jarraitu zuen (% 56,9). Sexuaren arabera, gizonen eta emakumeen arteko aldea apur bat murriztu zen 2022an hiru urte lehenago zegoen aldearekin konparatuta.

Adin taldearen arabera, 2019arekiko, jarduera-tasa hazi egin zen 44 urtetik gorako pertsonen eta gazteenen artean. 25 eta 44 urte arteko pertsonen artean bakarrik egin zuen behera.

Estatu mailan, 2022an igo egin zen jarduera-tasa (% 58,7), eta 2021ean (% 58,5) eta 2019an (% 58,6) baino erregistro apur bat hobeak lortu ziren.

3.2. TAULA

JARDUERA TASAREN BILAKAERA SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA, EAE-N ETA ESTATUAN. 2019-2022

	EAE*			ESTATUA		
	2019	2021	2022**	2019	2021	2022
Jarduera-tasa	56,9	56,1	56,3	58,6	58,5	58,7
Sexuaren arabera						
Gizonak	61,7	60,8	61,0	64,3	63,6	63,7
Emakumeak	52,4	51,7	51,9	53,3	53,7	53,8
Adinaren arabera						
16-24 urte	28,1	30,3	31,1	36,9	35,3	36,6
25-44 urte	90,3	87,9	88,5	88,1	88,1	88,1
45 eta gehiago	45,5	46,5	46,8	46,2	47,4	48,0

Jarduera-tasa: Biztanleria aktiboa/16 urteko eta gehiagoko biztanleria.

* 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat). BAI (EIN).

3.2.2. BIZTANLERIA OKUPATUA

2022an 22.100 pertsonatan hazi zen biztanleria okupatua aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta pandemiaren aurreko maila gainditu zuen


BJAren arabera, 2022an 961.700 pertsonak osatzen zuten biztanleria okupatua, hau da, aurreko ekitaldian baino % 2,4 gehiagok eta 2019an baino % 1,1 gehiagok.

Honekin lotuta, kontuan izan behar da biztanleria okupatuaren barnean sartzen direla enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteen eraginpeko pertsonak; izan ere, estatistika-helburuetarako, biztanle okupatutzat hartzen dira.

Biztanleria okupatua: Ordaindutako enplegua duten edo jarduera independenteren bat egiten duten pertsonak, eta, lanik egin ez arren, haien enpleguarekin lotura formala mantentzen dutenak. Nolabaiteko ordainsaria jasotzen bada edo 3 hilabete baino gutxiagoko epean lanera itzultzea aurreikusten bada, lotura formala dagoela esan daiteke.
Iturria: Eustat.

3.1. GRAFIKOA

BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA EAE-N* (MILAKA PERTSONA). 2008-2022



* 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat)

Gizon zein emakume okupatuak 2019ko maila gainditu zuten 2022an

3.3. TAULA

BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA EAE-N*, SEXUAREN, ADINAREN ETA EGOERA PROFESIONALAREN ARABERA. 2019-2022

		BALIO ABSOLUTUA (MILAKA)			ALDAKUNTZA-TASA	
		2019	2021	2022**	22/21	22/19
Biztanleria okupatua		951,2	939,6	961,7	2,4	1,1
Sexuaren arabera	Gizonak	500,3	490,2	502,9	2,6	0,5
	Emakumeak	450,8	449,4	458,8	2,1	1,8
Sexuaren arabera	16-24 urte	38,6	43,6	46,3	6,2	19,9
	25-44 urte	435,3	392,2	399,6	1,9	-8,2
	45 eta gehiago	477,3	503,7	515,8	2,4	8,1
Egoera profesionalaren arabera	Soldatapeko pertsonak	769,3	769,4	788,7	2,5	2,5
	Soldatapekoak ez diren pertsonak	181,9	170,2	173	1,6	-4,9

* 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

Sexuaren arabera, biztanleria okupatuaren urte arteko hazkundera, 2022an, handiagoa izan zen gizonen artean emakumeen artean baino (+% 2,6 eta +% 2,1, hurrenez hurren). 2019arekin alderatuta, berriz, hazkundera handiagoa izan zen emakumeen kasuan (+% 1,8; eta, gizonen kasuan, +% 0,5). Nolanahi ere, bi sexuek 2019ko maila gainditu zutela nabarmendu behar da.

3.4. TAULA

SOLDATAPEKO BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA EAE-N*, KONTRATU MOTAREN ARABERA. 2019-2022

	SOLDATAPEKO PERTSONA OKUPATUAK (MILAKA)			ALDAKUNTZA-TASA	
	2019	2021	2022**	22/21	22/19
GUZTIRA	769,3	769,4	788,7	2,5	2,5
Kontratu mugagabea	523,0	537,9	576,7	7,2	10,3
Aldi baterako kontratua	236,9	224,2	204,1	-9,0	-13,8
Kontraturik gabe eta beste batzuk	9,4	7,4	8,0	8,1	-14,9

* 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

45 urteko eta gehiagoko pertsonen taldea izan zen termino absolutuetan gehien hazi zena (38.500 pertsona okupatu gehiago), 2022 eta 2019 alderatuz gero. 16 eta 24 urte arteko pertsona okupatuaren kopurua ere hazi egin zen (7.700 gehiago). Aitzitik, behera egin zuen 25 eta 44 urte artekoen kopurua (35.700 pertsona okupatu gutxiago).

Puntu honetara iritsita, aipatzekoa da lanean dagoen biztanleriaren zahartze progresiboak erronka handiak ekarriko dizkiola gizarte osoari. Aurreikuspenen arabera, etorkizunean, lan-merkatua uzten dutenen kopurua handiagoa izango da lan-merkatua sartzen direnena baino. Aldi berean, biztanleria ez-aktiboaren pisu erlatiboa hazi egingo da EAEn eta estatu osoan.

2022an 19.300 pertsonako urte arteko hazkundera izan zuen soldatapeko langile kopuruak, eta pandemiaren aurreko maila gainditu zuen. Aldi berean, soldatapekoak ez diren langileen kopurua 2019an baino % 4,9 baxuagoa da oraindik.

Egoera profesionalaren arabera azterketak erakusten duenez, 2022an % 2,5 hazi zen soldatapeko langileen kopurua, 2019arekin alderatuta. Hala, 788.700 soldatapeko langile zeuden. Soldatapekoak ez diren langileen kopurua (173.000), berriz, % 4,9 murriztu zen.

3.5. TAULA

SOLDATAPEKO BIZTANLERIA OKUPATUAREN BILAKAERA EAE-N*, KONTRATU MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 2019-2022

SEXUA	KONTRATU MOTA	2019		2021		2022**	
		MILAKA	%	MILAKA	%	MILAKA	%
Gizonak	GUZTIRA	388,3	100,0	381,8	100,0	394,2	100,0
	Mugagabea	275,1	70,8	280,4	73,4	303,7	77,0
	Aldi baterakoa	110,6	28,5	99,8	26,1	88,2	22,4
	Kontraturik gabe eta beste batzuk	2,7	0,7	1,6	0,4	2,3	0,6
Emakumeak	GUZTIRA	381,0	100,0	387,6	100,0	394,6	100,0
	Mugagabea	247,9	65,1	257,5	66,4	273,0	69,2
	Aldi baterakoa	126,3	33,1	124,3	32,1	115,9	29,4
	Kontraturik gabe eta beste batzuk	6,7	1,8	5,8	1,5	5,7	1,4

* 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).


2022an % 25,9koa izan zen behin-behinekotasun tasa, 2019an erregistratutakoa (% 30,8) baino ia bost puntu baxuagoa

Kontratu mugagabea zuten soldatapeko langileen kopurua % 7,2 hazi zen 2022an, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta % 10,3 hazi zen, 2019arekin alderatuta. Hala, behin-behinekotasun tasa % 25,9ra jaitsi zen 2022an: 2021ean erregistratutako tasa baino ehuneko 3,2 puntu baxuagoa, eta 2019koa baino ehuneko 4,9 puntu baxuagoa.

2022an modu orokortuan jaitsi zen behin-behinekotasun tasa, bi sexuen kasuan, bai 2021arekiko, bai 2019arekiko.

3.2. GRAFIKOA

EAE-KO SOLDATAPEKO BIZTANLERIA OKUPATUAREN KONTRATU MOTAREN ARABERAKO BANAKETA PORTZENTUALAREN BILAKAERA*. 2009-2022



* 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

Enplegu-tasari dagokionez, 2022an jarraipena izan zuen 2015ean hasitako goranzko ibilbideak (2020an eten zen joera hori, puntualki, Covidaren ondorioz), eta % 51,5era iritsi zen; hala, pandemiaren aurreko erregistroa baino ehuneko bi hamarren handiagoa izan zen.

Estatuan, urte arteko 1,2 puntuko hazkundera izan zuen enplegu-tasak, eta % 51,1era iritsi zen.

Enplegu-tasa: Pertsona okupatuaren proportzioa 16 urte (beteta) eta gehiagoko biztanleria osoaren artean. Iturria: Eustat.

3.6. TAULA

ENPLEGU TASAREN BILAKAERA EAE-N* ETA ESTATUAN. 2019-2022

	2019	2021	2022
EAE	51,3	50,5	51,5**
Estatua	50,4	49,9	51,1

Enplegu-tasa: Biztanleria okupatua/16 urteko eta gehiagoko biztanleria.

* 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat) eta BAI (EIN).


2022an berriz ere igo zen enplegu-tasa, eta % 51,5ean kokatu zen, 2019ko erregistroa baino bi hamarren gorago

EAEko enplegu-tasa (% 51,5) ehuneko lau hamarren handiagoa izan zen estatukoa baino (% 51,1). Dena den, adierazi beharrekoa da azken urteetan asko murriztu dela bi tasa horien arteko aldea (0,6 puntu 2021ean eta 0,9 2019an).

EAEko gizonen enplegu-tasa emakumeena baino dezente handiagoa da oraindik ere (% 56,2 eta % 47,2, hurrenez hurren). Hala ere, 2019arekin alderatuta, hiru hamarren murriztu da bien arteko aldea.

3.3. GRAFIKOA

ENPLEGU TASAREN BILAKAERA EAE-N*, SEXUAREN ARABERA (%). 2008-2022



* 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

3.2.3. BIZTANLERIA LANGABETUA

2022an % 14,8 murriztu zen biztanleria langabetua, aurreko urtearekin alderatuta. Hala, 2019an baino 15.000 pertsona baxuagoa izan zen bolumena (-% 14,5).

Honako epigrafe hau garatu aurretik, gogoratu beharrekoa da ABEEE baten eraginpeko pertsonak ez direla langabetuak, enpresarekiko lotura mantentzen dutelako; hortaz, biztanleria okupatuaren barruan sailkatzen dira.

Pandemiaren unerik okerrenak pasatuta, 2022an asko murriztu zen langabezia, murrizketak desagertu eta jarduera berreskuratu heinean. Hala, BJAREN arabera, 2022an % 14,8 egin zuen behera langabetuen kopuruak aurreko urtearekin alderatuta, eta 88.800 pertsonatara iritsi zen.

2022an % 8,5era jaitsi zen langabezia-tasa, eta pandemiaren aurreko mailaren azpitik kokatu zen, ehuneko puntu batetik gorako aldearekin

Langabezia-egoeran zeuden pertsonen kopurua jaitsi egin zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta, bai gizonen kasuan (-% 18,1), bai emakumeen kasuan (-% 11,5). Bi kasuetan, pandemiaren aurreko mailatik behera kokatu ziren 2022an.

Adin tartearen arabera, 2022an urte arteko jaitsiera izan zuen langabeziak modu orokortuan, adin tarte guztietan. Dena den, 2019arekin alderatuta, adingabe langabetuen kopurua +% 10,8 hazi zen.

3.7. TAULA

BIZTANLERIA LANGABETUA EAE-N

	BALIO ABSOLUTUA (MILAKA)*			ALDAKUNTZA-TASA	
	2019	2021	2022**	22/21	22/19
Biztanleria langabetua	103,8	104,2	88,8	-14,8	-14,5
Sexuaren arabera					
Gizonak	49,9	53,1	43,5	-18,1	-12,8
Emakumeak	53,9	51,2	45,3	-11,5	-16,0
Adinaren arabera					
16-24 urte	10,2	12,1	11,3	-6,6	10,8
25-44 urte	50,8	50,9	37,2	-26,9	-26,8
45 eta gehiago	42,8	41,2	40,3	-2,2	-5,8

* 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.


Iturria: BJA (Eustat).

Generoaren araberako aldea murriztu egin zen 2022an, baina emakumeen langabezia-tasak altuagoa izaten jarraitu zuen gizonen langabezia-tasak baino: % 9 eta % 8

2022an % 8,5ekoa izan zen langabezia-tasa, 2021ean baino ehuneko 1,5 puntu baxuagoa (% 10) eta 2019koa baino ehuneko 1,3 puntu baxuagoa (% 9,8). 2009. urteaz geroztik izandako langabezia-tasarik baxuena da.

3.4. GRAFIKOA

GIZONEN, EMAKUMEEN ETA GAZTEEN LANGABEZIA EAE-N*. URTEKO BATEZ BESTEKOA (MILAKA PERTSONA)



* 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.


** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

Generoaren araberako aldea murriztu egin zen 2019arekiko, baina 2022an emakumeen langabezia-tasak handiagoa izaten jarraitu zuen gizonen langabezia-tasak baino: % 9 eta % 8, hurrenez hurren. Dena den, gizonen zein emakumeen kasuan, 2022ko langabezia-tasa baxuagoa izan zen 2019koa baino.

3.5. GRAFIKOA

LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ARABERA* (%).



* 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

Langabezia-tasa murriztu egin zen adin tarte guztietan, eta 2019ko mailatik behera kokatu zen horietan guztietan

Aurreko ekitaldian bezala, 2022an adingabeek zuten langabezia-tasarik altuena (% 19,7). Hurrengoak, distantzia dezentera, 25 eta 44 urte arteko pertsonak izan ziren (% 8,5) eta, azenak, adin handienekoak (% 7,2).

Adin talde guztien kasuan, pandemiaren aurreko mailatik behera kokatu zen langabezia-tasa 2022an.

Estatuari dagokionez, langabezia tasa % 12,9koa izan zen, EAEn erregistratutakoa baino ehuneko 4,4 puntu altuagoa, eta bereziki deigarria da gazteen arteko aldea: % 19,7ko langabezia-tasa EAEn, eta % 29,8koa estatuan.

3.8. TAULA LANGABEZIA TASA EAE-N* ETA ESTATUAN


	EAE			ESTATUA		
	2019	2021	2022**	2019	2021	2022
Urteko batez bestekoa	9,8	10,0	8,5	14,1	14,8	12,9
Sexuaren arabera						
Gizonak	9,1	9,8	8,0	12,5	13,1	11,3
Emakumeak	10,7	10,2	9,0	16,0	16,7	14,8
Adinaren arabera						
16-24 urte	20,9	21,8	19,7	32,5	34,8	29,8
25-44 urte	10,5	11,5	8,5	13,4	14,5	12,3
45 eta gehiago	8,2	7,6	7,2	12,1	12,3	11,1

* 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat). BAI (EIN).

3.6. GRAFIKOA LANGABEZIA TASA EAE-N* (%)



* 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

Langabezia-tasa hobetu egin zen hiru lurraldeetan, bai aurreko ekitaldiarekiko, bai 2019arekiko, gizonen zein emakumeen kasuan. Arabako gizonetzkoak izan ziren salbuespen bakarra, urte arteko aldakuntzari dagokionez.

3.9. TAULA. LANGABEZIA TASA EAE-N*, LURRALDE HISTORIKOAREN ETA SEXUAREN ARABERA

	2019			2021			2022**		
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
EAE	9,8	9,1	10,7	10,0	9,8	10,2	8,5	8,0	9,0
Araba	10,8	10,0	11,7	10,5	9,0	12,2	9,2	9,2	9,2
Bizkaia	11,1	10,2	12,1	11,1	11,4	10,9	9,2	8,5	10,0
Gipuzkoa	7,4	6,9	7,9	7,9	7,6	8,2	6,9	6,6	7,3

* 2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.

** Behin-behineko datuak.

Iturria: BJA (Eustat).

Erregistratutako langabeziari dagokionez, 2022an Lanbideko bulegoetan langabetu gisa erregistratutako pertsonen batez besteko bolumena 113.273 pertsonakoa izan zen; urte arteko % 7,8ko beherakada erakusten du horrek. 2019an baino 2.184 langabetu gutxiago erregistratu zituzten Lanbideko bulegoetan 2022an.


Erregistratutako langabezia: Hilaren azken egunean alta egoeran dauden lan-eskari guztiak, SEPEk erregistratutakoak, Erregistratutako Langabezia neurtzeko irizpide estatistikoak ezartzen dituen 1985eko martxoaren 11ko Ministro Aginduak (1985eko martxoaren 14ko BOE) deskribatzen dituen lan-egoerei dagozkienak kanpoan utzita.

Enplegu-bulegoetan erregistratutako langabeziaren urteko batez bestekoa eta BJAk jasotzen duena ezberdinak dira, metodologia ezberdina erabiltzen dutelako eta iturrien maiztasuna ez delako berdina. Ondorioz, erregistratutako langabeziaren urteko batez bestekoak eta BJAREN lau hiruhilekoen batez bestekoak balio ezberdinak dituzte.

3.10. TAULA ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA EAE-N

	2018	2019	2020	2021	2022
Urteko batez bestekoa	123.517	115.457	135.219	122.812	113.273
Urteko batez besteko datuaren urte arteko aldakuntza-tasa	-7,4	-6,5	+17,1	-9,2	-7,8

Iturria: SEPE, eta geuk egindakoa.

3.7. GRAFIKOA**ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA EAE-N. HILEKO BILAKAERA**

Iturria: SEPE.

2022ko abenduaren amaieran 110.798 pertsona zeuden erregistratuta Lanbiden langabezia-egoeran, (Erregistratutako Langabezia), 2019ko hilabete berean baino % 2,9 gutxiago.

Dena den, lan-eskatzailen, okupatuen edo langabezia-egoeran zeudenen kopurua (278.339 pertsona) % 2,7 hazi zen 2022aren amaieran, 2019ko abenduarekiko (270.999 pertsona). Talde hau askoz ere handiagoa da erregistratutako langabeziaren estatistikak kontuan hartzen dituen pertsonen taldea baino, eta barne hartzen ditu enplegu-eskatzaille okupatuak, prestasun mugatua dutenak eta 1985eko martxoaren 11ko Ministro Aginduak (1985eko martxoaren 14ko BOE) haren erregistratutako langabeziaren estatistikan txertatzen ez dituen beste kolektibo batzuk, hala nola ikasleak edota dirulaguntza jasotzen duten nekazaritzako aldi baterako langileak.

3.3. JAKINARAZITAKO LANEKO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA (EAE)

3.3.1. BILAKAERA OROKORRA ETA ERROTAZIOA

Lan-merkatuaren dinamismoaren eta sortzen den enpleguaren ezaugarrien inguruko informazioa ematen digute SEPEri jakinarazitako sinatutako kontratuen kopuruari eta ezaugarriari buruzko datuek.

Atal honetan, jakinarazitako kontratazioaren bilakaera aztertuko dugu, hau da, urtean zehar sinatutako kontratu finkoen edo aldi baterako kontratuen kopurua aztertuko dugu. Ondoren, 3.4 puntuan, Gizarte Segurantzako afiliazioak 2022ko abenduan zuen egoera aztertuko dugu.

Gizarte Segurantzako afiliatuen kopurua handitzen laguntzen du laneko kontratu berriak sinatzeak. Dena den, kontratazioa handitzeak ez du beti afiliazioaren hazkundera eragiten. Izan ere, afiliatuen kopurua murriztu egin daiteke lana galtzen duten pertsonak, jubilatzen direnak edo hiltzen direnak areagotzen badira.

2022an indarrean sartu zen lan-erreformarako, enplegu-egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presazko neurriari buruzko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua. Haren bidez, arau berriak ezarri zituzten aldi baterako kontrataziorako, eta mugatu egin zuten. Ondorioz, 2022an zehar nabarmen murriztu zen aldi baterako kontratazioa, eta asko hazi zen kontratu finkoen kopurua, batez ere, aldizkako kontratu finkoena.

Abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua 2022an indarrean sartu izanaren ondorioz, nabarmen murriztu zen aldi baterako kontratazioa, eta asko hazi zen kontratu finkoen kopurua, batez ere, aldizkako kontratu finkoena

2022an zehar 815.719 kontratu sinatu zituzten EAEn. Horietatik % 24,5 (199.995) mugagabeak izan ziren eta, gainerako % 75,5ak (615.724), aldi baterakoak.

3.11. TAULA

EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUAK, KONTRATU MOTAREN ARABERA

	2019	2021	2022	BANAKETA 2022 (%)	ALDAKUNTZA-TASA	
					22/21	22/19
GUZTIRA	1.008.175	861.726	815.719	100,0	-5,3	-19,1
Mugagabeak	83.931	80.545	199.995	24,5	148,3	138,3
Aldi baterakoak	924.244	781.181	615.724	75,5	-21,2	-33,4

Iturria: SEPE.

2022aren aurreko urteetan, EAEn sinatzen ziren kontratuen % 90 aldi baterakoak ziren (2019an, % 91,7); 2022an, berriz, % 75,5era jaitsi zen ehuneko hori. Bestalde, 2019. urtean sinatutako kontratu guztien artetik, % 8,3 ziren mugagabeak; 2022an, guztizkoaren % 24,5 izan ziren mota horretakoak.

3.12. TAULA

EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATU KOPURUA, KONTRATU MOTAREN ARABERA

	2019	2021	2022	ALDAKUNTZA-TASA 22/19
Mugagabeak	83.931	80.545	199.995	138,3
Aldizko finkoak	4.333	4.620	36.748	748,1
Gainerako mugagabeak	79.598	75.925	163.247	105,1
Aldi baterakoak	924.244	781.181	615.724	-33,4
Praktikak eta formakuntzakoak	7.704	7.473	7.102	-7,8
Gainerako aldi baterakoak	916.540	773.708	608.622	-33,6
GUZTIRA	1.008.175	861.726	815.719	-19,1

Iturria: SEPE.

2019arekin alderatuta, sinatutako kontratu mugagabeen kopurua % 138,3 hazi zen, aldi baterako kontratuen kopurua % 33,4 murriztu zen, eta aldizkako finkoen kopurua % 748,1 hazi zen

2019arekin alderatuta, sinatutako kontratu mugagabeen kopurua % 138,3 hazi zen, eta aldi baterako kontratuen kopurua % 33,4 murriztu zen. Dena den, hazkunderik handiena aldizkako kontratu finkoen kopuruak izan zuen: % 748,1 areagotu ziren, 2019arekiko. Urte hartan mota horretako 4.333 kontratu sinatu zituzten, eta, 2022an, 36.748.

Sexuaren arabera, 2019ko aldi berarekin alderatuta, jakinarazitako kontratazioak proportzio berean egin zuen behera gizonen zein emakumeen kasuan (-% 19,1). Aldizkako kontratu finkoen kasuan, aldea handiagoa da (% 975,3ko hazkundera gizonen kasuan, eta % 582,9koa emakumeen kasuan).

3.13. TAULA**EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATU KOPURUA, KONTRATU MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA**

	2019	2021	2022	ALDAKUNTZA-TASA 22/19
Mugagabeak gizonak	43.483	40.991	102.698	136,2
Aldizkako finkoak	1.824	2.048	19.613	975,3
Gainerako mugagabeak	41.659	38.943	83.085	99,4
Aldi baterakoak	458.549	396.805	303.696	-33,8
Praktikak eta formakuntzakoak	4.804	4.690	4.546	-5,4
Gainerako aldi baterakoak	453.745	392.115	299.150	-34,1
GUZTIRA	502.032	437.796	406.394	-19,1
Mugagabeak emakumeak	40.448	39.554	97.297	140,5
Aldizkako finkoak	2.509	2.572	17.135	582,9
Gainerako mugagabeak	37.939	36.982	80.162	111,3
Aldi baterakoak	465.695	384.376	312.028	-33,0
Praktikak eta formakuntzakoak	2.900	2.783	2.556	-11,9
Gainerako aldi baterakoak	462.795	381.593	309.472	-33,1
GUZTIRA	506.143	423.930	409.325	-19,1
GUZTIRA	1.008.175	861.726	815.719	-19,1

Iturria: SEPE.

Aldi baterako kontratuak haien iraupenaren arabera aztertuz gero, ikus dezakegu iraupen laburrekoak (7 egun edo gutxiago) eta zehaztu gabeko iraupena zutenak izan zirela gehienak: 2022an formalizatutako kontratuen % 60,6.

3.14. TAULA**EAE-N JAKINARAZITAKO ALDI BATERAKO KONTRATUEN BILAKAERA, KONTRATUAREN IRAUPENAREN ARABERA. 2019-2022**


	7 EGUN EDO GUTXIAGO	8 EGUN ETA 1 HILABETE ARTEAN	1 ETA 3 HILABETE ARTEAN	3 ETA 6 HILABETE ARTEAN	6 HILABETE ETA 1 URTE ARTEAN	1 URTE BAINO GEHIAGO	ZEHAZTU GABE	GUZTIRA
2019	348.213	117.662	79.166	60.708	24.127	3.362	291.006	924.244
2022	233.704	113.461	69.129	42.810	13.184	4.147	139.289	615.724
Banaketa 2019	37,7%	12,7%	8,6%	6,6%	2,6%	0,4%	31,5%	100,0%
Banaketa 2022	38,0%	18,4%	11,2%	7,0%	2,1%	0,7%	22,6%	100,0%

Iturria: SEPE.

Pertsona eta urte bakoitzeko sinatutako kontratu kopurua 2,59ra jaitsi zen 2022an; 2019an pertsona bakoitzeko 3,11 kontratukoa zen kopurua

Errotazio-indizea: kontratu kopuruaren eta kontratatutako pertsona kopuruaren arteko zatidura.

3.8. GRAFIKOA ERROTazioAREN BILAKAERA EAEN



Iturria: SEPEren Informazioa Aztertze Sistema. 2023ko urtarrilean eguneratutako datuak.

Sinatutako kontratu mugagabeen areagotzearen eta aldi baterako kontratazioaren jaitsieraren ondorioz, asko jaitsi da errotazioa (pertsonek eta urte bakoitzeko sinatutako kontratuen kopurua). 2019an 3,11 kontratu erregistratu ziren pertsona bakoitzeko eta, 2022an, 2,59ra jaitsi zen kopurua.

3.15. TAULA JAKINARAZITAKO KONTRATUAK ETA KONTRATATUKO PERTSONAK EAE-N, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2022

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Jakinarazitako kontratuak (1)	163.572	401.684	250.463	815.719
Kontrataturako pertsonak (2)	63.474	152.407	99.470	315.351
Errotazioa (1)/(2)	2,58	2,64	2,52	2,59

Iturria: SEPEren Informazioa Aztertze Sistema. 2023ko urtarrilean eguneratutako datuak.

Dena den, sinatutako kontratu mugagabeen kopurua handitzeak eta aldi baterako kontratazioa murrizteak lan-merkatuan izan duen eragina hobeto ulertzeko, Gizarte Segurantzako afiliazioaren bilakaera aztertu behar da, kontratu motaren arabera. Horixe egingo dugu 3.4 puntuan.

3.4. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

2022ko abenduan, Gizarte Segurantzara afiliatutako pertsona kopuruak (hileko batez bestekoa) zifra errekorra lortu zuen: 994.077 pertsona. Erregimen Orokorreko afiliazioak izandako igoera handiaren ondorioa izan zen

2022ko abenduan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua (hileko batez bestekoa) milioi bat pertsona baino apur bat baxuagoa izan zen (994.077 pertsona), azken urteetako zifrarik altuena.

3.9. GRAFIKOA

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO PERTSONA KOPURUA EAE-N (HILABETE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKOA). 2008-2022



Iturria: Gizarte Segurantza.

2019arekin alderatuta, Erregimen Orokorrean afiliatutako pertsonen kopurua hazi egin zen. Gainerako erregimenetan, berriz, behera egin zuen afiliazioak

Erregimen Orokorrean afiliatutako pertsonen kopurua asko hazi zen: 2019ko abenduan baino 16.423 pertsona gehiago (+% 2,1). Horrek eragin zuen Gizarte Segurantzako afiliazioaren hazkundea, gainerako erregimenetan gutxitu egin baitziren afiliatuak.

3.16. TAULA**LANEKO ALTA EGOERAN DAUDEN AFILIATUAK EAE-N, ERREGIMENAREN ARABERA
(HILABETE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKOAK)**

Erregimena	Sexua	2019ko abe.	2021ko abe.	2022ko abe.	ALDAKUNTZA 2022/2019
AUTONOMOEN ERREGIMEN BEREZIA	Gizonak	103.952	102.615	101.610	-2,3
	Emakumeak	62.840	63.167	63.617	1,2
	Guztira	166.792	165.781	165.228	-0,9
ITSASOKO LANGILEEN ERREGIMEN BEREZIA (Besteren kontura)	Gizonak	2.942	2.797	2.724	-7,4
	Emakumeak	262	270	284	8,4
	Guztira	3.203	3.067	3.008	-6,1
ITSASOKO LANGILEEN ERREGIMEN BEREZIA (Norbere kontura)	Gizonak	240	216	203	-15,4
	Emakumeak	97	89	85	-12,4
	Guztira	337	304	288	-14,5
NEKAZARITZAKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA	Gizonak	2.543	2.413	2.331	-8,3
	Emakumeak	1.633	1.485	1.436	-12,1
	Guztira	4.175	3.898	3.768	-9,7
ERREGIMEN OROKORRA (ETXEKO LANGILEENTZAKO ERREGIMEN BEREZIA)	Gizonak	1.114	1.118	1.107	-0,6
	Emakumeak	27.525	26.891	26.973	-2,0
	Guztira	28.640	28.008	28.081	-2,0
ERREGIMEN OROKORRA (NEKAZARITZAKO LANGILEEN SISTEMA BEREZIA)	Gizonak	1.923	1.847	1.700	-11,6
	Emakumeak	226	262	285	26,1
	Guztira	2.149	2.109	1.985	-7,6
ERREGIMEN OROKORRA	Gizonak	399.063	397.316	405.602	1,6
	Emakumeak	376.233	379.537	386.117	2,6
	Guztira	775.296	776.853	791.719	2,1
SISTEMA, GUZTIRA		980.592	980.022	994.077	1,4

Iturria: Gizarte Segurantzza.

Gizarte Segurantzak argitaratutako datuen arabera, 2019 eta 2022 artean hazi egin zen enplegu publikoa, eta horri dagokio afiliazioaren hazkundearen zatirik handiena. 2019an 142.390 langile publiko zeuden eta, 2022ko abenduan, 153.295. Aldi horretan Erregimen Orokorrean sortutako enplegu guztiaren % 66,4 dagokio hazkunde horri (16.423 pertsona).

3.17. TAULA**EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO PERTSONAK, SEKTORE PUBLIKOKOAK EDO PRIBATUKOAK DIREN KONTUAN HARTUTA
(HILABETE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKOAK)**

	2019ko abe.	2021eko abe.	2022ko abe.	Aldea 2022/2019	Aldakuntza 2022/2019
Estatukoa	7.404	7.286	7.541	137	1,9
Erkidegokoa	96.260	103.173	106.313	10.053	10,4
Tokikoa	38.726	38.558	39.442	716	1,8
Sektore publikoa, guztira	142.390	149.017	153.295	10.905	7,7
Sektore pribatua, guztira	632.906	627.836	638.424	5.518	0,9
Orokorra, guztira	775.296	776.853	791.719	16.423	2,1

Iturria: Gizarte Segurantzza.

Halaber, atzerriko pertsonak, gizon zein emakumeek, afiliazioari egindako ekarpen garrantzitsua nabarmendu behar da. 2019ko abenduaren eta 2022ko abenduaren artean 13.853 pertsona (+% 20) hazi zen Gizarte Segurantzaren afiliatutako atzerriko pertsonen kopurua.

3.18. TAULA

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO ATZERRIKO BIZTANLEAK (HILABETEKO BATEZ BESTEKOA)

	Hileko batez besteko afiliazioa, urte bakoitzeko abenduaren 31n			ALDAKUNTZA-TASA	
	2019	2021	2022	22/21	22/19
Gizonak	38.110	40.862	45.480	11,3	19,3
Emakumeak	31.260	33.829	37.742	11,6	20,7
Guztira	69.369	74.691	83.222	11,4	20,0

Iturria: Gizarte Segurantza.

Lanaldi osoko kontratu mugagabe batekin Gizarte Segurantzaren afiliatutakoen kopurua 51.123 pertsona hazi zen, eta aldizkako langile finkoen kopurua 13.755 pertsona hazi zen. Lanaldi osoko aldi baterako kontratua zuten pertsonen kopuruak, berriz, 29.301 pertsonako jaitsiera izan zuen

Erregimen Orokorrean afiliatutako pertsonen banaketa aztertuz gero, lanaldi osoko kontratu mugagabe bat zuten kotizatzaileen kopurua 51.123 pertsona hazi zela ikus dezakegu. Aldizkako langile finkoen kopurua 13.755 pertsona hazi zen. Lanaldi osoko aldi baterako kontratua zuten pertsonen kopuruak, berriz, 29.301 pertsonako jaitsiera izan zuen.

3.19. TAULA

EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO PERTSONAK, KONTRATU MOTAREN ETA LANALDIAREN ARABERA (HILABETE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKOA)

	Mugagabea - Lanaldi osoa	Mugagabea - Lanaldi partziala	Aldizkako finkoak	Aldi baterakoa - Lanaldi osoa	Aldi baterakoa - Lanaldi partziala	Beste batzuk (*)	GUZTIRA
2019ko abe.	385.969	73.789	13.446	129.934	85.465	86.692	775.296
2021eko abe.	399.452	77.308	14.432	126.020	76.850	82.791	776.853
2022ko abe.	437.092	98.709	27.201	100.633	45.852	82.233	791.719
Aldeak 2022-2019	51.123	24.920	13.755	-29.301	-39.613	-4.459	16.423
Aldakuntza % 2022/2019	13,2	33,8	102,3	-22,6	-46,3	-5,1	2,1

(*) Barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zainzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

Iturria: Gizarte Segurantza.


Bestetik, lanaldi partzialeko kontratu mugagabea zuten pertsonen kopurua 24.920 pertsona areagotu zen; lanaldi partzialeko aldi baterako langileen kopurua 39.613 pertsona gutxitu zen; eta "beste batzuk" ataleko afiliatu kopurua 4.459 pertsona murriztu zen.

Afiliatuak bi talde handitan banatuz gero (kontratu mugagabea dutenak eta aldi baterako kontratua dutenak), 2022ko abenduan afiliatuen % 81,5ek⁶ kontratu mugagabea zuten; 2019an baino 9 puntu handiagoa da kopuru hori (% 72,2).

Afiliatuak bi talde handitan banatuz gero (kontratu mugagabea dutenak eta aldi baterako kontratua dutenak), 2022ko abenduan afiliatuen % 81,5ek kontratu mugagabea zuten; 2019an baino 9 puntu handiagoa da kopuru hori (% 72,2)

3.10. GRAFIKOA

EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO PERTSONEN ALDAKUNTZA ABSOLUTUA, KONTRATU MOTAREN ETA LANALDIAREN ARABERA (HILABETE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKOA). 2019KO ABENDUA - 2022KO ABENDUA




(*) Barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

Iturria: Gizarte Segurantzza.

Afiliazioa kontratu motaren arabera banatuz gero, 2022aren amaieran afiliatuen % 55,2k lanaldi osoko kontratu mugagabea zutela ikus dezakegu (2019an % 49,8k). Aldiz, % 12,5ek lanaldi partzialeko kontratu mugagabea zuten (2019an % 9,5ek) eta aldizkako finkoen pisua bikoiztu egin zen, horien partaidetza oraindik ere txikia izan arren; afiliatuen % 1,7 ziren aldizkako finkoak 2019an, eta guztizkoaren % 3,4 dira orain.

⁶ Mugagabetzat hartu ditugu "Beste batzuk" atalean txertatuta daudenak, gehienak funtzionarioak direlako. "Beste batzuk" atalak barne hartzen ditu kontraturik ez duten afiliatuak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, enpresetako formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak) eta akats edo ahazte baten ondorioz fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaien horiek. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik hartzen ditu barne; kanpoan uzten ditu nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak.

3.11. GRAFIKOA**EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO PERTSONEN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ETA LANALDIAREN ARABERA (HILABETE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKOA). 2019KO ABENDUA - 2022KO ABENDUA**

(*) Barne hartzen dira kontraturik ez duten afiliatu guztiak (funtzionarioak), zaintzaileak ez-profesionalak, formakuntza-programak eta lanekoak ez diren praktikak enpresetan (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak), eta akats edo omisioetatik fitxategian kontratu-mota agertzen ez zaienak. Erregimen Orokorreko afiliatuak bakarrik sartzen dira, nekazaritzako sistema bereziak eta etxeko langileen sistemak alde batera utzita.

Iturria: Gizarte Segurantza.

2019arekin alderatuta, 9 puntu baino gehiago murriztu zen aldi baterako kontratua zuten afiliatuen ehunekoa; 2022ko abenduan % 18,5 ziren. Kontratu mugagabea zuten afiliatuen kopuruak, berriz, gora egin zuen

Bestetik, lanaldi partzialeko aldi baterako kontratua zuten afiliatuak murriztu egin ziren: 2019an % 11 ziren eta, 2022an, % 5,8. Lanaldi osoko aldi baterako kontratua zuten afiliatuen kopurua ere jaitsi egin zen, % 16,8tik % 12,7ra.

2019arekin alderatuta, 9 puntu baino gehiago murriztu zen aldi baterako kontratua zuten afiliatuen ehunekoa; 2022an % 18,5 ziren. Kontratu mugagabea zuten afiliatuen kopuruak, berriz, gora egin zuen.

Aldizkako kontratu finkoa zuten afiliatuen ehunekoa ere hazi egin zen, baina afiliazio osoaren barruan duten pisua oso txikia da oraindik ere (2019an % 1,7 eta 2022aren amaieran % 3,4).

3.20. TAULA**EAE-N ERREGIMEN OROKORREAN AFILIATUTAKO PERTSONAK, SEKTOREAREN ARABERA (HILABETE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKOA)**

	Afiliatutako pertsonak			2019ko abenduarekiko aldakuntza
	2019ko abe.	2021eko abe.	2019ko abe.	2021eko abe.
Nekazaritza	976	963	1.209	23,9
Eraikuntza	35.153	35.303	36.580	4,1
Industria	158.994	154.623	156.251	-1,7
Zerbitzuak	580.173	585.964	597.680	3,0
Guztira	775.296	776.853	791.719	2,1

Iturria: Gizarte Segurantza.

Sektorearen araberrako banaketari dagokionez, 2019ko abenduaren eta 2022ko abenduaren artean hazi egin zen afiliatu kopurua zerbitzuetan (+17.507 pertsona), eraikuntzan (+1.427 pertsona) eta nekazaritzan (+233). Industriako Erregimen Orokorrean, berriz, nabarmen egin zuen behera kotizatzaileen kopuruak (-2.743 pertsona).

Azkenik, 2022aren amaieran, 57.820 enpresa zeuden Gizarte Segurantzaren izena emanda⁷. Hortaz, urte arteko -% 0,6ko beherakada arina izan zen, eta oraindik ere 2019ko maila baino apur bat beherago gaude (ekitaldi horretan 58.958 enpresa zeuden izena emanda).

3.21. TAULA**GIZARTE SEGURANTZAN IZENA EMANDAKO ENPRESAK**

Enpresa kopurua (urte bakoitzeko abenduaren 31n)

	ESTATUA (*)	EAE (*)	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2008	1.332.090	63.081	10.271	33.446	21.726
2009	1.264.689	61.576	10.018	32.670	21.242
2010	1.323.810	61.904	10.182	32.873	21.236
2011	1.292.153	60.873	10.030	32.313	20.903
2012	1.248.381	59.024	9.658	31.316	20.367
2013	1.246.167	57.442	9.379	30.276	20.027
2014	1.255.613	58.062	9.489	30.482	20.309
2015	1.286.565	58.700	9.579	30.860	20.543
2016	1.312.345	58.951	9.657	31.004	20.673
2017	1.326.161	59.045	9.663	31.070	20.728
2018	1.346.629	59.263	9.679	31.277	20.787
2019	1.340.415	58.958	9.657	31.183	20.656
2020	1.295.656	57.522	9.384	30.467	20.193
2021	1.332.390	58.145	9.438	30.845	20.458
2022	1.329.897	57.820	9.427	30.661	20.402

(*) Estatuko enpresen guztizkoak ez du zertan bat etorri autonomia-erkidego bakoitzeko enpresen baturarekin. Izan ere, autonomia-erkidego bakoitzeko datuak erkidego horretan lantokiren bat duten enpresei dagozkie, eta enpresa batek hainbat autonomia-erkidegotan izan ditzake lantokiak. Arrazoi bera dela eta, autonomia-erkidegoko enpresen guztizkoak ez du zertan bat etorri lurralde historiko bakoitzeko enpresen baturarekin.

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

⁷ Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak argitaratutako informazioa, besteren konturako Gizarte Segurantzako Erregimen guztien (Etxeko Langileen Sistema Berezia izan ezik) Kotizazio Kontuen fitxategiaren berriazko ustiapenaren bidez eskuratutakoa. Haien ardurapean langileak dituzten pertsona fisiko enpresariak (langile autonomoak) ere barne hartzen ditu.

2022aren amaieran EAEn Gizarte Segurantzaren izena emandako enpresen kopuruak urte arteko jaitsiera txikia izan zuten, eta pandemiaren aurreko maila baino apur bat beherago kokatu zen

Lurraldearen arabera, izena emandako enpresa kopuruaren urte arteko gutxitzea orokorra izan zen. Bizkaiak izan zuten jaitsiera erlatiborik handiena (-% 0,6), hurrengoa Gipuzkoa izan zen (-% 0,3) eta, azkenik, Araba (-% 0,1). Pandemiaren aurretik erregistratutako bolumena baino txikiagoa izan zuten hiru lurralde historikoek.

Estatuan ere, 2022an, urte arteko jaitsiera izan zuten izena emandako enpresen kopuruak (-% 0,2), eta, kasu honetan ere, 2019ko zifratik behera kokatu zen.

3.5. SOLDATEN BILAKAERARI BURUZKO AURRETIAZKO GOGOETAK

Soldaten bilakaera neurtzeko modu bat baino gehiago daude, eta emaitza ezberdina da erabilitako metodologiaren arabera

Azken urteetan soldatek izan duten bilakaera ezagutu nahi badugu, kontuan hartu behar dugu galdera horrek ez duela erantzun bakar bat. Izan ere, aurreko ataletan azaltzen saiatu garen moduan, gaur egun egiten diren erregistroek eta eragiketa estatistikoek errealitate beraren ikuspegi partzialak eskaintzen dituzte, eta emaitzak ezberdinak dira fokua jarri dugun lekuaren arabera eta erabilitako metodologiaren arabera.

Lehenik eta behin, aipatu beharrekoa da hurrengo kapituluan aztertuko ditugun hitzarmen kolektiboetan adostutako soldata-igoerek horixe bakarrik hartzen dutela barne: adostutako soldata-igoerak. Kanpoan utzi ditugu enpresaren bilakaeraren eta emaitzen arabera langile batek jaso litzakeen soldataz kanpoko ordainsariak, aparteko orduak, hainbat osagarriren ordainketa (antzinatasuna, txandak, gauak, produktibitatea, helburuen lorpena...), eta horiek langilearen ordainsarien gainean izan lezaketen eragina.

Gainera, hitzarmenean adostutako batez besteko soldata-igoerak ez ditu barne hartzen langileek haien hitzarmenak luzapen egoeran zituzten bitartean beharbada izandako soldata-igoerak, ez dakigulako langile hauei igoeraren bat aplikatu zaien ala ez. Negoziazio kolektiboaren eraginpean ez dauden langileek, hau da, haien lan-baldintzak hitzarmen kolektibo baten bidez araututa ez dituztenek, izan zitzaketen soldata-igoerak ere ez ditugu gehitu.

Aurreko guztia kontuan hartuta, IV. kapituluan esan bezala, EAEn eragina duten hitzarmen kolektiboetan adostutako batez besteko soldata-igoera % 4,08koa izan zen 2022an.

Bestetik, langile bakoitzeko laneko kostuari buruzko informazioa ematen du Laneko Kostuaren Hiruhilekoko Inkestak (LKHI). Soldataren kostuez gain, beste kostu batzuk ere aintzat hartzen ditu, hala nola soldataz kanpoko ordainsariak edo Gizarte Segurantzako kotizazioak.

Zentzu horretan, EINek batez besteko laneko kostuaren gaineko informazioa ematen du. Ordainsarien egitura aldatu ez arren, datu hori aldatu egin daiteke urte batetik bestera, enpresa bateko langileen osaera aldatu izanagatik, adibidez, kategorija jakin bateko langile kopurua handitu edo txikitu izanagatik. Edo, osagarri jakin batzuk ordaintzearen edo ez ordaintzearen ondorioz ere alda daiteke.

Hala, aipatu beharrekoa da ABEEE baten eraginpeko langileek haien enpresako plantillaren parte izaten jarraitzen dutela, baina ez zaie soldata ordaintzen; horren ordez, zuzenean Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) emandako prestazioak jasotzen dituzte eta, kasu batzuetan, enpresek eurek osatzen dute ordainsaria. Gainera, langile hauen eta jarduerara itzultzen diren langileen ardura duten enplegatzaileen gizarte-kotizazioek salbuespenak dituzte, eta horrek guztiak eragina du Hiruhilekoko Inkestak egiten duen laneko kostuaren neurketan.

Testuinguru horretan, aipatutako inkestak erakusten duenez, EAEn % 2,7ko urte arteko hazkundea izan zuen batez besteko laneko kostuak 2022an, eta % 6,5 hazi zen 2019arekiko.

Azkenik, Laneko Prezioen Indizea ere argitaratzen du EINek. Urtero argitaratzen den eragiketa estatistikoa da, eta eskulanaren prezioan izandako aldaketa ahalik eta modu homogeenean neurtzea du helburu, egindako lanaren kalitateak eta kantitateak izandako aldaketek neurketari eragin gabe (adibidez, laneko indarraren osaeran, lan egindako ordu kopuruan, kontratu motan, soldatapekoen ezaugarrietan... izandako aldaketek).

Hortaz, kasu honetan, ordainsarien igoerak ez luke kontuan hartuko urte batean edo bestean ordu gehiago edo gutxiago lan egin izana. Izan ere, bi urteren artean eskulanaren kostuak izandako igoerak neurtzea du helburu, osaeraren eragina kontuan hartu gabe.

Gauzak hala, krisi-egoeran dagoen enpresa batek kualifikazio maila baxueneko eta soldata baxueneko langileak kaleratuko balitu, eta gainerakoek haien soldatak mantenduko balituzte, batez beste soldata igo egingo litzateke, aktibo jarraitzen duten langileek kopuru bera kobratzen jarraitu arren. Hain zuzen ere, langile bakoitzeko laneko kostua igo egingo litzateke, baina Laneko Prezioen Indizeak, hasiera batean, ez luke aldaketarik jasango.

Era berean, kontuan izan behar da Laneko Prezioen Indizea kalkulatzeko lanpostuen hautaketa adierazgarria egiten dela, eta denboran zehar jarraitzen dela lanpostu horien bilakaera.

Txosten hau egin dugun unean, Laneko Prezioen Indizearen gainean eskuragarri dagoen azken informazioa 2020ari buruzkoa da. Hortaz, indize horrek ez digu aukerarik ematen pandemiak eragindako krisiaren inpaktua guztiz aztertzeke.

Bestetik, soldata-igoera aztertzeke, beste gauza batzuen artean, kontuan izan behar da prezioen bilakaera, hala, erosteko ahalmena irabazi edo galdu den erabakitzeke. Eta ekonomiaren bilakaera orokorra ere aintzat hartu behar da.

Horrekin lotuta, 2022an prezioek igotzen jarraitu zuten, aurreko ekitaldian hasitako joerari jarraipena emanez (EAEko KPIaren urte arteko tasak % 5ekoak edo handiagoak dira 2021eko urriaz geroztik). Hain zuzen ere, 2022ko uztailean, gure erkidegoko KPIaren urte arteko hazkundea gailurra jo zuen, % 10,5koa izan baitzen (estatuan % 10,8koa). Ordutik, jaisten joan da urte arteko hazkundearen erritmoa (abenduan, % 5,4).

2022an, batez beste, EAEn % 8 hazi zen KPIa eta, estatu osoan, % 8,4.

Hazkunde ekonomikoari dagokionez, EAEko BPGa % 4,4 hazi zen 2022an (aurreko ekitaldian % 5,9). Dena den, ekitaldi horren amaieran BPGa baxuagoa zen oraindik ere 2019aren amaierakoa baino, hau da, pandemiaren inpaktuaren aurrekoa baino.

3.6. LANBIDE ARTEKO GUTXIENEN SOLDATA

2022an % 3,6 hazi zen lanbide arteko gutxieneko soldata, eta 1.000 eurora iritsi zen

2022an % 3,6ko hazkundea izan zuen lanbide arteko gutxieneko soldatak (LGS). Hala, 965 eurotik 1.000 eurora igaro zen (14 ordainsari).

LGSren hazkundea (% 3,6) txikiagoa izan zen 2022ko estatuko batez besteko inflazioa baino (% 8,4), eta abenduko urte arteko inflazioa (% 5,7) baino. Dena den, denboraren oinarri gisa 2007a, hau da, aurreko atzeraldia hasi aurreko urtea, hartzen badugu honakoa ikus dezakegu: 2007-2022 aldian, lanbide arteko gutxieneko soldata % 75,3 igo zen, eta aldi horretako batez besteko KPIa % 30,6 hazi zen.

Lanbide arteko gutxieneko soldatak (LGS): Besteren konturako langile batek egunean edo hilean jaso behar duen gutxieneko diruzko ordainsari gordina ezartzen du, jardueraren, sexuaren edo adinaren arabera bereizketarik egin gabe.

3.22. TAULA

LANBIDE ARTEKO GUTXIENEN SOLDATA, LGS (ESTATUA)

	LGS (EUROAK HILABETEKO, 14 ORDAINSARI)	LGS-REN ALDAKUNTZA (2007=100)	Estatuko KPIa (URTEKO BATEZ BESTEKOA, 2007=100)
2007	570,6	100,0	100,0
2008	600,0	105,2	104,1
2009	624,0	109,4	103,8
2010	633,3	111,0	105,6
2011	641,4	112,4	109,0
2012	641,4	112,4	111,7
2013	645,3	113,1	113,3
2014	645,3	113,1	113,1
2015	648,6	113,7	112,5
2016	655,2	114,8	112,3
2017	707,7	124,0	114,5
2018	735,9	129,0	116,4
2019	900,0	157,7	117,2
2020	950,0	166,5	116,8
2021 ⁸	965,0	169,1	120,4
2022	1.000,0	175,3	130,6

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa, EIN.

2007tik 2022ra, % 75 baino gehiago hazi da LGS

Eurostatek argitaratutako informazioaren arabera (12 ordainsaritarako kalkulaturik, eta erosketa-ahalmenaren parekotasuna –EAP– kontuan hartuta), informazioa eskuragarri duten 21 estatu kideen batez bestekoa (1.070 euro, irizpide horiek kontuan hartuta) baino handiagoa izan zen estatuko LGS 2022an (1.181 euro EAP).

⁸ 2021eko irailetik aurrera indarrean.

Nabarmenezkoa da 1.000 eurotik gorako gutxieneko soldata (EAP, 12 ordainsari) duten herrialdeen artean Luxenburgo dela lehena (1.726), eta honakoak hurrengoak: Alemania (1.566), Belgika (1.543), Holanda (1.502) eta Frantzia (1.443). Horiek guztiek 1.400 eurotik gorako gutxieneko soldatak dituzte, erosketa-ahalmenaren parekotasun-baldintzetan. Jarraian, Irlanda (1.267), Eslovenia (1.218), Espainia (1.181), Polonia (1.104) eta Lituania (1.015) daude.

Dena den, aipatu beharrekoa da azken urte hauetan LGS igo arren, Espainiak ia posizio bera mantendu duela Europako rankingaren barruan.

3.23. TAULA

LANBIDE ARTEKO GUTXIENEO SOLDATA (EB) EROSKETA-AHALMENAREN PAREKOTASUN-BALDINTZETAN

	Euroak eap*							
	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022 (**)
Luxenburgo	1.531	1.503	1.552	1.575	1.627	1.620	1.663	1.726
Alemania	1.349	1.348	1.413	1.424	1.458	1.445	1.476	1.566
Belgika	1.350	1.338	1.354	1.363	1.388	1.413	1.433	1.543
Holanda	1.318	1.321	1.357	1.387	1.395	1.440	1.461	1.502
Frantzia	1.301	1.304	1.309	1.315	1.341	1.361	1.381	1.443
Irlanda	1.139	1.195	1.188	1.203	1.220	1.202	1.230	1.267
Eslovenia	919	909	930	968	1.020	1.073	1.161	1.218
Espainia	798	801	871	891	1.093	1.137	1.142	1.181
Polonia	726	758	799	826	870	978	1.027	1.104
Lituania	487	560	575	593	812	863	893	1.015
Errumania	413	476	540	732	788	830	830	934
Portugal	681	708	730	768	796	829	868	920
Grezia	775	780	787	788	832	859	868	919
Malta	858	861	852	864	875	867	886	894
Kroazia	587	604	634	657	709	761	794	875
Hungaria	552	571	625	656	680	691	683	832
Txekiar Errepublika	505	536	592	643	692	730	744	793
Estonia	503	545	581	603	636	685	674	755
Eslovakia	538	519	528	568	600	645	694	720
Letonia	492	497	507	561	551	546	630	630
Bulgaria	380	432	459	503	536	559	598	625

(*) Erosketa-ahalmenaren parekotasun-baldintzetan.

(**) Zenbatetsitako balioak.

Iturria: Eurostat (2023ko urtarrila).

Soldatak herrialde bakoitzeko prezioen mailaren arabera doitu ezean (erosketa-ahalmenaren parekotasuna), estatuen gutxieneko soldaten arteko aldeak handiagoak izango lirarteke.

Azkenik, aipatu beharrekoa da Danimarkak, Italiak, Ziprek, Austriak, Finlandiak eta Suediak ez dutela legez araututako gutxieneko soldatarik. Negoziazio kolektiboa da gutxieneko soldata finkatzeko duten sistema bakarra.

3.7. LANEKO KOSTUAREN HIRUHILEKOKO INKESTA

Aurreko txostenetan bezala, epigrafe honetan, laneko kostuak aztertzeke, Estatistika Institutu Nazionalak (EIN) egindako Laneko Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta hartuko dugu erreferentzia gisa. Langile bakoitzeko batez besteko laneko kostuaren bilakaera aztertzen du inkesta horrek, eta barne hartzen ditu soldataren kostua (oinarrizko soldata, soldataren osagarriak, aparteko orduen ordainketak, ezohiko ordainketak eta atzerapenak), soldataz kanpoko ordainsariak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak⁹.

Laneko kostua aztertu aurretik, aurrez esan duguna gogoratzea komeni da, hau da, osaera-efektua deritzonak eragin egin diezaiokeela laneko kostuaren bilakaerari. Enplegua suntsitzen den garaietan, baliteke aldi baterako kontratua duten pertsonak eta batez bestekoa baino soldata baxuagoa duten pertsonak lana galtzea. Ondorioz, handitu egiten da soldata altuagoak dituzten pertsonak guztizkoaren gainean duten pisu erlatiboa, eta, horren eraginez, langile bakoitzeko batez besteko laneko kostuak gora egin dezake. Hala, langileen osaeraren aldaketa horrek laneko kostuaren igoera ekarriko luke.

Osaera-efektua: Lagina osatzen duten kolektiboen pisu erlatiboaren aldaketa, lan-merkatuaren sarrerako eta irteerako fluxuek eraginda.

Aitzitik, enpleguaren hazkunde-faseetan kontrako efektua gerta liteke. Izan ere, lanean dauden pertsonak baino soldata baxuagoak dituzten pertsonak sartuz gero, langile bakoitzeko batez besteko kostua jaitsi egingo litzateke.

Laneko kostua, langile eta hilabete bakoitzeko: Enpresari batentzat hilabete batez langile bati lana emateak zer kostu duen neurtzen du. (Laneko kostua, lan-unitate bakoitzeko).

Laneko kostua, benetako lanordu bakoitzeko. Enpresari batentzat benetako lanordu batek zer kostu duen neurtzen du (Laneko kostua, lan-unitate bakoitzeko).

Benetako orduak: Hitzartutako orduen eta aparteko orduen eta/edo ordu osagarrien arteko batura, ken lan egin gabeko orduak; lantokian galdutako orduak ez dira azken multzo horretan sartzen, benetako ordutzat hartzen baitira.
Iturria: EIN.

2022an % 2,7 hazi zen guztizko laneko kostua EAEn, aurreko urtearekin alderatuta, eta, 2019arekiko, % 6,5

2022an langile bakoitzeko hileko batez besteko laneko kostua 3.293,11 eurokoa izan zen EAEn, aurreko ekitaldian baino % 2,7 handiagoa, eta 2019an baino % 6,5 handiagoa.

Lanordu bakoitzeko benetako laneko kostuaren igoera % 2,6koa izan zen 2021arekin alderatuta, eta % 6koa pandemiaren aurreko egoerarekin alderatuta (2019).

⁹Informazio gehiagorako, kontsultatu Laneko Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta. EIN. http://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736045053&menu=metodologia&idp=1254735976596
Inkesta honek ez du barne hartzen lehen sektoreko informazioa.


Lanordu bakoitzeko benetako kostua % 2,6 hazi zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta % 6 pandemiaren aurreko egoerarekiko (2019)

Estatuan 2.838,01 eurokoa izan zen langile bakoitzeko laneko kostua, 2022an baino % 4,2 handiagoa eta 2019an baino % 7,9 handiagoa.

Ikuspegi zabalago batetik, eta 2008a oinarri-urte gisa hartuta, aldi honetan zehar antzeko iguera izan du laneko kostuak EAEn (+% 17) eta estatuan (+% 16,7).


3.12. GRAFIKOA

LANGILE ETA HILABETE BAKOITZEKO LANEKO KOSTUAREN BILAKAERA (INDIZEAREN ZENBAKIAK: 2008=100 BALIOAK)



Iturria: EIN.

EAEn, sektore guztien kasuan, 2022ko laneko kostua handiagoa izan zen 2019koa baino. Langile bakoitzeko batez besteko laneko kostu handiena industriak du, 3.989,9 eurorekin; hurrengoa, distantzia apur batera, eraikuntza da (3.321,41 euro), eta, azkenik, zerbitzuak (3.102,44 euro). Batez besteko laneko kosturik altuena (industria) eta baxuena (zerbitzua) duten sektoreen arteko aldea 887,46 eurokoa da.

3.13. GRAFIKOA**LANGILE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKO LANEKO KOSTUAREN (EUROTAN) ETA SOLDATAPEKO BIZTANLEEN BILAKAERA EAE-N* (MILAKA PERTSONA), 2008-2022**

*2023ko urtarrilaren 20an argitaratutako datuak.

**Behin-behineko datuak.

Iturriak: Laneko Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta (EIN) eta BJA (Eustat).

Aurreko urtearekin alderatuta, industriak izan zuen laneko kostuaren hazkunderik handiena (% 3,7). Eraikuntzak eta zerbitzuek, berriz, % 3,4 eta % 2,5eko urte arteko hazkundeak izan zituzten, hurrenez hurren.

3.24. TAULA**LANGILE ETA HILABETE BAKOITZEKO URTEKO BATEZ BESTEKO LANEKO KOSTUAREN BANAKETA, EHUNEKOETAN, EAE**

	BALIO ABSOLUTUAK			BANAKETA EHUNEKOETAN			ALDAKUNTZA	
	2019	2021	2022	2019	2021	2022	22/21	22/19
Langile bakoitzeko laneko kostua, guztira	3.091,7	3.206,9	3.293,1	100,0	100,0	100,0	2,7	6,5
Langile bakoitzeko soldata-kostua, guztira	2.289,9	2.357,1	2.424,9	74,1	73,5	73,6	2,9	5,9
Beste kostu batzuk	801,7	849,8	868,2	25,9	26,5	26,4	2,2	8,3
Soldataz kanpoko ordainsarien kostua	72,5	86,6	83,5	2,3	2,7	2,5	-3,6	15,2
Derrigorrezko kotizazioen kostua	744,8	777,6	802,2	24,1	24,2	24,4	3,2	7,7
Gizarte Segurantzaren dirulaguntzak eta hobariak ¹⁰	15,7	14,3	17,5	-0,5	-0,4	-0,5	22,4	11,5

Iturria: EIN.

¹⁰ Enplegataileek Gizarte Segurantzako kotizazioen likidazioetan aplikatzen dituzten murrizketak, hobariak eta dirulaguntzak, langileen kolektibo jakin batzuk kontratatu izanagatik edo SEPEk haren aurrekontuaren kontura onartutako laguntzengatik.

Laneko kostuaren osagaien azterketan sakonduz gero, ikus dezakegu soldataz kanpoko ordainsarien kostuak bakarrik izan zuela urte arteko jaitsiera 2022an (-% 3,6 EAEn eta -% 7,7 estatutan). Gainerako osagaiek gora egin zuten. Dena den, kontuan izan behar da aipatutako osagaiaren pisu erlatiboa ez dela iristen langile bakoitzeko laneko kostuaren % 3ra.

3.25. TAULA

LANGILE ETA HILABETE BAKOITZEKO URTEKO BATEZ BESTEKO LANEKO KOSTUAREN BANAKETA, EHUNekoETAN, ESTATUAN

	BALIO ABSOLUTUAK			BANAKETA EHUNekoETAN			ALDAKUNTZA	
	2019	2021	2022	2019	2021	2022	22/21	22/19
Langile bakoitzeko laneko kostua, guztira	2.630,9	2.723,9	2.838,0	100,0	100,0	100,0	4,2	7,9
Langile bakoitzeko soldata-kostua, guztira	1.955,2	2.022,6	2.115,1	74,3	74,3	74,5	4,6	8,2
Beste kostu batzuk	675,7	701,3	722,9	25,7	25,7	25,5	3,1	7,0
Soldataz kanpoko ordainsarien kostua	67,0	71,8	66,3	2,5	2,6	2,3	-7,7	-1,0
Derrigorrezko kotizazioen kostua	621,8	642,7	671,3	23,6	23,6	23,7	4,4	8,0
Gizarte Segurantzaren dirulaguntzak eta hobariak ¹¹	13,1	13,1	14,7	-0,5	-0,5	-0,5	12,2	12,2

Iturria: EIN.

Madril, EAE, Katalunia eta Nafarroa dira 3.000 eurotik gorako batez besteko laneko kostua duten erkidego bakarrak

Autonomia-erkidegoen arabera azterketa konparatiboak erakusten duenez, 2022an EAEk izan zuen bigarren batez besteko laneko kosturik altuena; Madril bakarrik kokatu zen haren aurretik (3.333 euro). Bestetik, Kataluniak (3.056 euro) eta Nafarroak (3.043 euro) ere 3.000 eurotik gorako batez besteko laneko kostua erregistratu zuten.

Gainerako erkidegoen batez besteko laneko kostuak estatuko batez bestekoa (2.838 euro) baino baxuagoak izan ziren. Honakoek eskuratu zituzten mailarik baxuenak: Gaztela-Mantxa (2.549 euro), Andaluzia (2.514 euro), Murtzia (2.502 euro), Kanariak (2.397 euro) eta Extremadura (2.296 euro).

¹¹ Enplegatzaileek Gizarte Segurantzako kotizazioen likidazioetan aplikatzen dituzten murrizketak, hobariak eta dirulaguntzak, langileen kolektibo jakin batzuk kontratatu izanagatik edo SEPEk haren aurrekontuaren kontura onartutako laguntzengatik.

3.26. TAULA**LANGILE ETA HILABETE BAKOITZEKO LANEKO KOSTUA AUTONOMIA ERKIDEGOETAN**

	Euroak		
	HILEKO GUZTIZKO LANEKO KOSTUA*		
	2019	2021	2022
Madril	3.089	3.232	3.333
EAE	3.092	3.207	3.293
Katalunia	2.817	2.910	3.056
Nafarroa	2.862	2.938	3.043
GUZTIRA	2.631	2.724	2.838
Asturias	2.692	2.729	2.794
Aragoi	2.549	2.633	2.735
Balear Uharteak	2.544	2.456	2.682
Kantabria	2.541	2.534	2.657
Valentziako Erkidegoa	2.350	2.471	2.574
Errioxa	2.400	2.439	2.568
Gaztela eta Leon	2.370	2.469	2.563
Galizia	2.401	2.477	2.551
Gaztela-Mantxa	2.331	2.435	2.549
Andaluzia	2.316	2.410	2.514
Murtzia	2.307	2.474	2.502
Kanariak	2.240	2.160	2.397
Extremadura	2.165	2.196	2.296

*Urteko batez bestekoa.
Iturria: EIN.

3.8. LANEKO PREZIOEN INDIZEA

Urtero argitaratzen den eragiketa estatistiko jarraitua da Laneko Prezioen Indizea (LPI), eta lan-merkatuaren presioen ondorioz soilik eskulanaren prezioak denboran zehar izandako aldaketa neurtzea da haren helburua.

Honako lan hau egiteko unean, 2020ko ekitaldikoa da eskuragarri dagoen azken informazioa.

Laneko Prezioen Indizearen arabera, 2020an apur bat igo ziren soldatak EAEn (+% 1,1), eta estatuan jaitsi egin ziren (-% 0,6)


EINek urtero argitaratzen duen eragiketa estatistiko da **Laneko Prezioen Indizea (LPI)**, eta eskulanaren prezioak izandako aldaketa neurtzea du helburu, egindako lanaren kalitateak eta kantitateak izandako aldaketek neurketari eragin gabe.

Soldaten bilakaera zintzoki islatzeko helburuz, LPI ez da batezbestekoen arabera neurtzen, Laneko Kostuaren Hiruhilekoko eta Urteko Inkestaren kasuan ez bezala. Horren ordez, KPIaren kasuan bezala, lanpostuen hautaketa adierazgarri bat egiten da, denboran zehar horien bilakaera aztertzen da eta, horretan oinarrituta, indize bat sortzen da.

Indize honen arabera, 2020an % 1,1 hazi ziren EAeko soldatak aurreko urtearekin alderatuta. Estatuan, berriz, -% 0,6 jaitsi ziren.

Indize honek 2008 eta 2020 artean izandako bilakaera aztertzen badugu, LPIaren bilakaera nahiko antzekoa izan zen EAEn eta estatuan. Dena den, EAEn kasuan, aldi horretan metatutako hazkundea +% 10,8koa izan zen eta, estatuaren kasuan, +% 5,1ekoa baino ez.

3.14. GRAFIKOA
LPI. BILAKAERA 2008-2020. EAE ETA ESTATUA



Iturria: EIN.

ONDORIOAK

- EAEko biztanleria aktiboa 6.700 pertsona hazi zen 2022an aurreko urtearekin alderatuta, baina oraindik ere pandemiaren aurreko mailaren azpitik dago (2019 urtea).
- Dena den, 2022an biztanleria okupatua (961.700 pertsona) 2019koa baino handiagoa zen (951.200 pertsona).
- BJaren arabera, 2022an % 25,9koa izan zen behin-behinekotasunaren tasa, 2019an erregistratutakoa (% 30,8) baino ia bost puntu baxuagoa.
- Langabezia-tasa % 8,5era jaitsi zen: 2009az geroztiko langabezia-tasarik baxuena.
- Generoaren araberako aldea murriztu egin zen 2022an, 2019arekiko, baina emakumeen langabezia-tasak altuagoa izaten jarraitu zuen gizonen langabezia-tasak baino: % 9 eta % 8.
- Abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua 2022an indarrean sartu ondoren, nabarmen murriztu zen aldi baterako kontratazioa, eta asko hazi zen kontratu finkoen kopurua, batez ere, aldizkako kontratu finkoena.
- 2019arekin alderatuta, sinatutako kontratu mugagabeen kopurua % 138,3 hazi zen 2022an, aldi baterako kontratuen kopurua % 33,4 murriztu zen, eta aldizkako finkoen kopurua % 748,1 hazi zen.
- Pertsona eta urte bakoitzeko sinatutako kontratu kopurua 2,59ra jaitsi zen; 2019an pertsona bakoitzeko 3,11 kontratukoa zen kopurua.
- 2022ko abenduan, Gizarte Segurantzara afiliatutako pertsona kopuruak (hileko batez bestekoa) zifra errekorra lortu zuen: 994.077 pertsona.
- Afiliatuak bi talde handitan banatuz gero (kontratu mugagabea dutenak eta aldi baterako kontratua dutenak), 2022ko abenduan afiliatuen % 81,5ek kontratu mugagabea zuten; 2019an baino 9 puntu handiagoa da kopuru hori (% 72,2).
- Aldi baterako kontratua zuten afiliatuen ehunekoa 9 puntu baino gehiago murriztu zen 2019arekin alderatuta; 2022aren amaieran % 18,5ean kokatu zen aipatutako ehunekoa.
- 2022aren amaieran EAEn Gizarte Segurantzaren izena emanda zeuden enpresen kopuruak urte arteko jaitsiera txikia izan zuen, eta pandemiaren aurreko maila baino beherago kokatu zen.
- Langile bakoitzeko guttizko batez besteko laneko kostuak % 2,7ko urte arteko hazkundera izan zuen, eta 2019an eskuratutakoa baino % 6,5 handiagoa izan zen.

4

LAN HARREMANAK

4.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA¹²

4.1.1. SARRERA

EAEko negoziazio kolektiboaren ezaugarri nagusiak laburbilduko ditugu atal honetan. Lehenik eta behin, akordio mota horien mendeko langileak aztertuko ditugu eta, gero, negoziazio kolektiboak gure erkidegoan duen egitura aztertuko ditugu, eta haren alderdi nagusiei buruzko informazioa eskainiko dugu.

Ondoren, negoziazioak 2022an izandako dinamika eta haren emaitzarik esanguratsuenak aztertuko ditugu, lurraldearen eta eremu funtzionalaren arabera. Halaber, indarrean dauden hitzarmenak negoziatu eta sinatu dituzten erakundeen gaineko informazioa emango dugu. Azkeneko zatian, EAEn gordailututako hitzarmen kolektiboen inaplikazioen analisi bat egingo dugu.

Bi urtetik behin, negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko informazioa eguneratzen du Lan Harremanen Kontseiluak; funtsean, EAEn aplikatzen diren hitzarmen kolektiboen katalogoa identifikatu eta horien eraginpeko pertsonak zehazten ditu. Horretarako, abiapuntuko datu gisa, gure erkidegoan Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak eta administrazio publikoek emandako informazioa hartzen dira kontuan.

2021ean egindako azterlanaren¹³ emaitzak erabiliz prestatu ditugu txosten honetako datuak, eta hilero eguneratu ditugu hitzarmenen unibertsoa eta eraginpeko langile kopurua, argitaratutako enpresa-hitzarmenetatik eskuratutako informazioarekin.

4.1.2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOKO AKORDIOEN ERAGINPEKO LANGILEEN EZAUGARRIAK

Lehenik eta behin, aipatu beharrekoa da funtzionarioak ez direla sartzen negoziazio kolektiboko akordioak sina ditzaketen langileen artean, haien lan-baldintzak ez baitira finkatzen hitzarmen kolektiboen bidez.

Halaber, ez ditugu kontuan hartu administrazio publikoen zerbitzura dauden langileak ere. Ildo horretatik, Auzitegi Goreneko Gizarte Arloko Salaren 335/2019 zenbakidun epaiak adierazten duenez, langile horiei ez zaie aplikatzen garatzen duten jardueraren arabera eragin liezaieketen sektoreko hitzarmen kolektiboetan ezarritakoa.

Nolanahi ere, negoziazio kolektiboko akordioen eraginpeko populazioaren barruan sartu ditugu lan-kontratua duten langile publikoak, elkarte publikoetan lan egiten dutenak eta uneren batean enpresako hitzarmenen bat sinatu dutenak.

Aurrez azaldutako guztia kontuan hartuta, EAEn 655.000 langile inguruk ezar ditzakete haien lan-baldintzak negoziazio kolektiboko akordioen bidez.

¹² Lan Harremanen Kontseilua (LHK) da atal oso honetako informazio-iturria.

¹³ 2020rako aurreikusitako azterlan honen eguneraketa 2021ean egin zen azkenean, pandemia agertu zen urteko baldintza bereziek asko zailduko zuketelako azterlana egitea eta, egin izan balitz ere, datuak ez ziratekeelako oso adierazgarriak izango.

Dena den, horietako batzuk baino ez dira egon akordio mota horien babespean; izan ere, jarduera batzuen kasuan, haien lan-baldintzak inoiz ere ez dira egon hitzarmen kolektibo batek araututa.

Multzo hori 50.000 pertsona ingurukoa izango litzateke, soldatapeko langileen % 8 inguru (funtzionarioak eta administrazio publikoetako langileak alde batera utzita, aurrez aipatu dugun moduan). Bestalde, negoziazio kolektiboaren eraginpeko multzoa, gainerako % 92a, ia 605.000 pertsonakoa izango litzateke.

Hitzarmen bidez arautu gabeko jardueretan lan egiten dute 50.000 pertsona inguruk, gehienak emakumeak; etxeko lanak egiten dituzten pertsonak dira gehienak

Hitzarmen bidez arautu gabeko lanbideen artean, jarduera mota ugari topa ditzakegu; kasu askotan, zerbitzuen sektorearekin lotuak eta, gehienbat, emakumeek egiten dituztenak. Horien artean, etxeko zerbitzua¹⁴ da langile gehien dituen, 27.000 pertsona inguru, baina osasungintzako lanbideak ere badaude (adibidez, kontsulta medikoak); kasu askotan, enpresa txikiak dira, hitzarmen bidez arautu gabeko jardueraren bat dutenak.

Lurraldearen arabera, negoziazio kolektiboko akordioen bidez arautu gabeko jardueretan lan egiten duten 50.000 pertsona inguru horietatik, 9.745 Arabakoak dira, 25.906 Bizkaikoak eta 14.397 Gipuzkoakoak. Hortaz, lurralde osoko langile kopurua kontuan hartuta, pisu erlatibo handiagoa dute Araban, gainerako lurraldeetan baino.

Behin hona iritsita, gogoratu beharrekoa da, Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala, Araban ez dutela inoiz sinatu bulegoetarako hitzarmenik, ezta merkataritzarako hitzarmenik ere, oro har. Hortaz, arlo horietako langile askok ez dituzte haien lan-baldintzak hitzarmen kolektibo baten bidez araututa izan inoiz.

Arautu gabeko jardueren osaera sexuaren arabera aztertuz gero, jarduera horietan lan egiten duten emakumeen kopurua gizonena baino askoz ere altuagoa dela ikus dezakegu. Hain zuzen ere, hitzarmen bidez arautu gabeko jardueretan lan egiten duten pertsonen % 78,5 dira emakumeak. Aldiz, negoziazio kolektiboaren eraginpeko soldatapeko langileen artean oreka handiagoa dago bi sexuen artean, gizonak gehiago badira ere (% 55,8, eta emakumeak % 44,2).

Etxeko zerbitzuan lan egiten duten pertsona gehienak emakumeak izateaz gain, haien jarduera hitzarmen kolektibo baten bidez inoiz arautu ez duten zerbitzuen sektoreko jarduera askotan ere presentzia handiagoa dute emakumeek (kontsulta medikoak, administrazio-jarduera batzuk eta jarduera osagarriak, etab.).

¹⁴ Jarduera honetan lan egiten duten pertsona ia guztiak emakumeak dira.

4.1. TAULA

HITZARMEN BIDEZ ARAUTU GABEKO LANBIDEETAN LAN EGITEN DUTEN EA EKO SOLDATAPEKO LANGILEEN BANAKETA, JARDUERAREN ARABERA*

Etxeko zerbitzua	55,9%
Kontsulta medikoak eta osasun-jarduerak	15,6%
Administrazio-zerbitzuak	7,2%
Nekazaritza eta arrantza	6,5%
Kultura eta kirola	3,5%
Gainerako jarduerak	11,3%
GUZTIRA	100,0%

*Funtzionarioak eta administrazio publikoetako langileak kanpoan utzita.

2021eko Negoziazio Kolektiboaren Egitura azterlanean oinarrituta eskuratutako ehunekoak.

4.1.3. 2022KO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURAREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

Aipatu dugun moduan, 2022ko abenduaren 31n eguneratutako Negoziazio Kolektiboaren Egitura azterlaneko datuen arabera, EA Erako negoziazio kolektiboak 604.411 pertsonari eragiten die guztira.

Jarraian, negoziazio kolektiboaren ezaugarri nagusiak, eremu funtzionalak eta hitzarmen kolektiboaren egoera azalduko ditugu.

Aurretik, 2012ko lan-erreformak hitzarmenen aurreraeragina aldatu zuela aipatu behar dugu, beste gauza batzuen artean. Hala, hitzarmen kolektiboaren salaketatik urtebete pasatzen bada hitzarmen berririk adostu gabe, hitzarmena indarririk gabe geratuko da, aurkakoa hitzartu ezean, eta indargabetutzat hartuko da; eta goragoko mailako hitzarmen kolektibo aplikagarria aplikatuko da, halakorik badago.

Hitzarmena indargabetuta duten eta estaldurarik ez duten langileak:
Haien hitzarmena indargabetu ondoren, aurrekoaren ordezkoko hitzarmen berririk edo babesten dituen goragoko mailako hitzarmenik ez duten pertsonak.

Hala, estatistika-helburuetarako, urteko txosten honetan eta LHKren argitalpenetan haien hitzarmena indargabetuta duten eta estaldurarik ez duten langileak deitu diegu haien hitzarmena indargabetu ondoren ordezkoko hitzarmen berririk ez dutenei, eta babesten dituen goragoko mailako hitzarmenik ere ez dutenei.

Pertsona horiek hitzarmen baten babespean zeuden aipatutako lan-erreforma indarrean sartu aurretik; hortaz, egokia iruditu zaigu gure analisisian sartzen jarraitzea, beste arrazoi batzuen artean, une honetan langile asko daudelako hitzarmen baten estaldurarik gabe, eta hitzarmen horiek etorkizunean berritzeko aukerak daudelako.


Hitzarmena indarrean duten langileak:
Hitzarmenean ezarritako indarraldi arruntaren barruan dagoen hitzarmen kolektibo baten eraginpeko langileak.

Azkenik, aipatu beharrekoa da 2012an ezarritako arau-esparrua aldatu egin zela lan-erreformarako, langileen egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presazko neurriak ezartzen dituen abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua argitaratu zenean. Hura indarrean sartu zenean, hitzarmen kolektiboak urtetik urtera luzatuko direla ezarri zen, alderdiek berariazko salaketarik egin ezean.

Gure erkidegoan, negoziazio kolektiboko akordioen eraginpeko langileen % 71,8k EAEn bertan negoziatzen dituzte haien hitzarmenak

4.1. GRAFIKOA

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURA 2022AN EAEN (ERAGINPEKO PERTSONAK)



2022ko abenduaren 31ko datuak

Indarraldia luzatuta duten hitzarmenak dituzten langileak: Talde honek barne hartzen ditu indarraldi arrunta amaitu ondoren salaketarik jaso ez duten hitzarmenen eraginpeko pertsonak zein salaketa jaso ondoren luzapen-egoeran dauden hitzarmenen eraginpeko langileak (aurreraeraginean dauden hitzarmenak).

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURA

EAeko negoziazio kolektiboak honako egiturazko ezaugarriak ditu:

- EAeko negoziazio kolektiboaren zatirik handiena sektore pribatuari dagokio (eraginpeko pertsonen % 95,4).
- Barne hartzen ditu EAEn negoziatutako eta erregistratutako hitzarmenak, eta gure erkidegoan hitzarmen espezifikorik ez duten edo hitzarmena indargabetuta duten sektoreetan eragiten duten estatu mailako hitzarmenak, baita EAEn

lantokiak dituzten enpresen hitzarmenak ere. Nolanahi ere, negoziazio kolektiboko akordioen eraginpeko pertsona gehienek EAEn bertan negoziatzen dute hitzarmena, zehazki, % 71,8k.

- Langile gehienak hitzarmen sektorialen babespean daude. Dena den, lurralde batetik bestera aldatu egiten da sektoreko eta enpresako negoziazio kolektiboaren pisua. Hala, Bizkaian eta Gipuzkoan, argi eta garbi, negoziazio sektoriala gailentzen da. Araban, berriz, negoziazio sektoriala gailendu arren, garrantzi handia du enpresa mailako negoziazioak ere.

- Negoziazio kolektiboko akordioen eraginpeko soldatapeko langileen % 7,2 dira 2022ko abenduaren 31n haien hitzarmena indargabetuta zuten eta goragoko mailako hitzarmen baten babesik ez zuten langileak. Ia gehienak, aurrez EAEn negoziatutako hitzarmen sektorialen eraginpean egondako sektore pribatuko langileak ziren, hura indargabetu ondoren goragoko mailako hitzarmen baten babesa topatu ez zutenak.

Gure erkidegoan ohikoa da enpresako hitzarmenak sinatzea. Horiek, normalean, hobetu egiten dituzte hitzarmen sektorialaren baldintzak, baina ez dugu horiei buruzko informaziorik, ez direlako argitaratzen eta kasurik gehienetan ez direlako lan-agintaritzaren aurrean gordailutzen.

4.2. GRAFIKOA


NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURA. EREMU FUNTZIONALAK (ERAGINPEKO PERTSONAK)



2022ko abenduaren 31ko datuak

Sektoreko negoziazio kolektiboak 456.324 pertsonari eragiten die; enpresakoak, aldiz, 148.087 langileri

Negoziazio kolektiboko akordioen eraginpeko soldatapeko langileen sexuaren araberako banaketari dagokionez, % 55,8 (337.148 pertsona) gizonak dira eta gainerako % 44,2ak (267.263 pertsona) emakumeak.

4.3. GRAFIKOA**NEGOZIAZIO KOLEKTIBOKO AKORDIOEN ERAGINPEKO SOLDATAPEKO LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA (2022/12/31)**

Negoiazio kolektiboa garatzen den lurralde eremu guztietan, gehienak gizonak dira, lurralde arteko eremuan izan ezik. Araba nabarmentzen da, negoziazio kolektiboaren eraginpeko emakumeen kopuruaren ia bikoitza baita gizonena, hitzarmen kolektibo guztien (indarrean daudenak, luzatutakoak eta indargabetuak) eraginpeko pertsona kopurua jasotzen duen 4.2. taulan ikus daitekeen moduan.

4.2. TAULA**NEGOZIAZIO KOLEKTIBOKO AKORDIOEN ERAGINPEKO PERTSONEN BANAKETA, SEXUAREN ETA LURRALDE EREMUAREN ARABERA (2022/12/31)**

	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
EAE, guztira	337.148	267.263	604.411	55,8%	44,2%
EAEn erregistratutakoak	245.139	189.207	434.346	56,4%	43,6%
Araba	39.775	21.340	61.115	65,1%	34,9%
Bizkaia	112.729	80.528	193.257	58,3%	41,7%
Gipuzkoa	79.177	56.860	136.037	58,2%	41,8%
Lurralde artekoak	13.458	30.479	43.937	30,6%	69,4%
Estatu mailakoak	92.009	78.056	170.065	54,1%	45,9%

Lurralde arteko eremuan handia da emakumeen ehunekoa. Izan ere, oso feminizatuta dauden jarduerak daude negoziazio eremu horretan, gehienak zerbitzuen sektorekoak, hala nola eskolako jangela-zerbitzua, irakaskuntza (itunpekoa eta ikastolak) edo Hezkuntza Saileko eta Osakidetzako garbiketa-kontratak. Hala, emakumeen presentzia % 69,4koa da eremu honetan.

2022an, aurreko urtearekin alderatuta, hazi egin zen hitzarmenak indarrean edo luzatuta zituzten langileen kopurua (560.659 pertsonak) eta murriztu egin zen hitzarmenak indargabetuta zituzten eta estaldurarik ez zuten langileen kopurua (43.752)

Jarraian, hitzarmen aplikagarriak aztertuko ditugu batetik, eta indargabetutako hitzarmenak bestetik.

4.3. TAULA

2022AN EAE-N APLIKAGARRIAK ZIREN HITZARMEN KOLEKTIBOEN ETA HORIEN ERAGINPEKO PERTSONEN KOPURUA (2022/12/31)

	ENPRESA		SEKTOREA		GUZTIRA	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK
EAE, guztira	1.137	147.886	197	412.773	1.334	560.659
EAEn erregistratutakoak	912	110.329	84	281.304	996	391.633
Araba	168	22.276	20	35.317	188	57.593
Bizkaia	430	40.514	30	138.411	460	178.925
Gipuzkoa	279	32.495	26	78.683	305	111.178
Lurralde artekoak	35	15.044	8	28.893	43	43.937
Estatu mailakoak	225	37.557	113	131.469	338	169.026

EAEn aplikagarriak diren hitzarmenen kopurua eta horien eraginpeko langileen kopurua jasotzen ditu 4.3. taulak. Barne hartzen ditu 2022an indarraldi arruntean zeuden hitzarmenak zein luzapen-egoeran eta aurreraeraginean zeudenak, eta, hortaz, berritzeko zeudenak. Hitzarmen horien artean sartu ditugu, era berean, haien hitzarmena (sektorekoa edo enpresakoa) indargabetu ondoren goragoko maila bateko hitzarmen sektorialaren (estatukoa, probintziakoa edo lurralde artekoa) estaldura zutenak; izan ere, legez, hitzarmen berri horren eraginpean geratzen dira, aplikagarria zitzaien hitzarmena indargabetu ondoren.

4.4. TAULA
EAE-N INDARGABETUTAKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN ETA HORIEN ERAGINPEKO PERTSONEN
KOPURUA (2022/12/31)

	ENPRESA		SEKTOREA		GUZTIRA	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK
EAE, guztira	8	201	22	43.551	30	43.752
EAEn erregistratutakoak	5	192	18	42.521	23	42.713
Araba	2	84	2	3.438	4	3.522
Bizkaia	0	0	9	14.332	9	14.332
Gipuzkoa	3	108	7	24.751	10	24.859
Lurralde artekoak	0	0	0	0	0	0
Estatu mailakoak	3	9	4	1.030	7	1.039

4.4. taulan zehaztuta dago indargabetutako hitzarmena duen langile kopurua. Talde horren barruan egongo lirateke haien hitzarmena indargabetu ondoren aurrekoaren ordezkotako hitzarmen berririk edo babesten dituen goragoko mailako hitzarmenik ez duten soldatapeko pertsonak.

4.1.4. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2022AN

2022an murriztu egin zen hitzarmena indargabetuta zuten langileen ehunekoa; ekitaldiaren amaieran % 7,2koa zen, 2012ko lan-erreforma indarrean sartu zenetik ehunekorik baxuena

2022aren amaieran, langileen % 45,4k eguneratuta zituzten haien hitzarmenak (indarraldi betean), % 47,4k luzapen-egoeran zituzten haien akordioak, eta % 7,2k indargabetuta eta estaldurarik gabe zituzten haien hitzarmenak. Hala, 2022aren amaieran, 2012ko lan-erreforma onartu zenetik izandako baxuena izan zen hitzarmenak indargabetuta zituzten langileen ehunekoa.


2022an Industria Siderometalurgikoaren Hitzarmena sinatu zuten Araban, indargabetuta baitzegoen. Horri esker, haien hitzarmena indargabetuta zuten langileen ehunekoa % 7,2ra (43.752 pertsona) jaitsi zen ekitaldiaren amaieran.

2022an zehar haien hitzarmena berri zuten pertsonen ehunekoa (% 18,9) aurreko urteetakoaren antzekoa izan bazen ere, urte hasieran hitzarmenak berri zuten langileen ehunekoa 2019koa eta 2020koa baino baxuagoa zen; ondorioz, hitzarmenak eguneratuta zituzten soldatapeko langileen ehunekoa % 50etik behera kokatu zen berriz ere urte amaieran gure erkidegoan (% 45,4).

Sexuaren araberako banaketari dagokionez, aurreko urtearekin alderatuta, jaitsi egin zen hitzarmenak indarrean zituzten gizonen ehunekoa (2021ean % 51,5 eta 2022an % 49,5). Aldiz, handitu egin zen hitzarmenak eguneratuta zituzten emakumeen ehunekoa: 2021ean % 38,8 eta 2022an % 40.


4.4. GRAFIKOA

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2022AN EAE-N




- Hitzarmena indargabetuta duten eta babesten dituen goragoko mailako beste hitzarmenik ez duten langileak
- 2022an luzatutako hitzarmena duten eta berritzeko zain dauden langileak
- Hitzarmena indarrean duten langileak (eguneratuta)

4.5. GRAFIKOA
EAE-KO LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ETA HITZARMENAREN INDARRALDIAREN
ARABERA (2022KO ABENDUAREN 31KO DATUAK)



4.6. GRAFIKOA
EAE-KO LANGILEEN BANAKETA, EHUNEKOTAN, HITZARMENAREN INDARRALDIAREN ARABERA
(URTE BAKOITZEKO ABENDUAREN 31KO DATUAK)



2022. urtearen hasieran, langileen % 26,5ek eguneratuta zituzten haien hitzarmenak; 2021ean erregistratutako ehunekoaren (% 27,2) oso antzekoa da hori, baina 2020aren hasierakoa (% 37,3) edo 2019koa (% 34,2) baino baxuagoa.

4.5. TAULA
2022. URTEAN ERREGISTRATU ZITUZTEN ETA EAE-N ERAGINA DUTEN HITZARMEN
KOLEKTIBOEN KOPURUA ETA HORIEN ERAGINPEKO PERTSONEN KOPURUA

	ENPRESA		SEKTOREA		GUZTIRA	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK
EAE, guztira	234	36.132	59	80.164	293	116.296
EAEen erregistratutakoak	182	28.656	21	51.488	203	80.144
Araba	34	8.369	5	16.052	39	24.421
Bizkaia	82	9.079	9	22.008	91	31.087
Gipuzkoa	58	9.068	6	10.867	64	19.935
Lurralde artekoak	8	2.140	1	2.561	9	4.701
Estatu mailakoak	52	7.476	38	28.676	90	36.152

2022an zehar 293 hitzarmen erregistratu zituzten. Ondorioz, 116.296 pertsonaren lan-baldintzak berritu ziren. EAEen 203 hitzarmen erregistratu ziren, 21 sektorekoak eta 182 enpresakoak; horiek, guztira, 80.144 pertsonari eragiten diete. EAEen eragina duten estatu mailako hitzarmenei dagokienez, berriz, 90 hitzarmen erregistratu ziren (38 sektorekoak eta 52 enpresakoak), eta 36.152 langileri eragin zieten.

2022an zehar erregistratutako hitzarmen kolektiboen kopurua adierazten du 4.5. taulak, baita horien eraginpeko langile kopurua ere.

4.6. TAULA
2022RAKO INDARRALDI ARRUNTA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN ETA HORIEN ERAGINPEKO
PERTSONEN KOPURUA (2022/12/31)

	ENPRESA		SEKTOREA		GUZTIRA	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK
EAE, guztira	540	79.715	101	194.223	641	273.938
EAEen erregistratutakoak	429	54.525	34	115.936	463	170.461
Araba	86	13.569	8	19.847	94	33.416
Bizkaia	193	20.280	14	44.650	207	64.930
Gipuzkoa	136	18.102	9	43.436	145	61.538
Lurralde artekoak	14	2.574	3	8.003	17	10.577
Estatu mailakoak	111	25.190	67	78.287	178	103.477

2022. urtearen amaieran 641 hitzarmen zeuden indarraldi arruntean, hau da, negoziatzaileek adostutako aplikazio-aldi arruntaren barruan, eta 273.938 langileri eragiten zieten (4.6. taula). 2021eko ekitaldia amaitzean, 610 hitzarmen zeuden indarrean, eta 277.813 pertsonari eragiten zieten.

4.7. TAULA LUZATUTAKO INDARRALDIA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN ETA HORIEN ERAGINPEKO PERTSONEN KOPURUA (2022/12/31)

	ENPRESA		SEKTOREA		GUZTIRA	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK
EAE, guztira	597	68.171	96	218.550	693	286.721
EAEen erregistratutakoak	483	55.804	50	165.368	533	221.172
Araba	82	8.707	12	15.470	94	24.177
Bizkaia	237	20.234	16	93.761	253	113.995
Gipuzkoa	143	14.393	17	35.247	160	49.640
Lurralde mailakoak	21	12.470	5	20.890	26	33.360
Estatu arloa	114	12.367	46	53.182	160	65.549

Indarraldi luzatua duten eta aurreraeraginean dauden hitzarmenen kopurua eta, hortaz, berritzeko zain dauden hitzarmenen kopurua adierazten du 4.7. taulak, baita hitzarmen horien eraginpeko pertsona kopurua ere. 2022aren amaieran 286.721 langile zeuden egoera horretan. Horietatik, 221.172k EAEren barruan negoziatzen zituzten haien hitzarmenak; 65.549 pertsona, aldiz, estatu mailako negoziazioaren mende zeuden.

Hitzarmenak indargabetuta zituzten pertsonen dagokienez (% 7,2), 2020an hasitako jaitzierak jarraipena izan zuen 2022an, Arabako Industria Siderometalurgikoaren Hitzarmena sinatu baitzuten. Hala, 2012an lan-erreforma indarrean sartu zenetik baxuena izan zen hitzarmenak indargabetuta zituzten eta estaldurarik ez zuten langileen ehunekoak.

Dena den, aipatu beharrekoa da oraindik ere 40.000 pertsonak baino gehiagok jarraitzen dutela haien hitzarmena berreskuratu gabe, eta ez dute babestuko dituen goragoko mailako beste hitzarmenik. Kasu askotan, egoera hori ez da aldatu urte askoan; kasu batzuetan, 2013tik. Indargabetutako hitzarmenen artean, honako hauek nabarmendu behar dira, duten garrantziagatik: Bizkaian, bulegoetako hitzarmena; eta, Gipuzkoan, ostalaritzako hitzarmena, bulegoetako hitzarmena eta errepide bidezko garraioarena.


BILAKAERA, EREMU FUNTZIONALAREN ARABERA ENPRESA/SEKTOREA

Langileen % 75,5 sektoreko negoziazioaren mende dago haien lan-baldintzak zehazteko; gainerako % 24,5ek, berriz, enpresa barruan negoziatzen ditu hitzarmenak

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago 2022aren amaieran langileen % 75,5 (456.324 pertsona) sektoreko negoziazioaren mende zeudela haien lan-baldintzak zehazteko, hitzarmenak indargabetuta zituzten langileak barne hartuta. Gainerako % 24,5ek (148.087), berriz, enpresa mailan negoziatzen zituzten hitzarmenak. Ehuneko horiek ez ziren ia aldatu aurreko urtearekin alderatuta.

4.7. GRAFIKOA

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2022AN EAE-N, EREMU FUNTZIONALAREN ARABERA. ENPRESA ETA SEKTOREA



Negoiazio kolektiboaren bilakaera eremu funtzionalaren arabera (enpresa/sektorea) aztertuz gero, 2022aren amaieran enpresako hitzarmenaren eraginpeko langileen % 53,8k eta sektoreko hitzarmenaren eraginpeko langileen % 42,6k haien hitzarmenak eguneratuta zituztela ikus dezakegu.

Enpresako hitzarmenen kasuan, 2021aren amaierako datua baino 7 puntu altuagoa da, orduan % 46,7koa baitzen hitzarmenak indarrean zituzten langileen ehunekoa. Sektoreko hitzarmenen kasuan, berriz, aurreko urtean baino 3 puntu baxuagoa da datua (2021aren amaieran % 45,6).

Halaber, hitzarmenak indargabetuta dituzten ia langile guztiek sektoreko hitzarmena izaten jarraitzen dute, aurreko urtearekin alderatuta horien kopurua murriztu bada ere, aurrez aipatu dugun moduan. 2021ean, sektoreko


hitzarmenen eraginpeko langileen % 12,9k zuten indargabetutako hitzarmena; 2022an, aldiz, % 9,5era jaitsi zen ehuneko hori.

Enpresako eremu funtzionalaren barruan indargabetutako hitzarmenak dituzten pertsonen ehunekoa baxua izateak hainbat arrazoi ditu. Batetik, eremu horretako negoziazioa dinamikoa da. Eta, bestetik, kasurik gehienetan, sektoreko hitzarmenak daude (probintzia edo estatu mailakoak), enpresako hitzarmena indargabetuta duten langileei babesa ematen dietenak.

Hitzarmena indargabetuta duten langile ia guztiak sektoreko hitzarmenen eremukoak dira, horien kopurua murriztu bada ere

4.8. GRAFIKOA

ERREGISTRATUTAKO ENPRESAKO HITZARMEN BERRIAK ETA GAINERAKO ENPRESAKO HITZARMENAK



2013an, lan-erreforma indarrean sartu ondoren, sinatutako enpresako hitzarmen berrien kopurua asko hazi zen, bereziki, 2013 eta 2014an zehar.

Sektoreko hitzarmena indargabetuta zuten langileen zati bat barne hartu zuten hitzarmen berri hauek, baina ez zuten inpaktu handirik izan enplegu mailan. Izan ere, gure enpresa-ehunaren egituraren ETEak gailentzen dira, eta, ondorioz, zaila da enpresako hitzarmenak sinatzearen bidez sektoreko hitzarmenak indargabetuta dituzten langile asko barne hartzea.

Hurrengo urteetan asko murriztu zen erregistratutako enpresako hitzarmen berrien kopurua. 2021ean sinatu ziren mota horretako akordio gutxien: 28 hitzarmen berri baino ez, 1.552 pertsonari estaldura eman zietenak (4.8. grafikoa).

2022an enpresako 35 hitzarmen berri erregistratu zituzten; hala, enpresako hitzarmen berri gutxien sinatu ziren bigarren urtea izan zen 2012az geroztik

2022an enpresako 35 hitzarmen berri erregistratu zituzten, eta horiek 2.858 pertsonari eman zieten estaldura; hala, enpresako hitzarmen gutxien sinatu ziren bigarren urtea izan zen 2012az geroztik.

2022an hitzarmen berri hauek sinatu dituzten enpresen tamaina aztertuz gero, honako hau ikus dezakegu: 860 langile dituen enpresa bakar bat alde batera utzita, gainerako 34 enpresen batez besteko langile kopurua 59 pertsonakoa da, aurreko urteetan akordio berriak erregistratu zituzten enpresen oso antzekoa.

Orokorrean eta ondorio gisa, eremu funtzionalaren arabera, azkeneko urteetan sektoreko negoziazioak pisua irabazi duela esan daiteke, enpresako negoziazioaren aldean. Batez ere, indargabetuta zeuden hitzarmen batzuk berreskuratu izanaren ondorioz gertatu da hori.

Era berean, enpresa mailako negoziazioaren estaldura maila mugatua dela nabarmendu behar da. Izan ere, enpresako hitzarmenen (indarrean eta luzatuak) eraginpeko langileen ehunekoa % 25etik beherakoa izan zen 2022an, azken urteetan bezala.

Azkeneko urteetan sektoreko negoziazioak pisua irabazi du, enpresako negoziazioaren aldean. Batez ere, indargabetuta zeuden sektoreko hitzarmen batzuk berreskuratu izanaren ondorioz gertatu da hori

BILAKAERA, LURRALDEAREN ARABERA


Negoiazio kolektiboaren bilakaera aztertzen badugu, EAEn negoziatutako hitzarmenak eta gure erkidegoan eragina duten estatu mailako hitzarmenak alderatuta, ikus dezakegu lan-erreforma indarrean sartu zenetik 2018ra arte estatu mailako hitzarmenek pisua irabazi zutela EAEn negoziatutako hitzarmenen aurrean. Izan ere, ez berritzearen ondorioz haien hitzarmena galdu zuten soldatapeko langile batzuk estatu mailako hitzarmenaren mende geratu ziren.

Dena den, egoera hori alderantzikatzen hasi zen 2018an eta 2019an, indargabetuta zeuden EAeko hainbat hitzarmen berreskuratu zituztenean, hala nola Eraikinen eta Lokalen Garbiketako Hitzarmena eta Metalaren Merkataritzako Hitzarmena, Bizkaian; 2022an, berriz, Industria Siderometalurgikoaren Hitzarmena sinatu zuten Araban, indargabetuta baitzegoen.

Hortaz, gure negoziazio arlo propioak berreskuratzeko prozesua sendotu egin zen 2022an. EAEn negoziatutako hitzarmenen (indarrean eta luzatuta) eraginpeko pertsona kopurua 10.000 pertsona baino gehiago hazi zen aurreko urtearekin alderatuta, eta 391.633 pertsonara iritsi zen. Aldiz, EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenen eraginpeko langile kopurua 5.000 pertsona baino apur bat gutxiago hazi zen, eta ekitaldiaren amaieran 169.026 pertsona ziren.

4.9. GRAFIKOA

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ERAGINPEKO PERTSONA KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N (ABENDUAREN 31KO DATUAK)



Gure negoziazio kolektiboko arlo propioen berreskuratzea sendotu egin zen 2022an

Eremu horiek 2022an izandako bilakaerari dagokionez, 4.10. grafikoan ikus daiteke EAEn negoziatutako hitzarmenek eta EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenek zer egoera zuten urte hasieran eta ekitaldiaren amaieran.

Negoiazio kolektiboaren aurrerapena antzekoa izan da EAEn eta estatuan, eta hitzarmenak berriro dituzten langileen ehunekoa antzekoa izan da bi eremuetan: % 18,3 EAEn kasuan eta % 20,5 estatuaren kasuan. Dena den, estatu mailako negoziazioaren eraginpeko langileen % 40,4k haien hitzarmenak berriro hasi zuten urtea eta, horren ondorioz, urtea hitzarmenak eguneratuta amaitu zuten langileen kopurua askoz altuagoa da estatuko kasuan (% 60,9), EAEn baino (% 39,3).

4.10. GRAFIKOA**HITZARMENA INDARREAN, LUZATUTA EDO INDARGABETUTA ZUTEN LANGILEAK, 2022KO URTARRILAREN 1EAN ETA ABENDUAREN 31N, EREMUAREN ARABERA**

Jarraian, lurralde eremu bakoitzeko negoziazio kolektiboaren egoera laburbilduko dugu¹⁵. Kapitulu honen amaierako eranskinean sektoreko hitzarmenen zerrenda bat topa daiteke, baita 2022ko abenduaren 31n zuten egoera ere.

Araba

Arabaren, ekitaldiaren amaieran, indarrean zegoen hitzarmen kolektibo baten eraginpean zeuden langileen % 54,7; ehuneko hori askoz ere altuagoa zen 2021eko abenduan erregistratutakoa baino (% 21,6). Lurralde honetan sektoreko bost hitzarmen erregistratu dira, 16.052 pertsonari baino zerbait gehiagori eragiten dietenak; eta enpresako 34 hitzarmen, ia 8.369 langileri eragiten dietenak.

Sektoreko hitzarmenen barruan, duten garrantzia dela eta, honako hauek aipatu behar dira: Industria Siderometalurgikoaren Hitzarmena, aurrez aipatu duguna eta 12.500 langileri baino gehiagori eragiten diena; eta Eraikinen eta Lokalen Garbiketako Hitzarmena, 2.800 pertsonari baino gehiagori eragiten diena.

Bizkaia

Bizkaiari dagokionez, urtearen amaieran langileen % 33,6k zuten haien hitzarmena eguneratuta. Ehuneko hori baxuagoa da 2021ekoa (% 45) eta 2020koa (% 63,8) baino. Guztira, 82 enpresako hitzarmen erregistratu zituzten 2022an, 9.079 langile babesten zituztenak, eta sektoreko 9 hitzarmen, 22.000 pertsona ingururi eragiten zietenak. Honako hitzarmen hauek nabarmendu ziren, horien eraginpeko langile kopurua dela eta: Eraikinen eta Lokalen Garbiketako Hitzarmena, 12.000 pertsonari baino gehiagori eragiten diena, eta Errepide Bidezko Garraioarena, ia 6.000 pertsonari eragiten diena.

Urtea amaitzean indargabetuta zeuden sektoreko hitzarmenen kasuan, Bulegoetako Hitzarmena nabarmentzen jarraitu behar dugu, duen garrantzia dela eta.

Gipuzkoa

Gipuzkoa zen urtearen hasieran hitzarmenak berrituta zituzten langileen ehunekorik handiena zuen lurraldea, batez ere, 2020an Industria Siderometalurgikoan lortutako akordioagatik. 2022aren amaieran soldatapeko langileen % 45,2k zuten haien hitzarmena indarrean, 2021ean baino apur batek gehiagok (% 43,9).

2022an zehar 58 enpresako hitzarmen erregistratu ziren, 9.000 pertsonari baino apur bat gehiagori estaldura ematen zietenak, eta 6 sektoreko hitzarmen, ia 11.000 langile babesten zituztenak. Eraikuntza eta Obra Publikoetako Hitzarmena eta Ostatuen Hitzarmena izan ziren garrantzitsuenak, eraginpeko ia 7.000 eta ia 2.000 langilerekin, hurrenez hurren.

¹⁵ Lurralde historiko bakoitzeko (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eraginpeko pertsonak kalkulatzeko, eremu horietako bakoitzean erregistratutako hitzarmenen eraginpeko langileak bakarrik hartu ditugu kontuan. Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan lan egiten duten eta lurralde arteko hitzarmen baten edo estatu mailako hitzarmen baten eraginpean dauden pertsonak bi eremu horietako baten barruan sartzen dira.

Dena den, indargabetutako sektoreko hitzarmen ugari daude lurralde honetan. Honako hauek nabarmendu behar dira, langile asko hartzen baitituzte haien baitan: Bulegoetako Hitzarmena, Ostalaritzakoa eta Metalaren Merkataritzakoa. Dena den, azken kasu horretan, Merkataritza Orokorreko Hitzarmenaren babespean daude gaur egun langileak, goragoko mailakoa baita hitzarmen hori.

EAEko lurralde arteko eremua

Lurralde arteko negoziazioari dagokionez, urtearen hasieran hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehunekoa oso baxua zen (% 13,4), eta urtearen amaieran langileen % 24,1ek bakarrik zituzten indarrean haien hitzarmenak.

EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeetako Hitzarmen Kolektiboaren indarraldi arrunta 2021ean amaitu zen, eta une honetan luzapen-egoeran dago; hori erabakigarria izan da estaldura maila baxu horretan. Nolanahi ere, eremu honetan inork ere ez du haren hitzarmena indargabetuta izaten.

EAEen eragina duten estatu mailako hitzarmenak

EAEen eragina duten estatu mailako hitzarmenei dagokienez, ekitaldiaren amaieran, hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehunekorik altuena zuen eremua izan zen (% 60,9). 2021ean (% 55,5) baino ehuneko altuagoa eskuratu zuen, baina 2020an (% 66,4) baino baxuagoa. Aldiz, hitzarmenak indargabetuta zituzten langileen ehunekoa % 0,6an mantendu zen.

2022an zehar, 38 sektoreko hitzarmen eta 52 enpresako hitzarmen erregistratu zituzten, eraginpeko 28.676 eta 7.476 pertsonarekin, hurrenez hurren.

Eremu honetan erregistratutako hitzarmenen artean, Saltoki Handien Hitzarmena nabarmendu behar da, ia 7.000 langilerekin, eta Ile-apaindegi, apaindegi eta gimnasioena, 2.400 langile baino gehiagorekin.

4.11. GRAFIKOA

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA 2022AN EAE-N, LURRALDE EREMUAREN ARABERA



- Hitzarmena indargabetuta duten eta babesten dituen goragoko mailako beste hitzarmenik ez duten langileen ehunekoa
- 2022an luzatutako hitzarmena zuten eta berritzeko zain zeuden langileen ehunekoa
- Hitzarmena indarrean duten langileen ehunekoa

4.1.5. 2022RAKO NEGOZIAZIOAREN EMAITZAK

NEGOIAZIO PROZESUEN IRAUPENA

Txosten hau egiteko, negoziazio-mahaia eratzen denetik erregistratutako hitzarmen kolektiboa sinatzen den egunera arteko aldia hartu dugu negoziazio-prozesuaren iraupen gisa.

Irizpide horrekin, EAEn negoziatutako hitzarmenen kasuan eta EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenen kasuan negoziazio-prozesuek izandako iraupenari buruzko informazioa eskainiko dugu.

EAEn negoziatu ziren eta 2022an indarrean zeuden hitzarmenen negoziazio-prozesuen iraupena 288 egunekoa izan zen (4.8. taula), aurreko urtekoa baino laburragoa (295 urte).

Sektoreko hitzarmenen negoziazioaren iraupena 175 egun murriztu zen (2022an 496 egun eta 2021ean 671). Enpresako hitzarmenen kasuan, berriz, negoziazio-denbora ia berdin mantendu zen (2022an 272 egun eta 2021ean 273).

4.8. TAULA

EAEN NEGOZIATUTAKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN NEGOIAZIO-PROZESUEN IRAUPENA (EGUNAK BATEZ BESTE) *

	URTE HONETAN ERREGISTRATUAK:		URTE HONETAN INDARREAN ZEUDEN GUZTIAK:	
	2021	2022	2021	2022
Guztira	339	286	295	288
Sektorekoak	677	530	671	496
Enpresakoak	313	258	273	272

Urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak.

EAEn negoziatutako eta 2022an erregistratutako hitzarmenei dagokienez, negoziazio-prozesuen batez besteko iraupena 53 egun murriztu zen, eta 9 hilabete pasatxoan kokatu zen (286 egun). Azken urteetan asko jaitsi da sektoreko hitzarmenen negoziazioaren iraupena: 677 egunekoa izan zen 2021ean erregistratutako hitzarmenen kasuan, eta 1.183 egunekoa 2020an gure erkidegoan negoziatu ziren sektoreko hitzarmenen kasuan.

2021ean erregistratutako hitzarmenen negoziazio-prozesuen batez besteko iraupena 339 egunekoa izan zen


Dena den, aipatu beharrekoa da 2020an erregistratutako sektoreko hitzarmenen negoziazio-denbora (hiru urte baino gehiago), batez ere, Bizkaiko Industria Siderometalurgikoko Hitzarmena negoziatzeko prozesuaren ondorioa izan zela, denbora luze batean geldu egon baitzen, aurrerapen gutxirekin. Izan ere, 2020an erregistratutako gainerako sektoreko hitzarmenen negoziazioaren iraupena askoz ere laburragoa izan zen.

Orokorrean, sektoreko negoziazio-prozesuen iraupenak luzea izaten jarraitzen du (4.12. grafikoa). 2022an EAEko sektoreko negoziazioan aurrerapen handia erregistratu bazen ere, 2008ko krisiaren aurreko batezbestekotik (250 egun baino gutxiago) urrun gaude oraindik ere.

EAEen negoziatutako sektoreko hitzarmenen negoziazio-prozesuen iraupenak luzea izaten jarraitzen badu ere, 2022an asko murriztu zen, eta batez beste 496 egunean kokatu zen

4.12. GRAFIKOA

EAEN URTE BAKOITZEAN SINATU DIREN ETA INDARREAN DAUDEN SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN NEGOZIAZIO-PROZESUEN BATEZ BESTEKO IRAUPENA



EAEen eragina duten estatu mailako hitzarmenen kasuan ere asko jaitsi da negoziazio-prozesuen iraupena: 273 egunekoa izan zen 2022an indarrean zeuden hitzarmenen kasuan, eta 319 egunekoa 2021ean erregistratutakoen kasuan.

EAEen eragina duten estatu mailako hitzarmenak dira negoziazio-prozesurik laburrenak dituztenak, eta 2021arekiko alderik handiena izan dutenak.

Estatu mailako enpresako hitzarmenen negoziazio-prozesuen batez besteko iraupena 147 egunekoa baino ez da, eta 266 egunekoa sektoreko hitzarmenen kasuan. 2022an erregistratutako eta EAEen eragina duten estatu mailako hitzarmenen kasuan, berriz, 197 egunekoa da iraupena, sei hilabete pasatxokoa.

4.9. TAULA**EAEN ERAGINA DUTEN ETA ESTATU MAILAN NEGOZIATUTAKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN NEGOIAZIO-PROZESUEN IRAUPENA (EGUNAK BATEZ BESTE) ***

	URTE HONETAN ERREGISTRATUAK:		URTE HONETAN INDARREAN ZEUDEN GUZTIAK:	
	2021	2022	2021	2022
Guztira	309	197	319	273
Sektorekoak	345	266	353	327
Enpresakoak	288	147	300	240

Urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak.

Estatu mailan eta EAEn negoziatutako hitzarmenen negoziazio-prozesuen iraupenari dagokionez, sektoreko hitzarmenen kasuan ematen dira alde handienak; negoziazio-prozesuak askoz ere luzeagoak dira gure erkidegoan. Enpresako hitzarmenen kasuan, berriz, aldea txikiagoa da.

HITZARMENEN DENBORA EREMUA***Hitzarmen gehienak bi urtetik gorako indarraldirako negoziatzen dira oraindik ere***

Indarrean dauden hitzarmen gehienak urte baterako baino gehiagorako negoziatzen dira, baina akordio mota horien eraginpeko langileen ehunekoa murriztu egin da aurreko urtetik.

Hala, 2022an indarrean zeuden hitzarmen kolektiboen % 91,6 (eraginpeko pertsonen % 90,8) urte baterako baino gehiagorako adostu zituzten. 2021ean, berriz, urtebete baino gehiagorako negoziatutako hitzarmenen ehunekoa % 95,4koa izan zen eta hitzarmenak indarrean zituzten langileen % 94,7ri eragin zien.

Hitzarmenen % 81,1ean, bi urterako baino gehiagorako adosten da indarraldia. Pertsonen dagokienez, % 83,2koa da ehunekoa.

4.10. eta 4.11. tauletan ikus daitekeen moduan, urte bat baino gehiagorako hitzarmen kolektiboak gailentzen dira lurralde eremu eta eremu funtzional (enpresa/sektorea) guztietan.

4.10. TAULA**2022 INDARREAN ZEUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN DENBORA EREMUA, LURRALDEKA**

	URTEBETE		URTEBETE ETA BI URTE ARTEAN		BI URTE BAINO GEHIAGO	
	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK	HITZARMENAK	ERAGINPEKO PERTSONAK
EAE, guztira	% 8,4	% 9,2	% 10,5	% 7,6	% 81,1	% 83,2
EAEn erregistratutakoak	% 6,5	% 4,1	% 11,0	% 3,5	% 82,5	% 92,4
Araba	% 2,1	% 1,0	% 12,8	% 2,7	% 85,1	% 96,3
Bizkaia	% 9,2	% 4,7	% 11,1	% 3,2	% 79,7	% 92,0
Gipuzkoa	% 4,8	% 1,3	% 10,3	% 4,8	% 84,8	% 93,9
Lurralde artekoak	% 11,8	% 25,3	% 5,9	% 0,3	% 82,4	% 74,4
Estatu mailakoak	% 13,5	% 17,7	% 9,0	% 14,3	% 77,5	% 68,0

(*) 2022ko abenduaren 31 arte. Lurralde eremu bakoitzeko guztizkoaren gaineko ehunekoak.

4.11. TAULA**2022 INDARREAN ZEUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN DENBORA EREMUA (EREMU FUNTZIONALA)**

	URTEBETE		URTEBETE ETA BI URTE ARTEAN		BI URTE BAINO GEHIAGO	
	HITZARMENAK (%)	ERAGINPEKO PERTSONAK (%)	HITZARMENAK (%)	ERAGINPEKO PERTSONAK (%)	HITZARMENAK (%)	ERAGINPEKO PERTSONAK (%)
Guztira	% 8,4	% 9,2	% 10,5	% 7,6	% 81,1	% 83,2
Sektorekoak	% 13,9	% 11,2	% 6,9	% 5,5	% 79,2	% 83,4
Enpresakoak	% 7,4	% 4,5	% 11,1	% 12,8	% 81,5	% 82,8

(*) 2022ko abenduaren 31 arte. Eremu funtzional bakoitzeko guztizkoaren gaineko ehunekoak.

Bestetik, indarraldi mugagabeko hiru hitzarmen sektorial daude Gipuzkoan: Paperaren Fabrikazioa, Eraikuntza eta Arte Grafikoak. Hitzarmen horietan, gai batzuk urtero negoziatzen dira, hala nola soldata-igoerak eta lanaldia. Beste alderdi batzuk, berriz, ez dira aldatzen, esaterako, sailkapen profesionala, zehapen-erregimena...


Hortaz, hitzarmen horiei dagokienez eta txosten hau egiteko, gai nagusietarako (soldata-igoerak eta lanaldia) adostutako aldiaren arabera hartu dugu kontuan horien indarraldia.

4.13. grafikoan ikus daitekeen moduan, duela hogeitiki baino gehiagotiki, hiru urte edo gehiagorako sinatutako hitzarmenak gailentzen dira. 2011 eta 2014 artean apur bat murriztu zen hiru urterako edo gehiagorako hitzarmenen pisua, eta bi urteko edo urtebeteko indarraldia zuten hitzarmenak areagotu egin ziren. Gero, 2015ean, berriz ere hazi zen hiru urterako edo gehiagorako hitzarmenen pisua.

Dena den, 2021ekin alderatuta, 2022an hazi egin zen urtebeteko indarraldia zuten hitzarmenen kopurua, baita horien eraginpeko langile kopurua ere.

2021ean, hitzarmena indarrean zuten langileen % 5,31 babesten zuten urtebeteko indarraldia zuten hitzarmenek; bi urteko indarraldia zutenek, % 7,73; eta, hiru urterako edo gehiagorako hitzarmenek, % 86,96. 2022an, berriz, ehuneko horiek % 9,2, % 7,6 eta % 83,2koak izan ziren, hurrenez hurren.

4.13. GRAFIKOA

EAEN ERAGINA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN DENBORA EREMUAREN BILAKAERA (URTE BAKOITZEAN INDARREAN DAUDEN HITZARMEN GUZTIEN GAINEKO %)**2022aren hasieran, langileen % 26,1ek berrituta zuten haien hitzarmena**

Urte baterako baino gehiagorako hitzarmenak negoziatzea da azken urteetako negoziazio kolektiboaren ezaugarrietako bat. Hori dela eta, kontuan hartu behar da 2023aren hasierarako urte horretako negoziazio kolektiboaren zati bat eginda zegoela.

Urtarrilaren 1ean, luzatuta eta berritzeko zain edo indargabetuta zeuden 967 hitzarmen, guztizkoaren % 71,2; eta horiek, langileen % 73ri eragiten zieten (441.689 pertsona). 2022aren hasieran, hitzarmena luzatuta edo indargabetuta zuten langileen ehunekoa % 73,5ekoa zen, eta 2021ean % 72,8koa.

EAEn garatzen den negoziazioari dagokionez, 2023aren hasieran 328.430 langilek zuten haien hitzarmena luzatuta edo indargabetuta (eremu horretako langileen % 76,1ek). Aldiz, estatu mailako hitzarmenen eraginpeko pertsonen % 65,5 zegoen hitzarmena berritzeko zain edo hitzarmena indargabetuta (113.259 pertsonak).

2023rako 390 hitzarmen zeuden indarrean (hainbat urtetarako indarraldia), eta horiek 162.909 pertsonari eragiten diete, guztizkoaren % 27ri.

Aurreko urtearekin alderatuta, urtearen hasieran hitzarmena berrituta zuten langileen ehunekoa asko hazi da Araban (2022an % 14,8 eta 2023an % 49,8), Arabako Industria Siderometalurgikoko Hitzarmena sinatu izanari esker. Gipuzkoan, berriz, alderantzizkoa gertatu da: 2022an % 30,4 izatetik 2023an % 14,1 izatera murriztu da; batez ere, Gipuzkoako Industria Siderometalurgikoko Hitzarmenaren indarraldi arrunta amaitu izanaren ondorioz gertatu da hori.

Eremu funtzionalaren arabera, enpresa eremuko negoziazioa aurreratuago dago sektorekoa baino. Hala, enpresako hitzarmenen eraginpeko langileen % 35ek eguneratuta zituzten haien akordioak 2023aren hasieran. Aldiz, sektoreko hitzarmenen eraginpeko langileen % 24,3k bakarrik zituzten haien akordioak negoziatuta 2023aren hasierarako.

SOLDATA IGOERAK

2022an itundutako batez besteko soldata-igoera % 4,08koa izan zen EAEn, eta % 2,78koa estatuan

2022an EAEn indarrean zeuden hitzarmenetan itundutako batez besteko soldata-igoera, EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenak barne hartuta, % 4,08koa izan zen, estatuko hitzarmen kolektiboetan itundutako batez besteko soldata-igoera (% 2,78)¹⁶ baino 1,3 puntu handiagoa.


2022ko soldata-igoerak % 4tik gorakoak izan ziren lurralde eremu guztietan, EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenen kasuan eta lurralde arteko hitzarmenen kasuan izan ezik. Hala, Gipuzkoa nabarmendu zen, eremu horretan negoziatutako indarrean dauden hitzarmenen soldata-igoera % 5,76koa izan baitzen.

Eremu funtzionalaren arabera, soldata-igoerak handiagoak izan ziren enpresako hitzarmenetan (% 4,67), sektoreko hitzarmenetan baino (% 3,86). Aldiz, kontrakoa gertatu zen EAEn negoziatutako indarrean dauden hitzarmenekin, igoerak zerbait handiagoak izan baitziren sektoreko akordioen kasuan (% 4,81), enpresako hitzarmenen kasuan baino (% 4,77).

2022an erregistratutako hitzarmenen batez besteko soldata-igoera % 4,08koa izan zen: % 3,83koa sektoreko akordioen kasuan, eta % 4,67koa enpresako hitzarmenen kasuan.

¹⁶ Estatu osorako itundutako soldata-igoera, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak 2022ko urtarrilaren 31n emandako informazioaren arabera.

4.14. GRAFIKOA

INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA-IGOERAK.EAE/ESTATUA¹⁷

Iturria: LHK eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

KPIaren bilakaeraren arabera soldata berrikusteko edo bermatzeko klausulek 0,03 puntuko eragina baino ez dute izan batez besteko soldata-igoeran (% 4,08). Hortaz, klausula horien eragina alde batera utziko bagenu, batez besteko soldata-igoera % 4,05ekoa izango litzateke.

Zentzu horretan, duela urte batzuetatik, gero eta gehiago hedatu dira enpresako helburuak betetzearekin lotutako baldintzak dituzten berrikuspen-klausulak, eta ezin dugu horien eragina ezagutu. Aldiz, murriztu egin dira erreferentzia gisa KPIaren bilakaera bakarrik hartzen duten soldata bermatzeko ohiko klausulak.


Soldata-igoeren bilakaera baloratzeko, azken urteetako EAEko urte arteko inflazioa (abenduan) erakusten du 4.15. grafikoak, baita KPIaren urteko batez besteko igoera ere. 2022an, hitzarmenetan adostutako batez besteko igoera baxuagoa izan zen 2022ko abenduko urte arteko inflazioa baino (EAEn % 5,4 eta estatuan % 5,7) eta urte osoan erregistratutako batez besteko inflazioa baino (EAEn % 8,0 eta estatuan % 8,4).

2018an, 2019an eta 2020an inflazio-tasak baxuak izan ziren eta, horri esker, soldata-igoerak altuagoak izan ziren inflazioa baino. Dena den, 2021ean eta 2022an prezioak igo izanaren ondorioz, 2021ean eta 2022an negoziazio kolektiboaren bidez itundutako soldata-igoerak KPIa baino dezente beherago kokatu ziren.

¹⁷ Estatu osorako soldata-igoera. Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak erreferentziazko urtearen hurrengo ekitaldiko urtarilaren 31n emandako informazioaren arabera.


4.15. GRAFIKOA

EAE-N ERAGINA DUTEN HITZARMEN KOLEKTIBOETAN ITUNDUTAKO SOLDATA-IGOEREN BILAKAERA



4.16. GRAFIKOA

EAE. KPI-AREN URTE ARTEKO IGOERA, ABENDUAN, ETA KPI-AREN URTE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKO IGOERA



4.12. TAULA
2021 ETA 2022RAKO ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK*


	SOLDATA IGOERA	
	2021	2022
EAE, guztira	% 1,23	% 4,08
EAEn negoziatuak	% 1,16	% 4,80
Araba	% 2,63	% 4,78
Bizkaia	% 1,34	% 4,29
Gipuzkoa	% 0,57	% 5,76
Lurralde artekoak	% 1,25	% 2,39
Estatu mailakoak	% 1,37	% 2,89

* Urte bakoitzeko abenduaren 31ko datuak.

** EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenen igoera.

EAE barruan, gure erkidegoan negoziatutako hitzarmenak eta EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenak bereizten baditugu, aldeak ikusten dira: % 4,80 lehengo kasuan eta % 2,89 bigarren kasuan (ikusi 4.12. taula).

4.17. GRAFIKOA
EAE-N INDIRREAN DAUDEN HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA-IGOERAK. ENPRESA/SEKTOREA



Eremu funtzionalen araberako (enpresa/sektorea) analisiak erakusten duenez, 2022an igoera handiagoak izan zituzten enpresako hitzarmenen kasuan, bai EAEn negoziatutako hitzarmenetan (batez besteko % 4,67 igoera enpresa-hitzarmenetan, eta % 3,86koa sektorekoetan), bai EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenetan (% 3,22 enpresa-hitzarmenetan eta % 2,75 sektorekoetan).

2022an, EAEko soldata-igoerak baxuagoak izan ziren sektoreko hitzarmenetan (% 3,86), enpresako hitzarmenetan baino (% 4,67)

**4.13. TAULA
EAE-N ETA ESTATUAN INDARREAN DAUDEN HITZARMENEN SOLDATA-IGOERAK,
EREMU FUNTZIONALAREN ARABERA***

	EAE					ESTATUA				
	2018	2019	2020	2021	2022	2018	2019	2020	2021	2022
Guztira	1,86	2,00	1,69	1,23	4,08	1,75	2,33	1,89	1,47	2,78
Sektorekoak	1,97	2,07	1,70	1,01	3,86	1,77	2,35	1,91	1,50	2,75
Enpresakoak	1,59	1,79	1,66	1,92	4,67	1,38	1,94	1,60	1,10	3,22

* Estatu osorako itundutako soldata-igoera, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak hurrengo ekitaldiko urtarillaren 31n emandako informazioaren arabera.

Iturriak: LHK eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

Hitzarmenetan soldata-igoerak ezartzeko erabilitako formulari dagokionez, hitzarmenak eguneratuta dituzten langileen (273.938 pertsona) banaketa erakusten du 4.14. taulak, negoziazio kolektiboko akordioek 2022rako igoerak erakusteko duten moduaren arabera.

Hala, langileen % 58,4k 2022rako igoera finkoa zuten ezarrita haien hitzarmenetan. % 30,4k 2021eko KPIaren arabera soldata-igoera zuten ezarrita 2022rako, eta % 3,3rentzat 2022ko KPIaren datuak baldintzatzen zuen igoera. Gainerako % 7,9k soldata-igoerak hainbat parametroren arabera berrikustea zuen hitzartuta (2022ko KPIa gehieneko mugekin, etekinak, BPGaren bilakaera, etab.).

**4.14. TAULA
HITZARMENAK INDARREAN DITUZTEN LANGILEEN BANAKETA, 2022RAKO ADOSTUTAKO
SOLDATA IGOERA APLIKATZEKO FORMULAREN ARABERA**

Igoera finkoa	% 58,4
2021eko KPIaren arabera	% 30,4
2022ko KPIaren arabera	% 3,3
Hainbat parametroren arabera	% 7,9

Enpresa-hitzarmen batzuetan ezin dugu igoera ezagutu, etekinen, salmenten... arabera delako. Eta, hortaz, ezin ditugu kontuan hartu soldata-igoera kalkulatzeko. "Hainbat parametroren arabera" atalean sartu ditugu hitzarmen mota horiek sinatu dituzten langileak, baita hitzarmena indarrean duten baina zer soldata-igoera izango duten ez dakigun langileak ere.

Era berean, KPIaren arabera igoerez ari garenean, honakoa zehaztu behar da: aplikatu beharreko soldata-igoera abenduko urte arteko KPIa izan daiteke, zuzenean; edo, data horretako KPIa, baina diferentzial bat batuta edo kenduta, adibidez, KPI+0,5 edo KPI-0,5.

4.15. TAULA**EAE-N ERAGINA DUTEN HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA-IGOEREN BILAKAERA (*)**

	NEGOZIAZIO KOLEKTIBOKO SOLDATA IGOERAK		
	Erreferentziako urtea baino lehen erregistratutako hitzarmenetan	Erreferentziako urtean erregistratutako hitzarmenetan	Indarrean dauden hitzarmen guztietan
2008	4,47	4,37	4,44
2009	2,59	2,69	2,60
2010	2,36	1,80	2,12
2011	3,50	2,70	3,16
2012	2,67	1,24	2,18
2013	1,33	0,76	0,93
2014	0,73	0,47	0,65
2015	0,58	0,68	0,62
2016	0,98	1,05	1,01
2017	1,32	1,68	1,48
2018	1,45	2,15	1,86
2019	1,88	2,25	2,00
2020	1,76	2,25	2,00
2021	1,29	2,25	2,00
2022	4,08	4,08	4,08

* Urte bakoitzeko abenduaren 31 arte erregistratutako hitzarmenak.

EAEko abenduko urte arteko inflazioa (% 5,4) eta batez besteko inflazioa (% 8,0) baino baxuagoa izan da hitzarmenetan itundutako batez besteko soldata-igoera (% 4,08)

Azkenik, 2022rako itundutako igoerei dagokienez, ez dago alderik 2022an erregistratutako hitzarmenetan urte horretarako itundutako batez besteko igoeraren eta aurreko urteetan erregistratutako akordioetan 2022rako adostutako soldata-igoeraren artean.

LANALDIA

2022rako itundutako batez besteko lanaldia 1.687 ordukoa izan zen EAEn aplikagarriak ziren eta indarrean zeuden hitzarmenetan, eta 1.736 ordukoa estatuan

Indarrean zeuden eta baldintzak eguneratuta zituzten hitzarmenetan, 2022rako itundutako batez besteko lanaldia 1.687 ordukoa izan zen EAEn. Aurreko urteetan bezala, alde nabarmenak izan ziren negoziazio propioaren (1.679 ordu) eta EAEn eragina duten estatuko hitzarmenen (1.703 ordu) artean.

Sektoreko hitzarmenen kasuan, EAEn 2022rako itundutako urteko batez besteko lanaldia 1.692 ordukoa izan zen eta, enpresako hitzarmenen kasuan, 1.676 ordukoa (4.16. taula). Estatuan, 2022rako itundutako batez besteko lanaldia 1.738 ordukoa izan zen sektoreko hitzarmenen kasuan, eta 1.703 ordukoa enpresa-hitzarmenen kasuan.

4.16. TAULA

2022AN INDARREAN ZEUDEN HITZARMENETAN ITUNDUTAKO LANALDIAREN IRAUPENA EAE-N ETA ESTATUAN (URTEKO ORDU KOPURUA)

	2022	
	EAE	ESTATUA (*)
Guztira	1.687	1.736
Sektorekoak	1.692	1.738
Enpresakoak	1.676	1.703

(*) Ministerioak 2022ko urtarrilaren 31n emandako informazioa.

Iturriak: LHK eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

2022an, aurreko urtearekin alderatuta, EAEn gutxitu egin zen lanaldia murriztea aurreikusten zuten hitzarmenen kopurua, baita murrizketa horren eraginpeko pertsonen ehunekoak eta murrizketaren zenbatekoa ere

EAEn negoziatu ziren eta 2022an indarrean zeuden hitzarmenen artetik, aurreko urteko lanaldia murriztea aurreikusten zuten % 9,9k (4.17. taula), eta horrek hitzarmena indarrean zuten langileen % 10,7ri eragiten zien.

Aurreko urtearekin alderatuta, gutxitu egin zen lanaldia murriztea aurreikusten zuten hitzarmenen kopurua, baina gora egin zuen horren eraginpeko pertsonen ehunekoak eta apur bat hazi zen murrizketaren zenbatekoa.

4.17. TAULA**INDARREAN DAUDEN ETA AURREKO URTEKO BAINO LANALDI LABURRAGOIA DUTEN HITZARMENEN ETA HORIEN ERAGINPEKO PERTSONEN EHUNEKOIA**

	2020		2021		2022	
	Hitzarmenak %	Eraginpeko pertsonak %	Hitzarmenak %	Eraginpeko pertsonak %	Hitzarmenak %	Eraginpeko pertsonak %
EAEn negoziatutako hitzarmenak	14,9	8,3	12,5	6,3	9,9	10,7

Lanaldi-murrizketaren zenbatekoari dagokionez, 2022an batez beste 45 minutukoa izan zen (0,75 ordu), aurreko urtean erregistratutako murrizketaren antzekoa: 46 minutu (0,77 ordu).

4.18. TAULA**ITUNDUTAKO LANALDIAREN MURRIZKETA. URTEKO ORDU KOPURUA**

	2020KO LANALDIA, 2019AREKIN ALDERATUTA	2021EKO LANALDIA, 2020AREKIN ALDERATUTA	2022KO LANALDIA, 2021AREKIN ALDERATUTA
EAEn erregistratutakoak	0,92	0,77	0,75

4.1.6. 2022AN INDARREAN ZEUDEN HITZARMEN KOLEKTIBOEN ERAKUNDE NEGOZIATZAILEAK ETA SINATZAILEAK

Erakunde sindikalak


CCOOk eta UG Tk jarraitzen dute hitzarmen gehien sinatzen dituzten sindikatuak izaten, negoziazio-mahaietan duten presentzia kontuan hartuta

Jarraian, erakunde sindikalek 2022an indarraldi arruntean zeuden eta EAEn negoziatu ziren hitzarmenen negoziazio-mahaietan eta sinaduran izandako presentziaren gaineko informazioa emango dugu.

Hortaz, atal honetako analisirako, kanpoan utziko ditugu EAEn eragina duten estatu mailako hitzarmenak. Hirugarren atalean aztertutako datuen arabera, 2022an 463 hitzarmen erregistratu zituzten EAEn eta horiek indarrean zeuden (kanpoan utzi ditugu luzapen-egoeran eta indargabetuta zeudenak). Aipatutako hitzarmenek 170.461 pertsonari eragiten zieten.

Lau sindikaturik garrantzitsuenek 2022an indarrean zeuden hitzarmenetan izandako presentziaren eta sinaduraren arteko aldeak jasotzen dituzte 4.18. (hitzarmen kopurua) eta 4.19. (pertsona kopurua) grafikoek.

2022an indarrean zeuden hamar hitzarmenetik ia zazpi sinatu zituen ELAk, eta horiek langileen % 51,1ri eragin zieten (2021ean % 52,6ri); hitzarmen horiek negoziazio kolektiboaren mendekoak ziren, eta EAEn erregistratutakoak.

4.18. GRAFIKOA**GEHIENGOA DUTEN ERAKUNDE SINDIKALEN PRESENTZIA ETA SINADURA INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAN* (HITZARMEN KOPURUA)**


* EAEn negoziatutako hitzarmenak, 2022an indarraldi arrunta zutenak.

ELAk sinatutako hitzarmen guztien artetik, % 96,1 enpresako hitzarmenak dira eta % 3,9 sektoreko hitzarmenak. Sindikatu honek sinatutako 12 sektore-hitzarmenek babesa eman zieten EAEn negoziatutako eta indarreko sektore-hitzarmenak zituzten langileen % 45,2ri. Aldiz, ELAk sinatutako 292 enpresa-hitzarmenek babesa eman zieten gure erkidegoan negoziatutako indarreko enpresa-hitzarmenek zituzten langileen % 63,8ri.

ELAk sinatutako hitzarmenen ehunekoa, negoziazio-mahaietan duen presentziarekiko, % 84,7koa izan zen 2022an (2021ean % 84).

Indarreko hamar hitzarmenetik hiru sinatu zituen LABek, eta hitzarmen horiek eraginpeko pertsonen % 63,5i eman zieten babesa (2021ean % 69,3ri). 18 sektoreko hitzarmen sinatu zituen, 85.003 soldatapeko langileri babesa eman zietenak (EAEn negoziatutako indarreko sektore-hitzarmenak zituzten langileen % 73,3); eta 131 enpresa-hitzarmen, 23.200 langileri estaldura eman zietenak (EAEn negoziatutako indarreko enpresa-hitzarmenak zituzten langileen % 42,5).

4.19. GRAFIKOA

GEHIENGOA DUTEN ERAKUNDE SINDIKALEN PRESENTZIA ETA SINADURA INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAN * (ERAGINPEKO PERTSONAK)

* EAEn negoziatutako hitzarmenak, 2022an indarraldi arrunta zutenak.

CCOOk 137 hitzarmen sinatu zituen, indarreko hitzarmen guztien % 29,6, eta hamar pertsonatik ia zortziri eragiten zieten horiek. 26 sektoreko hitzarmen sinatu zituen, 111.759 langileri babeska eman zietenak (gure erkidegoan negoziatutako sektore-hitzarmenak zituzten langileen % 96,4); eta 111 enpresa-hitzarmen, 22.066 langileri estaldura eman zietenak (EAEn negoziatutako indarreko enpresa-hitzarmenen eraginpeko langileen % 40,5).

Aztertu ditugun hitzarmenen % 24,4 sinatu zituen UGTk (2021ean % 27,8), eta horiek langileen % 56,4ri eragin zieten. 19 sektoreko hitzarmen sinatu zituen, 76.676 pertsonari babeska eman zietenak (EAEn negoziatutako indarreko sektore-hitzarmenak zituzten langileen % 66,1); eta 94 enpresa-hitzarmen, 19.442 langileri estaldura eman zietenak (gure erkidegoan negoziatutako indarreko enpresa-hitzarmenak zituzten langileen % 35,7).

UGT eta CCOO dira hitzarmen gehien sinatu zituzten sindikatuak, negoziazio-mahaietan izandako presentzia kontuan hartuta (% 84,9 eta % 87,3, hurrenez hurren).

4.19. TAULA**ORDEZKARI SINDIKALEN PARTE-HARTZEA 2022AN EAE-N ERREGISTRATUTAKO INDARREKO HITZARMENEN SINADURAN***

	ELA	LAB	CC.OO.	UGT	USO	ESK	Beste batzuk	S. gabeak **
Guztira								
Hitzarmen kopurua	304	149	137	113	27	18	25	41
<i>Indarreko hitzarmen guztiekiko %</i>	<i>% 67,5</i>	<i>% 32,2</i>	<i>% 29,6</i>	<i>% 24,4</i>	<i>% 5,8</i>	<i>% 3,9</i>	<i>% 5,4</i>	<i>% 8,9</i>
Eraginpeko pertsonak	52.392	85.003	111.759	76.676	3.123	0	1.756	0
<i>Indarreko hitzarmen guztien gaineko %</i>	<i>% 51,1</i>	<i>% 63,5</i>	<i>% 78,5</i>	<i>% 56,4</i>	<i>% 4,6</i>	<i>% 1,9</i>	<i>% 8,2</i>	<i>% 3,8</i>
Sektorea								
Hitzarmen kopurua	12	18	26	19	3	0	2	0
<i>Indarreko hitzarmen guztien gaineko %</i>	<i>% 35,3</i>	<i>% 52,9</i>	<i>% 76,5</i>	<i>% 55,9</i>	<i>% 8,8</i>	<i>% 0,0</i>	<i>% 5,9</i>	<i>% 0,0</i>
Eraginpeko pertsonak	52.392	85.003	111.759	76.676	3.123	0	1.756	0
<i>Indarreko hitzarmen guztien gaineko %</i>	<i>% 45,2</i>	<i>% 73,3</i>	<i>% 96,4</i>	<i>% 66,1</i>	<i>% 2,7</i>	<i>% 0,0</i>	<i>% 1,5</i>	<i>% 0,0</i>
Enpresa								
Hitzarmen kopurua	292	131	111	94	24	18	23	41
<i>Indarreko hitzarmen guztien gaineko %</i>	<i>% 68,1</i>	<i>% 30,5</i>	<i>% 25,9</i>	<i>% 21,9</i>	<i>% 5,6</i>	<i>% 4,2</i>	<i>% 5,4</i>	<i>% 9,6</i>
Eraginpeko pertsonak	34.763	23.200	22.066	19.442	4.789	3.204	12.262	6.544
<i>Indarreko hitzarmen guztien gaineko %</i>	<i>% 63,8</i>	<i>% 42,5</i>	<i>% 40,5</i>	<i>% 35,7</i>	<i>% 8,8</i>	<i>% 5,9</i>	<i>% 22,5</i>	<i>% 12,0</i>

(*) 2022ko abenduaren 31 arte.

(**) Sindikatu gabeak.

Enpresa-erakundeak**2022an indarrean zeuden 34 sektore-hitzarmenen artetik, 13 Confebaskek sinatu zituen, 16 beste enpresa-erakunde batzuek, eta 5 denen artean**

2022an indarrean zeuden eta EAEn erregistratuta zeuden sektoreko hitzarmen sektorialetatik jasotako informazioaren arabera, honako ondorioak atera ditzakegu enpresa-erakunde sinatzaileei buruz, 4.20. taulan ageri den moduan, lurralde eremuaren arabera banakatuta:

Lehenik eta behin, 2022an indarrean zeuden 34 sektore-hitzarmenetatik bost sinatu zituzten Confebask osatzen duten erakundeetako batek (SEA, ADEGI edo CEBEK) eta beste enpresa-erakunde batzuetako ordezkariak, elkarrekin.

Arabara, lurralde horretan indarrean zeuden zortzi sektore-hitzarmenetatik lau sinatu zituen SEA erakundeak, eta eremu horretako pertsonen % 81,8ri eragin zieten. Beste enpresa-erakunde batzuek beste lau sektore-hitzarmen sinatu zituzten Arabara, eta 3.622 pertsonari eragin zieten (eraginpeko pertsonen % 18,2). 2021ean indarrean zegoen sektoreko negoziazio sektorialarekin alderatuta, SEAREN parte-hartzea murriztu egin zen. Izan ere, aurreko ekitaldian, eraginpeko langileen % 95,2ri eman zieten estaldura SEAK sinatutako hitzarmenek. Beste enpresa-erakunde batzuen parte-hartzea, berriz, handitu egin zen, 2021ean horiek sinatutako sektore-hitzarmenek langileen % 4,8ri bakarrik eman baitzuten babesa.

Bizkaiari dagokionez, 2022an lurralde horretan indarrean zeuden 14 sektore-hitzarmenetatik 10en sinaduran parte hartu zuen CEBEKek, eta horiek eremu horretako langileen % 98,9ri eragiten zieten. Beste erakunde batzuek 8 sektore-hitzarmen sinatu zituzten (horietako lau CEBEKekin batera), eta eremu horretako hitzarmenen eraginpeko pertsonen % 59,1en lan-harremanak arautu zituzten. 2021ean indarrean zegoen negoziazio kolektiboarekin alderatuta, CEBEKen parte-hartzea % 93,5etik % 98,9ra igo zen.

4.20. TAULA

EAEN 2022AN INDARREAN ZEUDEN SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN ENPRESA-ERAKUNDE SINATZAILEAK

	CONFEBASK (*)		BESTE ERAKUNDE BATZUK	
	Hitzarmenak	Eraginpeko pertsonak	Hitzarmenak	Eraginpeko pertsonak
EAE, guztira	18	100.196	21	43.470
Araba	4	16.225	4	3.622
Bizkaia	10	44.164	8	26.398
Gipuzkoa	4	39.807	6	5.447
Lurralde artekoak	--	--	3	8.003

(*) Lurralde izaerako hiru erakunde kideez osatua: ADEGI (Gipuzkoa), CEBEK (Bizkaia) eta SEA (Araba).

Gipuzkoan, indarrean zeuden bederatzi sektore-hitzarmenetatik lau sinatu zituen ADEGI erakundeak, eta sektore-hitzarmenen baitako pertsonen % 91,6ri eragin zieten. Beste erakunde batzuek sei sektoreko hitzarmen sinatu zituzten (horietako bat ADEGIekin batera), eta eraginpeko langileen % 12,5en lan-harremanak arautu zituzten.


2021eko sektoreko negoziazio kolektiboarekin alderatuta, ADEGIren parte-hartzea murriztu egin zen. Hala, urte hartan sektoreko-hitzarmenen eraginpean zeuden pertsonen % 96 babestu zituzten sektore-hitzarmenak sinatu zituen 2021ean; 2022an, berriz, ehuneko hori % 91,6koa izan zen.

Lurralde arteko eremuan, hiru sektore-hitzarmenen sinaduran parte hartu zuen CONFEBASKek.

2022an EAEn indarrean zeuden sektore-hitzarmenen % 52,9 sinatu zituzten Confebasken baitako erakundeek (CE-BEK, ADEGI eta SEA); eremu horretako pertsonen % 86,4ri eragiten diete horiek. 34 sektore-hitzarmenetatik 21 sinatu zituzten beste enpresa-erakunde batzuek, eta hitzarmen horien eraginpeko langileen % 37,5i eragiten zieten. Horien artean, duten garrantzia dela eta, ostalaritza- eta garraio-sektoreetako patronalak nabarmentzen dira.

2021ean, EAEn indarrean zeuden sektoreko hitzarmenen % 56 sinatu zituen Confebaskek, eremu horietako pertsonen % 79,1i eragiten zietenak. Beste erakunde batzuek, berriz, sektoreko hitzarmenen % 52 sinatu zituzten 2021ean, eta langileen % 33ri eragiten zieten.

4.20. GRAFIKOA ENPRESA-ERAKUNDEEN PARTE-HARTZEA 2022AN INDARREAN ZEUDEN EAE-N ERREGISTRATUTAKO SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN SINADURAN



4.1.7. HITZARMEN KOLEKTIBOEN INAPLIKAZIOAK¹⁸ EAE-N

2022an zehar 22 inaplikazio gordailutu ziren EAEn eta horiek 338 pertsonari eragin zieten. Hortaz, inaplikazioak % 37,5 ugaritu ziren (2021ean 16) eta eraginpeko pertsona kopurua % 16,5 (2021ean 290).

Aipatzekoa da inaplikazio kopuruak zein eraginpeko pertsonen kopuruak oso txikiak izaten jarraitzen dutela, hitzarmenak indarrean (indarraldi osoan eta aurreraeraginean daudenak) dituzten langileen kopurua 560.000tik gorakoa dela kontuan hartuta.

2022an EAEko Lan Agintaritzan gordailututako inaplikazio guztien artetik, 20 alderdien akordioarekin gordailutu zituzten, kontsulta-aldian. Bi kasutan, berriz, hitzarmenaren batzorde parekidearen ostean lortu zuten akordioa.

Aurkeztutako inaplikazioen kopuruak (2022an 22) zein eraginpeko pertsonen kopuruak (338 pertsona) oso txikiak izaten jarraitzen dute, hitzarmenak indarrean (indarraldi osoan eta luzatuta) dituzten langileen kopurua 560.000tik gorakoa dela kontuan hartuta.

¹⁸ Aplikagarria den hitzarmen kolektiboan aurreikusitako lan-baldintza batzuk ez aplikatzeko aukera ematen die enpresei 2012ko lan-erreformak, arrazoi ekonomikoak, arrazoi teknikoak, antolakuntza-arrazoiak edo ekoizpen-arrazoiak daudenean, enpresaren eta langileen ordezkarien arteko adostasunez. Adostasunik egon ezean, hitzarmenaren batzordearen esku utz daiteke akordio eza. Batzorde honek eskurik hartu ezean edo akordio batera iritsi ezean, alderdiek Precora jo beharko dute. Precok desadostasuna konpontzen ez badu, alderdietako edozeinek ORPRICCEra jo ahal izango du soluzio bila; LHKn dago haren egoitza.

Halaber, aurreko bost urteetan bezala, 2022an ere ez zen inaplikazio-eskaerarik aurkeztu ORPRICEn, Estatuaren arabera Hitzarmen Kolektiboak ez Aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organoan.

Sektorearen arabera, 228 langileri eragin zieten 9 inaplikazio zerbitzuen sektoreko enpresek aurkeztu zituzten; 110 pertsonari eragin zieten 13 inaplikazio, berriz, industria-sektoreko enpresek gordailutu zituzten; aldiz, ez zuten inaplikazio bakar bat ere aurkeztu eraikuntza-sektoreko eta lehen sektoreko enpresek.

Estatuari dagokionez, 2022an murriztu egin ziren aurkeztutako inaplikazioen kopurua eta eraginpeko pertsonen kopurua, aurreko urtearekin alderatuta. Hala, 2022an 557 inaplikazio aurkeztu zituzten, eta horiek 21.797 pertsonari eragin zieten. 2021ean, berriz, 559 inaplikazio aurkeztu ziren, eta horiek 26.923 langileri eragin zieten.

Datu horien arabera, inaplikazioen kopurua % 0,4 murriztu zen aurreko urtetik eta, eraginpeko langileen kopurua, % 19.

557 inaplikazio horien artetik, % 85,6tan (477 inaplikazio) kontsulta-aldian lortu zen akordioa. 49 kasutan (% 8,8) hitzarmenaren batzorde parekidean lortu zen akordioa. 21 kasutan (% 3,8), bitartekaritza edo laudo bidez izan zen, alderdi biko organoan, eta 10 kasutan (% 1,8) hiru alderdiko organo baten baitan hartu zen erabakia.

Aurreko urteetan bezala, estatuan aurkeztutako inaplikazio gehienak zerbitzuen sektorekoak izan ziren 2022an, % 56,6. Eraikuntza, industria eta lehen sektorea izan ziren hurrengoak, inaplikazioen % 23,5, % 14,9 eta % 5ekin, hurrenez hurren.

EAEko lan-agintaritzan aurkeztutako 22 inaplikazioetatik 17tan presente egon ziren soldataren zenbatekoa eta ordaintzeko sistema

EAEko inaplikazioen arrazoiaren artean, soldataren zenbatekoa eta ordaintzeko sistema agertzen ziren 22 inaplikazioetatik 17tan. Gainerakoetan, berriz, lanaldia, ordutegia eta laneko denboraren banaketa edota borondatezko hobekuntza batzuen ezarpena izan ziren inaplikazioaren arrazoiak. Aurreko urtean ere, 2021ean, soldataren zenbatekoa izan zen EAEn aurkeztutako inaplikazio gehienaren arrazoia.

Estatuan ere, kasurik gehienetan, soldatarekin eta ordaintzeko sistemarekin lotuta zeuden inaplikazioa eragin zuten lan-baldintzak. Gai horiek bakarrik edo beste gai batzuekin batera, 2022an gordailututako inaplikazioen % 70,7 osatu zuten.

EAEn aurkeztutako inaplikazio guztien artetik, 16 Gipuzkoako Lan Agintaritzan gordailutu zituzten, 5 Bizkaian eta 1 Araban. Gipuzkoan, aurkeztutako 16 inaplikazioetatik 12 Industria Siderometalurgikoko Hitzarmenari zegozkion, eta soldataren zenbatekoarekin lotuta zeuden.

Azkenik, laburpen gisa, inaplikazioen eraginpeko langileen kopurua oso txikia dela adierazi behar da. Gainera, kasurik gehienetan, alderdien akordio bidez amaitzen da prozedura, kontsulta-aldian. Ondorioz, oso kasu gutxitan esku hartzen du hiru alderdiko organoak.

4.21. GRAFIKOA EAE. INAPLIKAZIOEN ERAGINPEKO LANGILEAK



4.1.8. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA SEKTORE PUBLIKOAN

Sektore publikoan lan egiten duten langileen soldata % 3,5 igo zen 2022an, batez beste

Estatuaren 2022rako Aurrekontu Orokorrari buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legeko (BOE 2021/12/29) 19. artikulua ezarritakoaren arabera, sektore publikoko langileen ordainsariak ezin zuten % 2tik gorako igoerarik izan, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarietara.

Ondoren, urriaren 18ko 18/2022 Errege Lege Dekretuak (BOE 2022/10/19), 23. artikulua bidez, sektore publikoko langileen ordainsariak ehuneko 1,5eko igoera gehigarria izatea onartu zuen, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

Gure erkidegoan, honako hau ezarri zuen Euskal Autonomia Erkidegoaren 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen zituen abenduaren 23ko 11/2021 Legeak: lan-kontratudunak ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko, organismo autonomoetako, zuzenbide pribatuko ente publikoetako eta sektore publikoko partzuergoetako langileen urteko guztizko ordainsariak ezin izango dute % 2tik gorako gehikuntza orokorrik izan 2021eko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsarien aldean.

Gerora, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarentzat lan egiten zuten langileentzat 2022rako % 1,5eko igoera gehigarria onartzen zuen Gobernu Kontseiluaren Akordioa argitaratu zen 2022ko azaroaren 30eko EHAAn.

Hortaz, 2022an % 3,5 igo zen sektore publikoko langileen soldata.

Tokiko administrazioaren arloan, EUDLEk eta sindikatuek (ELA, CCOO eta UGT) tokiko administrazioko langileentzat 2008an sinatutako Lan Harremanen Esparru Akordio Orokorren (Udalhitz) indarraldia amaitu egin zen 2010eko abenduaren 31n.

Estatuaren 2022rako Aurrekontu Orokorri buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen arabera, tokiko korporazioetako eta haien mendeko erakundeetako langileei ere eragiten die legean ezarritako soldata-igoerak.

2022an, administrazio publiko guztietako funtzionarioen urteko lanaldia 1.592 ordukoa izan zen.

4.2. LANEKO GATAZKAK

4.2.1. ALDERDI NAGUSIAK

2022an zehar 867 lan-gatazka kolektibo erregistratu ziren EAEn. Horietatik 342 grebak izan ziren, eta 525 Precori aurkeztutako gatazkak. Aurreko urtearekin alderatuta, hazi egin zen greba kopurua, baita horietan parte hartu zuten pertsonen kopurua ere. Aitzitik, murriztu egin ziren Precori aurkeztutako gatazkak eta horien eraginpeko langileak.

4.21. TAULA
LANEKO GATAZKAK EAE-N

	LANEKO GREBAK		PRECON AURKEZTUTAKO GATAZKAK	
	Gatazka kopurua	Parte-hartzaileak	Gatazka kopurua	Eraginpeko pertsonak
2010	298	38.090	454	128.464
2011	240	18.640	530	109.632
2012	278	21.600	420	72.033
2013	350	37.020	1.349	453.819
2014	236	17.126	581	160.280
2015	184	10.608	573	186.645
2016	164	13.735	613	200.406
2017	214	59.505	494	134.363
2018	264	48.696	476	110.190
2019	308	79.860	464	117.988
2020	190	25.642	590	230.501
2021	248	14.848	576	259.609
2022	342	106.998	525	106.709

Iturria: LHK eta Lan eta Enplegu Saila.

4.2.2. LANEKO GREBAK EAE-N

2022an EAEn, aurreko urtearekin alderatuta, ugaritu egin ziren greba kopurua, greben eraginpeko langile kopurua eta lan egin gabeko lanaldien kopurua

2022an zehar 342 laneko greba erregistratu ziren guztira EAEn, eta 106.998 pertsonak parte hartu zuten horietan; hala, 384.459 izan ziren lan egin gabeko lanaldiak.

2021arekin alderatuta, greba kopurua % 37,9 hazi zen, eraginpeko langile kopurua % 620,6 eta lan egin gabeko lanaldien kopurua % 173,1.

Sektoreko gatazka bakar batek azaltzen du igoera handi horien zati bat: Bizkaiko Industria Siderometalurgikoko Hitzarmenaren negoziatziotik eratorritako gatazkak.

Eraginpeko pertsonen % 59,6 Bizkaiko metalaren greba-deialdietan parte hartu zuten pertsonak izan ziren, eta lan egin gabeko lanaldien % 62 zegozkion gatazka horri.

Sektoreko gatazka bakar batek azaltzen du parte-hartzaileen eta lan egin gabeko lanaldien gorakada handia: Bizkaiko Industria Siderometalurgikoko Hitzarmenaren negoziatziotik eratorritako gatazkak

Hain zuzen ere, Bizkaiko industria siderometalurgikoan lan egin gabeko lanaldiak kanpoan utziko bagenu (238.325), lan egin gabeko lanaldien kopurua 146.134ra jaitsiko litzateke.

Pandemiak eragindako egoeraren ondorioz, 2020an murriztu egin ziren laneko gatazkak. 2021ean pixkanaka normaltasunera itzuli ginen heinean, gatazka kopurua ere hazi egin zen, nolabait. Dena den, langile gutxi batzuetan pilatu ziren gatazkak; izan ere, 14.848 parte-hartzaile baino ez ziren izan, eta parte-hartzaile bakoitzak lan egin gabeko ordu kopurua 75,8koa izan zen. 2022an gorakada izan zen, batez ere, aurrez aipatu dugun Bizkaiko metalaren sektoreko gatazkaren eraginez.


4.22. TAULA LANEKO GREBAK (EAE)

	GREBAK	PARTE HARTZAILE KOPURUA	LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	GREBA BAKOITZEKO PARTE HARTZAILEAK	GREBA BAKOITZEKO LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	PARTE HARTZAILE BAKOITZAK LAN EGIN GABEKO ORDUAK
2010	298	38.090	179.519	128	602	37,7
2011	240	18.640	83.935	78	350	36,0
2012	278	21.600	130.930	78	471	48,5
2013	350	37.020	140.391	106	401	30,3
2014	236	17.126	56.648	73	240	26,5
2015	184	10.608	18.222	58	99	13,7
2016	164	13.735	58.157	84	355	33,9
2017	214	59.505	96.423	278	451	13,0
2018	264	48.696	110.838	184	420	18,2
2019	308	79.860	391.830	259	1.272	39,3
2020	190	25.642	59.741	135	314	18,6
2021	248	14.848	140.775	60	568	75,8
2022	342	106.998	384.459	313	1.124	28,7

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Eremu instituzionalari dagokionez (pribatua/publikoa), greba, parte-hartzaile eta lan egin gabeko lanaldi gehienak eremu pribatuari dagozkio, aurreko urtetan bezala. Dena den, sektore publikokoak izan ez arren, jarduera garatzeko Administrazioaren finantzazioa behar duten sektoreetan egin dira greba batzuk aurreko ekitaldietan, hala nola, itunpeko irakaskuntzan, eskoletako jangeletan edota etxeko laguntzaileen artean.

4.22. GRAFIKOA GREBETAN LAN EGIN GABEKO LANALDIAK, EREMUAREN ARABERA: PRIBATUA / PUBLIKOA (EAE, 2016-2022)




Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

2022an greben ondorioz lan egin gabeko lanaldien % 68 enpresako gatazkei zegozkien; 2021ean, berriz, ehuneko hori % 83koa izan zen; dagoeneko aipatu dugun Bizkaiko Industria Siderometalurgikoko gatazkak eragin handia izan zuen sektoreko greben pisua handiagoa izatean.

4.23. GRAFIKOA

GREBETAN LAN EGIN GABEKO LANALDIAK, SEKTOREAREN ARABERA (EAE, 2016-2022)



Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

4.23. TAULA**LANEKO GREBAK, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA (EAE)**

		GREBAK	PARTE HARTZAILE KOPURUA	LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	PARTE HARTZAILE BAKOITZAK LAN EGIN GABEKO ORDUAK
2017	Guztira	214	59.505	96.423	13,0
	Nekazaritza	0	0	0	--
	Industria	68	5.356	18.724	28,0
	Eraikuntza	11	586	880	12,0
	Zerbitzuak	135	53.563	76.819	11,5
2018	Guztira	264	48.696	110.838	18,2
	Nekazaritza	0	0	0	--
	Industria	76	5.546	28.242	40,7
	Eraikuntza	3	69	86	10,0
	Zerbitzuak	185	43.081	82.510	15,3
2019	Guztira	308	79.860	391.830	39,3
	Nekazaritza	1	3	64	170,7
	Industria	75	65.749	318.078	38,7
	Eraikuntza	7	197	785	31,9
	Zerbitzuak	225	13.911	72.903	41,9
2020	Guztira	190	25.642	59.741	18,6
	Nekazaritza	1	3	26	69,3
	Industria	70	7.168	22.135	24,7
	Eraikuntza	3	40	589	117,8
	Zerbitzuak	116	18.431	36.991	16,1
2021	Guztira	248	14.848	140.775	75,8
	Nekazaritza	0	0	0	--
	Industria	101	8.042	113.921	113,3
	Eraikuntza	13	544	2.946	43,3
	Zerbitzuak	134	6.262	23.908	30,7
2022	Guztira	342	106.998	384.459	3,6
	Nekazaritza	0	0	0	0
	Industria	95	82.013	306.608	3,7
	Eraikuntza	4	141	2.483	17,6
	Zerbitzuak	243	24.844	75.368	3,0

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Grebaren ondorioz lan egin gabeko lanaldi gehienak industrian gertatu ziren

Sektore ekonomikoen araberako analisiak erakusten duenez, 2022an industrian pilatu ziren gatazkak; izan ere, industriari zegozkion gatazken % 27,8, eraginpeko pertsonen % 76,6 eta lan egin gabeko lanaldien % 79,7.

Bestalde, zerbitzuen sektorearekin lotuta zeuden greben % 71, eraginpeko pertsonen % 23,2 eta lan egin gabeko lanaldien % 19,6. Aldiz, eraikuntzari zegozkion greben % 1,2, eraginpeko pertsonen % 0,2 eta galdutako lanaldien % 0,7. Lehen sektorean ez zen grebarik erregistratu.

2021ean ere industrian gertatu ziren gatazka gehienak: greben % 40,7, eraginpeko langileen % 54,1 eta lan egin gabeko lanaldien % 80,9.

**4.24. TAULA
LANEKO GREBAK (ESTATUA)**

	GREBAK	PARTE HARTZAILE KOPURUA	LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	GREBA BAKOITZEKO PARTE HARTZAILEAK	GREBA BAKOITZEKO LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	PARTE HARTZAILE BAKOITZAK LAN EGIN GABEKO ORDUAK
2010	984	340.776	671.498	346	682	15,8
2011	777	221.974	485.054	286	624	17,5
2012	878	323.871	1.290.114	369	1.469	31,9
2013	994	448.024	1.098.480	451	1.105	19,6
2014	777	217.047	620.568	279	799	22,9
2015	615	170.528	497.483	277	809	23,3
2016	641	183.120	388.912	286	607	17,0
2017	730	225.723	594.253	309	814	21,1
2018 ⁽¹⁾	726	338.671	907.631	466	1.250	21,4
2019 ⁽²⁾	898	264.454	858.401	294	956	26
2020 ⁽²⁾	487	151.496	540.579	311	1.110	28,5
2021 ⁽²⁾	606	199.026	422.815	328	698	17
2022	679	192.751	709.099	284	1.044	29,4

(1) Ez ditu jasotzen greba orokorretako datuak, ezta fiskalen, magistratuen eta epaileen greben datuak ere.

(2) Ez ditu jasotzen greba orokorretako datuak.

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

Estatuari dagokionez, 2021ean, aurreko urtearekin alderatuta, gora egin zuten greba kopuruak (+% 12) eta lan egin gabeko lanaldien kopuruak (+% 67,7); aldiz, % 3,2 murriztu zen parte-hartzaileen kopurua.

4.25. TAULA

LANEKO GREBAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

		GREBAK	PARTE HARTZAILE KOPURUA	LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	GREBA BAKOITZEKO PARTE HARTZAILEAK	GREBA BAKOITZEKO LAN EGIN GABEKO LANALDIAK	PARTE HARTZAILE BAKOITZAK LAN EGIN GABEKO ORDUAK	GREBA BAKOITZAREN BATEZ BESTEKO IRAUPENA (EGUNAK)
2013	EAE	350	37.020	140.391	106	401	30,3	10,9
	Araba	91	3.907	13.026	43	143	26,7	9,3
	Bizkaia	160	28.279	97.539	177	610	27,6	12,9
	Gipuzkoa	99	4.834	29.826	49	301	49,4	9,0
2014	EAE	236	17.126	56.648	73	240	26,5	10,2
	Araba	73	3.647	7.956	50	109	17,5	9,5
	Bizkaia	119	11.227	37.570	94	316	26,8	10,1
	Gipuzkoa	44	2.252	11.122	51	253	39,5	11,8
2015	EAE	184	10.608	18.222	58	99	13,7	7,5
	Araba	62	2.901	2.573	47	42	7,1	9,1
	Bizkaia	78	5.175	12.162	66	156	18,8	7,9
	Gipuzkoa	44	2.532	3.487	58	79	11,0	4,4
2016	EAE	164	13.735	58.157	84	355	33,9	15,1
	Araba	48	2.150	5.385	45	112	20,0	11,6
	Bizkaia	73	8.205	26.982	112	370	26,3	12,4
	Gipuzkoa	43	3.380	25.790	79	600	61,0	23,6
2017	EAE	214	59.505	96.423	278	451	13,0	8,1
	Araba	46	11.690	14.774	254	321	10,1	6,0
	Bizkaia	91	26.846	46.087	295	506	13,7	10,0
	Gipuzkoa	77	20.969	35.562	272	462	13,6	7,3
2018	EAE	264	48.696	110.838	184	420	18,2	10,6
	Araba	37	6.705	9.723	181	263	11,6	4,9
	Bizkaia	130	29.172	66.795	224	514	18,3	10,6
	Gipuzkoa	97	12.819	34.320	132	354	21,4	12,8
2019	EAE	308	79.860	391.830	259	1.272	39,3	13,2
	Araba	52	3.469	9.922	67	191	22,9	5,7
	Bizkaia	119	72.579	345.686	610	2.905	38,1	9,7
	Gipuzkoa	137	3.812	36.222	28	264	76,0	19,0
2020	EAE	190	25.642	59.741	135	314	18,6	11,2
	Araba	41	6.090	9.079	149	221	11,9	4,4
	Bizkaia	58	12.348	30.167	213	520	19,5	15,4
	Gipuzkoa	91	7.204	20.495	79	225	22,8	11,5
2021	EAE	248	14.848	140.775	60	568	75,8	9,1
	Araba	32	2.578	96.718	81	3.022	300,1	14,5
	Bizkaia	153	10.409	39.087	68	255	30,0	9,8
	Gipuzkoa	63	1.861	4.970	30	79	21,4	4,7
2022	EAE	342	106.998	384.459	313	1.124	28,7	14,7
	Araba	52	15.835	43.819	305	843	22,1	8,7
	Bizkaia	166	81.547	307.017	491	1.850	30,1	14,8
	Gipuzkoa	124	9.616	33.623	78	271	28,0	17,0

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

4.2.3. PRECON AURKEZTUTAKO GATAZKAK

2022an zehar, Preco Akordioa kudeatzen jarraitu du Lan Harremanen Kontseiluak, haren lurraldeko hiru zerbitzuen bidez. Lan Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei Buruzko Lanbide Arteko Akordioa da Preco Akordioa, eta 2000ko otsailaren 16an (2000ko apirilaren 4ko EHAA, 66. zk.) sinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko konfederazio sindikal eta enpresarial adierazgarrienak diren guztiek.

Jarraian, lehenik eta behin, 2022an zehar eskatutako prozeduren gaineko informazioa emango dugu, Precoren bidez kanalizatutako lan-gatazken panoramika bat izateko. Eta, ondoren, urte horretan bertan amaitutako prozeduren inguruko informazioa emango dugu, eta horien kudeaketa eta emaitzak aztertuko ditugu.

Jaitsi egin da Precon aurkeztutako eskaera kopurua: 2021ean 576 eta 2022an 525

2022an zehar, 525 eskaera aurkeztu zituzten Precon, eta horiek 106.709 pertsonari eragin zieten; hala, aurreko urtearekin alderatuta, aurkeztutako eskaera kopurua % 8,9 jaitsi zen, eta eraginpeko langileen kopurua % 58,9.


2008ko krisiaren eta 2011ko eta 2012ko lan-erreformen ondorengo urteetan asko ugaritu ziren gatazka kolektiboko eskaerak, eta 2013an iritsi ziren maila gorenera: 1.349 gatazka, 2012ko abenduan sektore publikoko aparteko ordainsaria kendu izanaren aurkako erreklamazioak zirela eta; eta, batez ere, hitzarmen kolektibo askoren aurreraeragina amaitu zelako, eta, ondorioz, enpresa askok haien langileei egindako komunikazioak modu masiboan inpugnatu zituztelako.

Ordutik, normaltasunera itzultzeko joan zen zifra, eta hiru ekitalditan zehar (2014, 2015 eta 2016) 600 gatazka inguru erregistratu ziren. 2017 eta 2019 artean dezente maila baxuagoak erregistratu ziren: 500 eskaeratik behera.

Joera hori eten egin zen 2020. eta 2021. urteetan. Izan ere, bizi izan dugun osasun-krisi eta krisi ekonomikoaren ondorioz, batez ere, ugaritu egin dira prozedurak.

COVID-19 koronabirusa agertu izanaren ondorioz, gatazka kopurua asko ugaritu zen. Kasu askotan, desadostasunak zituzten pandemiari aurre egiteko onartutako berariazko araudia aplikatzeko orduan, ABEEE-en baldintza eta garapenaren inguruan, edota krisiak laneko egutegi eta ordutegiaren gainean izandako inpaktuaren inguruan.

2022an zehar pixkanaka normaltasunera itzultzearen ondorioz, eskaera kopurua eta eraginpeko langileen kopurua jaitsi egin da, oraindik ere pandemiaren aurreko urteetan baino handiagoa den arren.

4.24. GRAFIKOA**AURKEZTUTAKO GATAZKA KOLEKTIBOKO ESKAERAK: 2005-2022**


Iturria: LHK.

2022an 106.709 pertsonari eragin zieten gatazka horiek, eta 2021ean 259.609ri. Hortaz, aipatu dugun moduan, % 58,9ko jaitsiera izan zen aurreko urtearekin alderatuta.

Sektore ekonomikoaren arabera, jaitsi egin zen industrian aurkeztutako gatazken pisua (2022an % 32 eta 2021ean % 37,5). Aldiz, hazi egin zen zerbitzuen sektorean aurkeztutako pisua (2022an % 64,6 eta 2021ean % 58,7), eta eskatutako prozedura guztien erdiak baino gehiago izaten jarraitzen dute.

2006az geroztik, industria-sektoreko gatazkek gutxitzen hasi ziren, eta zerbitzuen sektoreko gatazkek, berriz, nabarmen ugartzen. Izan ere, gure ekoizpen-ehunaren osaera aldatzen ari da, eta zerbitzuen sektorearen pisua gero eta handiagoa da.

4.25. GRAFIKOA
PROZEDUREN BANAKETA, EHUNekoETAN, SEKTORE EKONOMIKOAREN ARABERA. 2006-2022



Iturria: LHK.

Eskatutako prozedura guztien % 60 baino gehiago hirugarren sektorean aurkeztutako gatazkei dagozkie

4.26. TAULA
PRECON AURKEZTUTAKO GATAZKA KOLEKTIBOAK

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Gatazka kopurua	Eraginpeko pertsonak	Gatazka kopurua	Eraginpeko pertsonak	Gatazka kopurua	Eraginpeko pertsonak	Gatazka kopurua	Eraginpeko pertsonak
2005	65	44.212	182	26.137	97	21.839	344	92.188
2006	83	21.004	195	20.438	86	7.044	364	48.486
2007	84	27.033	182	45.349	87	9.225	353	81.607
2008	111	35.484	213	33.630	82	10.678	406	79.792
2009	71	64.749	202	67.675	88	8.889	361	141.313
2010	101	52.787	237	65.326	116	10.351	454	128.464
2011	126	35.605	302	59.386	102	14.641	530	109.632
2012	96	20.760	220	41.477	104	9.796	420	72.033
2013	203	95.109	739	214.253	407	144.457	1.349	453.819
2014	148	59.971	289	85.874	144	14.435	581	160.280
2015	94	34.688	326	138.650	153	13.307	573	186.645
2016	133	38.793	319	143.871	161	17.742	613	200.406
2017	103	36.694	245	45.786	146	51.883	494	134.363
2018	109	55.872	253	46.230	114	12.088	476	114.190
2019	131	40.620	232	62.160	101	15.208	464	117.988
2020	159	113.007	334	105.668	97	11.826	590	230.501
2021	146	44.197	288	178.511	142	36.901	576	259.609
2022	117	28.983	245	50.014	163	27.712	525	106.709

Iturria: LHK.

Lurraldearen arabera, aurreko urtearekin alderatuta, gatazka kopurua % 19,9 eta % 14,9 murriztu zen Araban eta Bizkaian, hurrenez hurren. Gipuzkoan, berriz, % 14,8 hazi zen.

Gatazka motari dagokionez, hainbat eratako neurri enpresarialak inpugnatzeko erabiltzen diren enpresa-erabakiak edo enpresako praktikak ziren gehienak, argi eta garbi. Historikoki, prozeduren % 50 baino gehiago mota horretakoak izan ohi dira, eta 2022an % 53,5 izan ziren (281 eskaera), 2021eko eskaerak baino ehuneko 2,1 puntu gehiago.

Arauen eta itun edo hitzarmen kolektiboen interpretazioari edo aplikazioari buruzko gatazkak % 39,4 izan ziren 2021ean (227 eskaera) eta % 28,2 2022an (148 eskaera); hortaz, 11 puntutik gorako murrizketa izan zen 2021ekin alderatuta. Gatazka mota horietako gehienak hitzarmen kolektiboen interpretazioari edo betetzeari buruzko desadostasunak izan dira, eta oso gutxi izan dira arau legalen interpretazioari edo aplikazioari buruzkoak.

2021ean apur bat ugaritu ziren lan-baldintzei buruzko enpresako hitzarmenen edo itunen gaineko desadostasunekin edo negoziazioak gelditu izanarekin lotutako gatazka kolektiboak. 2022an, berriz, hazkunde nabarmena izan zuten negoziazio-gatazkekin lotutako eskaerek: 2022an, aurkeztutako eskaeren % 15,6 ziren mota horretakoak, eta 2021ean % 5,4.


Aurkeztutako gainerako gatazkak honela banatzen dira: Enpresa bateko erakunde sindikal jakin bateko afiliazioaren ehunekoa egiaztatzeko 13 eskaera, eta hitzarmen baten batzorde parekideak aurkeztutako 1 prozedura, batzordean suertatutako desadostasun bati buruzkoa.

Aurreko urteekiko berritasun gisa, azkeneko lan-erreformaren (32/2021 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa) onarpenarekin lotutako gatazka kolektiboen agerpena nabarmendu behar da, zehazki, hitzarmen kolektiboen aplikazioa lehenestearekin eta kontrataziorako enpresa-praktikak araudi berriari egokitzearekin lotutakoak.

Halaber, pandemiaren hainbat fasetan ezarritako ABEEE-ei buruzko jazoerekin lotutako eskaerak nabarmendu behar dira 2022an, eta urtean zehar izandako inflazio maila altuen kalteekin lotutako askotariko egoerekin lotutako prozedurak ere bai.

2022an berriro ere igo zen gatazken konpontze-tasa: adostasunen eta laudoen tasa zati urtean zehar amaitutako eskaera guztiak; % 26,8an kokatu zen

4.26. GRAFIKOA PROZEDUREN EMAITZA, OROKORREAN: 2013-2022



Honela kalkulatzen da gatazken konpontze-tasa: adostasunen eta laudoen tasa zati urte horretan amaitutako eskaera guztiak. 2022an gatazken konpontze-tasak gora egin zuen 2021ekin alderatuta, eta % 26,8an kokatu zen (136 prozedura); zehazki, ehuneko 5,1 puntu hazi zen aurreko urtetik (% 21,7), eta ehuneko 3,1 puntu 2017-2021 aldiko batezbestekotik (% 23,7).

Benetan izapidetutako eskaeren guztizkoarekin alderatuz gero (tramitera onartu ez direlako edo aurkako alderdia agertu ez delako uko egindakoak eta artxibatutakoak zenbatu gabe), konpondutako eskaeren ehunekoa % 30,5 litzateke; ehuneko hori gertuago dago errealitatekin.

Azkenik, hasierako fasean konpondu gabeko oso prozedura gutxik jarraitzen dute alderdiek aukeratutako kanpoko esku-hartze profesionala duten adiskidetze, bitartekaritza edo arbitraje gisa. Ehunekoetan, 2022an amaitutako prozedura guztien % 4,5 izan ziren horrelakoak (2021ean % 5,2).

4.3. ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK

4.3.1. SARRERA. ARAU ESPARRUA

Prozedura administratiboak dira enplegua erregulatzeko espedienteak, eta hiru motatako ondorioak izan ditzakete:

- Lan-harremanaren behin-betiko iraungitzea (iraungitze ABEEEak).
- Lanaldiaren murrizketa.
- Lan-harremana aldi baterako etetea.

Eragiten duten ondorioa lanaldiaren murrizketa edo lan-harremana etetea denean, Aldi Baterako Enplegua Erregulatzeko Espedienteak esaten zaie (ABEEE).

Enplegua erregulatzeko espedienteak: Enpresek edo langileen ordezkari legalek lan-agintaritza eskudunari aurkeztutako prozedurak, lanaldia murrizteko, lan-harremana aldi baterako eteteko edo lan-harremana iraungitzeko, arrazoi ekonomikoak, teknologikoak edo ezinbesteko arrazoiak medio, edo kontratatzailearen nortasun juridikoa iraungi delako.

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Lan eta Enplegu Saila

2020 eta 2021 artean, enplegua erregulatzeko espedienteentzat ezarritako lege esparruak aldaketa handiak izan zituen, pandemiak eragindako krisi ekonomiko larriari erantzuten saiatzeko.

Hala, COVID-19aren inpaktu ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko aparteko presazko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak hainbat neurri ezarri zituen, hala nola jarduera aldi baterako doitzeko mekanismoak malgutzea eta erraztea.

Aurrerago, hasieran hartutako neurri batzuk aldatu zituzten honako lege hauek, eta mekanismo berriak ezarri zituzten pandemiaren bilakaerari aurre egiteko eta jarduerara itzultzea errazteko: 18/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 12koa, enplegua babesteko neurri sozialei buruzkoa; 24/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 26koa, enplegua berraktibatze eta lan autonomoa babesteko neurri sozialei buruzkoa eta industria-sektorearen lehiakortasunari buruzkoa; eta 30/2020 Errege Lege Dekretua, irailaren 29koa, enplegua babesteko neurri sozialei buruzkoa.

2021. urtean, COVID-19arekin lotutako aldi baterako enplegua erregulatzeko espedienteekin lotutako hainbat luzapen eta neurri osagarri ezarri zituzten honako lege hauek: 2/2021 Errege Lege Dekretua, urtarrilaren 26koa, enplegua babesteko neurri sozialak indartu eta sendotzeko; eta 18/2021 Errege Lege Dekretua, irailaren 28koa, enplegua babesteko, suspertze ekonomikorako eta lan-merkatua hobetzeko presazko neurriei buruzkoa.

Azkenik, 2021eko abenduaren 30ean argitaratutako 32/2021 Errege Lege Dekretuak, abenduaren 28koak, lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presazko neurriei buruzkoak, enplegua erregulatzeko espedienteen izapidetzeari eragiten dieten arau arloko gai batzuk aldatu zituen, eta enplegua malgutzeko eta egonkortzeko mekanismo iraunkor bat sortu zuen, "Sare Mekanismoa" izenekoa.

4.3.2. EAE-KO ADMINISTRAZIOAN AURKEZTUTAKO ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK

EAEko Administrazioan aurkeztutako enplegua erregulatzeko espedienteak bakarrik hartuko ditugu kontuan atal honetan. Izan ere, txosten hau egiteko unean, ez genuen informazio xeherik EAEn lantokia duten enpresek Administrazio Zentralari¹⁹ bidalitako espedienteen inguruan.

Halaber, ez ditugu aztertuko Konkurtso Legearen (22/2003 Legea, uztailaren 9koa) 64. artikuluan araututako konkurtso-prozeduren esparruan Merkataritza arloko Epaitegiaren aurrean izapidetutako espedienteak ere.

Enplegua erregulatzeko espedienteen kopuruaren eta eraginpeko pertsonen kopuruaren bilakaera estuki lotuta daude ekonomiaren martxarekin.

Pandemiaren agerpenak eragindako krisi ekonomikoaren garrantzia dela eta, aldi baterako enplegua erregulatzeko espedienteek eskaintzen dituzten barne-malgutasuneko neurriak erabili zituzten uneren batean enpresa askok, krisiaren ondorio horiei aurre egiteko. Hala, 2020ko datuak inoiz ikusi gabeak izan ziren, aurreko urteetakoak baino askoz ere altuagoak. Hain zuzen ere, 2020an, EAEko sektore pribatuko soldatapeko langileen ia heren bati²⁰ (% 30,7) eragin zien enplegua erregulatzeko espediente batek uneren batean.

2022an zehar pixkanaka normaltasunera itzuli izanari eta ezarritako murrizketak amaitu izanari esker, asko murriztu da EAEko Administrazioaren aurrean izapidetutako enplegua erregulatzeko espedienteen kopurua. Hala, 2021ean 3.322 espediente izapidetu ziren, eta 2022an 822, % 75,3 gutxiago.

EAEko Administrazioaren aurrean aurkeztutako espedienteen artetik, % 29,1 artxibatu edo baztertu egin zituzten, eta % 2,2 ez zituzten baimendu

¹⁹ Espedienteak bi autonomia-erkidegotan edo gehiagotan errotutako lantokiei edo langileei eragiten dienean, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioko Zuzendaritza Orokorrak enplegua erregulatzeko espedientearen berri izango du, honako egoeran izan ezik: enpresako langileen % 85, gutxienez, autonomia-erkidego bateko lurralde eremuan errotuta egotea eta lurralde eremu horretan eraginpeko langileak egotea; kasu horretan, erkidegoko lan-agintaritzaren aurrean egingo da prozeduraren tramitea.

²⁰ 2020ko enplegua erregulatzeko espedienteen eraginpeko pertsonen guztizkoa EAEko sektore pribatuko soldatapeko langileez zatitzean eskuratutako ehunekoa (BJAren arabera). ABEEE-ek eragindako pertsonen kopurua kalkulatzeko, baimendutako edo komunikatutako espediente guztietako langileak batzen dira. Hortaz, posible da pertsona bat behin baino gehiagotan zenbatuta egotea, enpresak 2020an zehar enplegua erregulatzeko espediente bat baino gehiago aurkeztu baditu.

4.27. TAULA ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK EAE-N

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO PERTSONAK				
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea	
2020	EAEko Administrazioak izapidetuak	36.117	266.832	34.641	230.567	1.624
	Baimenduak edo komunikatuak	30.690	210.019	26.243	182.463	1.313
	Uko eginda eta/edo artxibatuta	4.615	50.591	7.350	43.017	224
2021	EAEko Administrazioak izapidetuak	3.322	43.430	4.839	37.496	1.095
	Baimenduak edo komunikatuak	1.858	32.723	3.332	28.477	914
	Uko eginda eta/edo artxibatuta	1.351	9.910	1.129	8.602	179
	Baimendu gabeak	113	797	378	417	2
2022	EAEko Administrazioak izapidetuak	822	27.109	2.181	24.218	710
	Baimenduak edo komunikatuak	565	19.772	1.265	18.070	437
	Uko eginda eta/edo artxibatuta	239	7.239	908	6.063	268
	Baimendu gabeak	18	98	8	85	5

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

2022an zehar aurkeztutako 822 espedienteen artetik, azkenean % 68,7 baimendu edo komunikatu zituzten (565 espediente); % 29,1 (239 espediente) artxibatu egin zituzten edo uko egin zieten; eta 18 espediente, % 2,2, ez zituen baimendu Administrazioak.

Eraginpeko langileei dagokienez, hasiera batean 27.109 langilerentzat eskatu zen enplegua erregulatzeko espediente aplikatzea; horietatik, % 72,9 egon ziren nolabaiteko ABEEE baten estaldurapean. Aldiz, uko egindako edo artxibatutako espedienteek 7.239 langileri eragin zieten (% 26,7) eta 98 langileri (guztizkoaren % 0,4) eragiten zieten espedienteak, azkenean, ez zituzten baimendu.


4.3.3. EAE-KO ADMINISTRAZIOAK BAIMENDUTAKO EDO HARI KOMUNIKATUTAKO ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK

Aurrerantzean, administrazioak baimendutako edo hari komunikatutako espedienteak bakarrik aztertuko ditugu, eta alde batera utziko ditugu artxibatutakoak edo uko egindakoak, baita baimendu gabeak ere.

Lehenik eta behin, aipatu beharrekoa da 2020an, pandemiaren agerpenaren ondorioz, aurreko krisietan erregistratutakoa baino askoz ere handiagoa izan zela enplegua erregulatzeko espedienteen eraginpeko langileen kopurua, gehienak, ezinbesteko arrazoien ondorioz. 210.019 eraginpeko pertsona izan ziren, 2009an baino hiru aldiz gehiago (68.722 pertsona) eta 1993ko eraginpeko pertsona kopuruaren (86.166 pertsona) bikoitza baino gehiago.

4.27. GRAFIKOA

EAE-N BAIMENDUTAKO EDO KOMUNIKATUTAKO ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEEN ERAGINPEKO PERTSONA KOPURUAREN BILAKAERA . 1993-2022.



Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Krisi ekonomikoaren eta osasun-krisiaren faserik larriena igaro ondoren, 2021ean nabarmen murriztu zen ABEEE-en eraginpeko pertsonen kopurua, 32.723 pertsonara arte.

2022an amaitu egin ziren murrizketak, eta hori erabakigarria izan zen enplegua erregulatzeko espedienteek eragindako pertsonen kopurua jaisteko. 2012an edo 2013an baino baxuagoa izan zen eraginpekoen kopurua, baina pandemiaren aurreko urteetako baino handiagoa.

2022an zehar, enplegua erregulatzeko 565 espediente aurkeztu ziren EAEn, eta horiek 19.772 langileri eragin zieten; hala, aurreko urtearekin alderatuta, aurkeztutako espediente kopurua % 69,6 jaitsi zen, eta eraginpeko langileen kopurua % 39,6.

Arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik, antolaketa-arrazoiengatik edo ekoizpen-arrazoiengatik aurkeztu zituzten espediente gehienak, eta 18.272 pertsonari eragin zieten mota horretako espedienteek, guztizkoaren % 92,4ri; gainerako % 7,6ri (1.500 pertsona) ezinbesteko arrazoiengatik espedienteek eragin zien.

4.28. TAULA

ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK EAE-N, ARRAZOIAREN ARABERA. 2022. URTEA

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO PERTSONAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
Ekonomikoak, teknikoak, antolaketakoak edo ekoizpenekoak	392	18.272	1.102	16.739	431
Ezinbestekoak	173	1.500	163	1.331	6
Guztira	565	19.772	1.265	18.070	437

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Langileen % 99,7ri aldi baterako enplegua erregulatzeko espedienteek eragin zieten, eta % 0,3ri bakarrik eragin zieten lan-harremana iraungitzeko espedienteek

Aurreko urtean bezala, aldi baterako enplegua erregulatzeko espedienteek (ABEEE) eragin zieten pertsona gehienei (% 97,8), eta 437 langileri bakarrik eragin zieten lan-harremana iraungitzeko espedienteek, guztizkoaren % 2,2ri.

Sektorearen arabera

Sektorearen arabera, lehenengo postuan zerbitzuen sektorea kokatu zela aipatu behar da, aurkeztutako espediente guztien % 57,8 eta eraginpeko pertsonen % 56,3 sektore horretakoak baitziren; bigarren postuan industria kokatu zen, espedienteen % 32,4rekin eta eraginpeko pertsonen % 34,6rekin.

2022an zerbitzuen sektorean lan egiten zuten enplegua erregulatzeko espedienteen eraginpeko pertsona gehienek (% 56,3)

Hirugarren postuan eraikuntza zegoen, baimendutako edo komunikatutako espedienteen % 5ekin eta eraginpeko pertsonen % 8rekin; eta, azkenik, lehen sektorea, espedienteen % 4,8rekin eta ABEEE-en eraginpeko pertsonen % 1,1ekin.

4.29. TAULA

ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK EAE-N, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA

		ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO PERTSONAK			
			Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
2019	Guztira	173	2.449	219	1.933	297
	Lehen sektorea	0	0	0	0	0
	Industria	91	1.894	163	1.641	90
	Eraikuntza	10	98	2	66	30
	Zerbitzuak	72	457	54	226	177
2020	Guztira	30.690	210.019	26.243	182.463	1.313
	Lehen sektorea	94	381	144	237	0
	Industria	2.971	63.267	9.777	52.886	604
	Eraikuntza	1.212	6.335	828	5.262	245
	Zerbitzuak	26.413	140.036	15.494	124.078	464
2021	Guztira	1.858	32.723	3.332	28.477	914
	Lehen sektorea	25	64	10	54	0
	Industria	430	22.476	1.513	20.449	514
	Eraikuntza	46	357	54	281	22
	Zerbitzuak	1.357	9.826	1.755	7.693	378
2022	Guztira	565	19.772	1.265	18.070	437
	Lehen sektorea	27	55	0	50	5
	Industria	183	13.011	702	12.158	151
	Eraikuntza	28	522	28	459	35
	Zerbitzuak	327	6.184	535	5.403	246

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Langile kopuruaren araberako analisia

2022an, 25 pertsonatik beherako enpresek izapidetu zituzten espediente gehienak (guztizkoaren % 78,2), baina eraginpeko pertsonen kopurua kontuan hartzen badugu, enpresa txiki horietako langileek (2.571) eraginpeko guztien % 13 baino ez zuten ordezkutzen. Dena den, tamaina handieneko (250 langile baino gehiago) enpresen 12 espedienteen artean (2022an aurkeztutako espedienteen % 2,1 izan ziren), eraginpeko pertsonen % 50,9 bildu zituzten.

4.30. TAULA

ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK EAE-N, ENPRESAKO LANGILE KOPURUAREN ARABERA, 2022. URTEAN

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO PERTSONAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
25 langile baino gutxiago	442	2.571	549	1.776	246
25 eta 50 langile artean	59	1.757	322	1.313	122
51 eta 100 langile artean	22	1.353	125	1.159	69
101 eta 250 langile artean	30	4.023	249	3.774	0
250 langile baino gehiago	12	10.068	20	10.048	0
GUZTIRA	565	19.772	1.265	18.070	437

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Lurralde historikoen araberako analisia

4.31. TAULA

ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK ARABAN

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO PERTSONAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
2019	27	365	26	288	51
2020	4.368	43.821	4.144	39.590	87
2021	273	12.021	429	11.385	207
2022	90	7.496	149	7.327	20

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

4.32. TAULA

ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK BIZKAIAIN

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO PERTSONAK			
		Guztira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
2019	76	1.239	83	1.059	97
2020	14.988	95.916	10.996	84.037	883
2021	933	13.230	1.746	10.951	533
2022	291	6.827	602	5.928	297

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

4.33. TAULA**ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK GIPUZKOAN**

	ESPEDIENTE KOPURUA	ERAGINPEKO PERTSONAK			
		Gutzira	Murrizketa	Etetea	Iraungitzea
2019	70	845	110	586	149
2020	11.334	70.282	11.103	58.836	343
2021	652	7.472	1.157	6.141	174
2022	184	5.449	514	4.815	120

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

2022an Bizkaian aurkeztu ziren espediente gehien, 291 (gutzizkoaren % 51,5); Gipuzkoa izan zen hurrengoa, 184 espedienterekin (% 32,5), eta Araban komunikatu eta/edo baimendu ziren espediente gutxien, 90 (% 16).

ABEEE-en eraginpeko langileei dagokienez, 2022an Araban pilatu ziren eraginpeko gehienak: 7.496 pertsona, guttizkoaren % 37,9. Bizkaia izan zen hurrengoa, eraginpeko 6.827 langilerekin (% 34,5), eta azkenik Gipuzkoa (5.449 pertsona; % 27,6). Langile kopuru handia zuten Arabako enpresa industrial batzuek enplegua erregulatzeko espedientea aurkeztu zuten 2022an; ondorioz, lurralde horren pisua nabarmen hazi zen.

4.4. LANEKO EZBEHAR-TASA

4.4.1. LANEKO EZBEHAR-TASAREN BILAKAERA HISTORIKOA (EAE-ESTATUA; 2012-2021)

Txosten honen aurreko edizioetan bezala, lehenik eta behin, laneko ezbehar-tasaren bilakaera historikoa aztertuko dugu, bai EAERI dagokionez, bai estatu osoari dagokionez. Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak argitaratutako informazioa erabiliko dugu horretarako.

2022ari buruzko datuen aurrerapen bat argitaratu du Ministerioak, eta hurrengo atalean jaso dugu. Dena den, indizeen analisi konparatibo homogeneoa egiteko, behin-betiko datuak erabili ditugu; hortaz, kasu konkretu honetan, 2021ekoa da aztertutako azken ekitaldia.

2021ean, jarduera ekonomikoaren pixkanakako suspertzearekin batera, gora egin zuten intzidentzia- eta maiztasun-indize globalek, 2020arekin alderatuta

Intzidentzia-indizea: Erreferentziatzeko denbora-tarte batean gertatutako istripu kopurua eta arriskuaren aurrean egon diren pertsonen batez besteko kopurua erlazionatzen ditu.

Maiztasun-indizea: Istripu kopurua eta benetan lan egindako guztizko ordu kopurua erlazionatzen ditu.

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

4.34. TAULA

LANALDIAN GERTATUTAKO LANEKO EZBEHARRAREN TASA, BAJAREKIN (EAE, ESTATUA)

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Intzidentzia-indizea*										
EAE	32,9	32,4	32,4	34,1	34,8	36,0	33,9	32,5	27,3	32,0
Estatua	29,5	30,1	31,1	32,5	33,6	34,1	34,1	30,2	24,6	28,1
Maiztasun-indizea										
EAE	21,5	21,8	21,7	23,2	23,9	24,6	23,2	21,9	20,0	21,2
Estatua	18,6	19,3	20,0	21,0	21,7	22,0	22,0	18,8	16,9	18,0
Intzidentzia-indizea** (istripu hilgarriak)										
EAE	3,9	3,6	3,6	2,7	4,9	3,5	4,4	1,9	3,6	3,0
Estatua	3,3	3,3	3,4	3,7	3,8	3,7	3,7	3,0	3,5	3,3
Maiztasun-indizea (istripu hilgarriak)										
EAE	2,6	2,5	2,4	1,9	3,4	2,4	3,0	1,3	2,7	2,0
Estatua	2,1	2,1	2,2	2,4	2,5	2,5	2,4	1,9	2,4	2,1

* Mila langileko istripu kopurua **Ehun mila langileko istripu kopurua

2016az geroztik, istripu hilgarritzat hartzen dira laneko istripua gertatu eta urtebeteko epean gertatutako heriotza guztiak, hasierako larritasun-maila edozein izanik ere. Hortaz, istripu hilgarrien intzidentzia-indizeari eta maiztasun-indizeari dagokienez, 2015 eta 2016 artean eten bat dago datuen segidan.

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

Aipatu beharrekoa da 2020an asko jaitsi zela laneko ezbehar-tasa, pandemiaren agerpenarekin jarduera ekonomikoa erori izanaren ondorioz. 2021ean, ordea, intzidentzia-indize globala hazi egin zen, bai EAEn (2021ean, mila langileko 32 istripu; eta, aurreko ekitaldian, 27,3), bai estatuan (28,1 eta 24,6, hurrenez hurren).

Halaber, maiztasun-indize globalak ere gora egin zuen. EAEn kasuan, 2020an 20 laneko istripu gertatu ziren lan egindako milioi bat orduko, eta 2021ean 21,2. Estatuan, 16,9tik 18ra igo zen indizea.

Dena den, 2021ean istripu hilgarrien intzidentzia-indizea eta maiztasun-indizea jaitsi egin ziren aurreko ekitaldiarekin alderatuta, bai gure erkidegoan, bai estatu mailan.

Azkenik, intzidentzia-indize eta maiztasun-indize globalak, tradizionalki, estatuan baino altuagoak izan ohi dira EAEn. Izan ere, kontuan izan behar da bi ekonomien osaera sektoriala desberdina dela, eta gure erkidegoan pisu erlatibo handiagoa duela industria-sektoreak.

4.4.2. LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N ETA ESTATUAN 2022AN: ALDERDI NAGUSIAK

2022an, EAEn, pandemiaren aurreko maila baino apur bat beherago kokatu zen baja eragin zuten laneko ezbeharren tasa

Osalanek emandako informazioaren arabera, 2022an 37.933 pertsonari eragin zieten laneko ezbeharrek EAEn (laneko baja-egoeran dauden pertsonak, lanaldian zehar gertatutako laneko istripuen, "in itinere" istripuen eta gaixotasun profesionalen ondorioz).

Baja horien % 86,1 lanaldian zehar gertatutako istripuen ondorioa izan ziren, % 10,3 "in itinere" istripuek eragin zituzten eta gainerako % 3,6a gaixotasun profesionalekin lotuta zegoen. Ehunekoen banaketa hori 2019koaren, hau da, pandemia agertu aurrekoaren antzekoa da.

4.35. TAULA

LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N (BAJA HARTU ZUTEN ERAGINPEKO PERTSONAK)

	Baja eragin zuten lanaldiko istripuak								In itinere	Baja eragin zuten lanaldiko + in itinere istripuak		Gaixotasun profesionala	Guztira
	Guztira	Larritasun mailaren arabera			Sektorearen arabera					Traumatikoak	Ez-traumatikoak		
		Arinak	Larriak	Hilgarriak	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak					
2010	34.106	33.846	225	35	667	12.454	5.769	15.216	4.002	--	--	1.042	39.150
2011	30.628	30.392	199	37	665	11.460	4.379	14.124	3.384	--	--	1.028	35.040
2012	25.604	25.412	160	32	616	9.320	3.143	12.525	3.324	28.858	70	860	29.788
2013	24.611	24.445	138	28	574	8.611	2.562	12.864	3.349	27.881	79	777	28.737
2014	24.816	24.651	137	28	639	8.792	2.527	12.858	3.279	28.045	50	895	28.990
2015	26.641	26.460	153	28	659	9.094	2.555	14.333	3.580	30.161	60	999	31.220
2016	28.090	27.918	138	34	673	9.861	2.640	14.916	3.512	31.534	68	1.145	32.747
2017	29.629	29.443	161	25	664	10.281	2.898	15.786	3.935	33.500	64	1.445	35.009
2018	30.115	29.912	169	34	641	10.524	2.998	15.952	3.857	33.901	71	1.512	35.484
2019	33.007	32.819	162	26	679	11.794	3.766	16.768	4.099	37.044	62	1.520	38.626
2020	26.958	26.768	169	21	562	9.133	3.426	13.837	3.244	30.128	74	1.242	31.444
2021	31.232	31.017	184	31	578	9.867	3.749	17.038	3.619	34.780	71	1.347	36.198
2022	32.651	32.410	216	25	573	10.253	4.093	17.732	3.922	36.509	64	1.360	37.933

Iturria: Osalan (2009 eta 2011 arteko ekitaldiak: Laneko ezbehar-tasaren laburpen estatistikoa. 2012tik aurrera, abenduko hileko txostenak, metatutako datuak).

2020an nabarmen egin zuen behera baja eragin zuten laneko ezbeharren tasak, aurreko urtearekin alderatuta (-% 18,6). 2021ean, ordea, jarduera suspertu zenean, asko igo zen tasa (+% 15,1). 2022an % 4,8ko urte arteko hazkundea izan zuen baja eragin zuten ezbeharren guztizko tasak, eta 37.933 pertsonari eragin zieten horiek, 2019an (38.626 pertsona) baino apur bat gutxiagori.

Urte arteko aldakuntzari dagokionez, 2022an % 4,8 hazi zen laneko ezbehar-tasa EAEn

Aurreko urtearekin alderatuta, ugaritu egin ziren lanaldian gertatutako ezbeharren eraginpeko pertsonak (+% 4,5), "in itinere" gertatutako ezbeharren eraginpekoak (+% 8,4) eta gaixotasun profesionalen eraginpekoak (+% 1).

Dena den, aipatu dugun moduan, 2022ko zifrak 2019koen antzekoak dira, baina apur bat baxuagoak (37.933 vs. 38.626). Pandemiaren aurreko egoerarekin alderatuta, lanaldian gertatu ziren eta baja eragin zuten istripuak % 1,1 murriztu ziren, "in itinere" gertatu ziren eta baja eragin zuten istripuak % 4,3, eta baja eragin zuten gaixotasun profesionalen eraginpeko pertsonen kopurua % 10,5.

Laneko istripua: langile batek besterentzako lanean ari dela edo besterentzako lanaren ondorioz jasandako gorputzeko lesio oro, langileak lantokira bidean edo lantokitik bueltan jasandakoak barne.

Gaixotasun profesionala: besterentzako lanaren ondoriozko gaixotasuna.

Iturria: Gizarte Segurantzako Lege Orokorra (8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa).

Zerbitzuen sektorean erregistratu ziren lanaldiko istripu gehienak EAEn: 17.732 istripu. Hala, lanaldian gertatutako istripu guztien % 54,3 izan ziren sektore horretakoak.

4.36. TAULA

EAE-KO LANEKO ISTRIPIU TRAUMATIKOAK (LANALDIAN ETA IN ITINERE) ETA EZ-TRAUMATIKOAK, LARRITASUN-MAILAREN ARABERA

	ISTRIPIU TRAUMATIKOAK				ISTRIPIU EZ-TRAUMATIKOAK			
	Arinak	Larriak	Hilgarriak	Guztira	Arinak	Larriak	Hilgarriak	Guztira
2019	36.838	189	17	37.044	32	17	13	62
2020	29.937	169	22	30.128	42	27	5	74
2021	34.564	197	19	34.780	42	13	16	71
2022	36.251	240	18	36.509	40	12	12	64

Iturria: Osalan.

2019arekin alderatuta, baja eragin zuten lanaldiko istripuen kopurua murriztu egin zen lehen sektorean eta industrian (-% 15,6 eta -% 13,1, hurrenez hurren). Eraikuntzan (+% 8,7) eta zerbitzuetan (+% 5,7), berriz, ugaritu egin ziren.

Larritasun mailaren arabera, lanaldian gertatutako istripu larriak ugaritu egin ziren 2019arekiko (+% 33,3), eta gutxitu egin ziren arinak eta hilgarriak (-% 1,2 eta -% 3,8, hurrenez hurren). Dena den, argi izan behar da 2022an baja eragin zuten lanaldiko istripuen % 99,2 arinak izan zirela, % 0,7 larriak eta gainerako % 0,1 hilgarriak.

2022an 30 pertsona hil ziren EAEn laneko istripu baten ondorioz, 2021ean baino bost gutxiago eta 2019ko kopuru bera

Lanaldian gertatutako istripu hilgarriari dagokienez, 2022an 25 erregistratu ziren (2021ean baino sei gutxiago eta 2019an baino bat gutxiago). Horiez gain, 5 istripu hilgarri izan ziren in itinere. Guztira, 2022an 30 pertsona hil ziren EAEn laneko istripuen ondorioz, 2019ko kopuru bera.

Erregistratutako istripu hilgarri gehienak (lanaldian eta in itinere) traumatikoak izan ziren. Hain zuzen ere, 2022ko laneko istripu hilgarrien artetik, 18 traumatikoak izan ziren, eta 12 ez-traumatikoak.

Estatuan, 2022an % 10,3 egin zuen gora ezbehar-tasak, 2021aren aldean

Estatuari dagokionez ere, baja eragin zuten laneko ezbeharren kopurua nabarmen jaitsi zen 2020an, pandemiaren inpaktua dela eta (-% 23,8). 2021ean, ordea, % 17,8 egin zuen gora aurreko urtearekiko, eta hazten jarraitu zuen 2022an (+% 10,3). Hala, estatuan azken urtean behatutako urte arteko aldakuntzak handiagoak izan ziren EAEkoak baino.

Ezbehar motaren arabera, estatuan % 10,9 ugaritu ziren baja eragin zuten lanaldiko istripuak. Baja eragin zuten "in itinere" istripuak eta gaixotasun profesionalak izan zituzten pertsonak, berriz, % 6,5 eta % 4% hazi ziren, hurrenez hurren.

Estatuan 679 istripu hilgarri erregistratu zituzten lanaldian zehar, azken urteetako erregistrorik handiena. Hala, % 25,3 egin zuten gora 2019arekiko; urte hartan 542 istripu hilgarri zenbatu ziren.

Istripu traumatikoak: kanpo-eragile batek eragindakoak eta, orokorrean, bat-bateko ekintza bortitz bat tartean dutenak (kontusioak, erredurak, zauriak, hausturak, etab.).

Istripu ez-traumatikoak: lan-baldintzek eragina izan dezaketen patologia endogenoak, hala nola bihotzekoak edo buruko isuriak, baina gaixotasun profesionaltzat hartzen ez direnak.


4.37. TAULA

LANEKO EZBEHAR TASA ESTATUAN* (BAJA HARTU ZUTEN ERAGINPEKO PERTSONAK)

	Baja eragin zuten lanaldiko istripuak								In itinere	Gaixotasun profesionala	Guztira
	Guztira	Larritasu-mailaren arabera			Sektorearen arabera						
		Arinak	Larriak	Hilgarriak	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak			
2009	617.440	611.626	5.182	632	27.681	142.497	122.614	324.648	79.137	9.691	706.268
2010	569.523	564.019	4.935	569	27.487	130.321	100.542	311.173	76.441	8.765	654.729
2011	512.584	507.637	4.396	551	28.059	115.440	78.966	290.119	68.566	8.805	589.955
2012	408.537	404.347	3.738	452	25.358	88.642	51.327	243.210	62.686	7.466	478.689
2013	404.284	400.447	3.390	447	27.695	83.623	41.994	250.972	63.746	7.599	475.629
2014	424.625	420.829	3.329	467	30.250	87.188	43.043	264.144	66.474	8.112	499.211
2015	458.023	454.029	3.479	515	32.577	94.923	48.813	281.710	71.225	9.073	538.321
2016	489.065	484.912	3.657	496	33.144	101.588	53.579	300.754	77.170	9.886	576.121
2017	515.082	510.682	3.904	496	35.512	107.141	61.375	311.054	81.524	10.140	606.746
2018	532.977	528.412	3.991	574	35.400	113.162	69.420	314.995	84.511	11.382	628.870
2019	549.569	544.820	4.207	542	36.329	118.510	80.102	314.628	85.658	12.877	648.104
2020	428.474	424.374	3.505	595	30.838	95.936	67.387	234.313	56.891	8.669	494.034
2021	497.735	493.458	3.702	575	30.885	97.263	78.264	291.323	74.713	9.342	581.790
2022	552.173	547.693	3.801	679	29.079	101.919	81.525	339.650	79.551	9.716	641.440

(*) Aldakuntzak kontuz interpretatu behar dira, 2022ko datuak behin-behinekoak baitira. Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa. (2023ko martxoko datuak).

Lanaldian ezbeharra izan zuten pertsonen ratioak (okupaturako mila langileko) urte arteko hazkundera izan zuten, bai EAEn, bai Estatuan. Dena den, bi kasuetan, 2022an erregistraturako mailak baxuagoak izan ziren 2019koak baino.

4.28. GRAFIKOA**LANEKO EZBEHAR TASAREN INTZIDENTZIAREN BILAKAERA (EAE ETA ESTATUA)**

Iturria: Geuk egina, Osalaren, Eustaten, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioaren eta EINen datuetan oinarrituta.

* Behin-behineko datua. 2023ko urtarrilean argitaratutako datuak.

EAEn, 2021ean, okupatutako mila pertsonako 33,2k izan zuten istripua, eta 2022an 34k, 2019an baino gutxiagok oraindik ere (34,7). Estatuan, berriz, okupatutako mila pertsonako 25,2k izan zuten istripua 2021ean, eta 27,1k 2022an; kasu horretan ere, 2019ko zifra (27,8) baino baxuagoa eskuratu zuten.

4.4.3. LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N: SEKTOREAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERAKO ANALISIA

Sektorearen arabera, baja eragin zuten eta lanaldian gertatu ziren istripuen kopuruak urte arteko hazkundera izan zuten EAEn eraikuntza (+% 9,2), zerbitzuetan (+% 4,1) eta industrian (+% 3,9). Aitzitik, jaitsi egin zen lehen sektorean (-% 0,9).

Lanaldian zehar baja eragin zuten istripuak izan zituzten pertsonen erdiak baino gehiago hirugarren sektorekoak ziren (guztikoaren % 54,3); eta, jarraian, industria-sektorea (% 31,4), eraikuntza (% 12,5) eta, azkenik, lehen sektorea (% 1,8) kokatu ziren.

2021arekin alderatuta, laneko ezbeharrak tasa eraikuntza hazi zen gehien (+% 9,2)

2019arekin alderatuta, baja eragin zuten lanaldiko istripuen kopurua murriztu egin zen lehen sektorean eta industrian (-% 15,6 eta -% 13,1, hurrenez hurren). Zerbitzuetan (+% 5,7) eta eraikuntzan (+% 8,7), berriz, ugartu egin zen.

**4.38. TAULA
ENPLEGUA ETA EZBEHAR TASA EAE-N**

		GUZTIRA	LEHEN SEKTOREA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Lanaldian gertatutako istripuak, bajarekin						
2019	EAE	33.007	679	11.794	3.766	16.768
	Araba	6.145	115	2.454	496	3.080
	Bizkaia	16.829	387	5.270	2.188	8.984
	Gipuzkoa	10.033	177	4.070	1.082	4.704
2021	EAE	31.232	578	9.867	3.749	17.038
	Araba	5.791	116	1.947	515	3.213
	Bizkaia	15.640	302	4.306	2.085	8.947
	Gipuzkoa	9.801	160	3.614	1.149	4.878
2022	EAE	32.651	573	10.253	4.093	17.732
	Araba	5.680	90	2.039	572	2.979
	Bizkaia	16.891	322	4.540	2.286	9.743
	Gipuzkoa	10.080	161	3.674	1.235	5.010
Okupatutako langileak (mila) (1)*						
2019	EAE	951,2	10,0	202,6	51,6	687,0
	Araba	144,6	2,2	36,4	5,8	100,2
	Bizkaia	487,7	5,0	82,2	28,2	372,2
	Gipuzkoa	318,9	2,8	84,0	17,5	214,6
2021	EAE	939,6	7,4	200,1	52,8	679,2
	Araba	144,2	2,1	37,8	6,9	97,4
	Bizkaia	480,8	3,4	84,0	29,2	364,2
	Gipuzkoa	314,6	1,9	78,4	16,7	217,6
2022**	EAE	961,7	8,9	195,2	57,2	700,4
	Araba	144,6	2,2	37,6	8,9	95,9
	Bizkaia	495,2	3,9	79,8	30,7	380,9
	Gipuzkoa	321,9	2,8	77,8	17,7	223,6
(Istripuak/Okupatuak) X 1000						
2019	EAE	34,7	67,9	58,2	73,0	24,4
	Araba	42,5	52,3	67,4	85,5	30,7
	Bizkaia	34,5	77,4	64,1	77,6	24,1
	Gipuzkoa	31,5	63,2	48,5	61,8	21,9
2021	EAE	33,2	78,1	49,3	71,0	25,1
	Araba	40,2	55,2	51,5	74,6	33,0
	Bizkaia	32,5	88,8	51,3	71,4	24,6
	Gipuzkoa	31,2	84,2	46,1	68,8	22,4
2022**	EAE	34,0	64,4	52,5	71,6	25,3
	Araba	39,3	40,9	54,2	64,3	31,1
	Bizkaia	34,1	82,6	56,9	74,5	25,6
	Gipuzkoa	31,3	57,5	47,2	69,8	22,4

(1) BJA (Eustat).
 * 2023ko urtarrilean argitaratutako datuak.
 ** Behin-behineko datuak.
 Iturria: Geuk egina, Osalanen eta Eustaten datuetan oinarrituta.

2022an, lanaldian gertatu ziren eta baja eragin zuten ezbeharren tasa, okupatutako mila pertsonako, hazi egin zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta sektore guztietan, lehen sektorean izan ezik. Urte arteko hazkunderik handiena industrian gertatu zen (+3,2 puntu), ondoren eraikuntzan (+0,6 puntu) eta zerbitzuetan (+0,2 puntu), eta nabarmen jaitsi zen lehen sektorean (-13,7 puntu).

Nolanahi ere, nabarmentzekoa da 2022an eraikuntza erregistratu zela intzidentziarik handiena (lanaldian gertatu ziren eta baja eragin zuten 71,6 istripu, okupatutako mila langileko). 2021ean izan ezik, tradizionalki, sektore horretan izaten da lanaldiko istripuen intzidentziarik handiena. 2022an lehen sektorea kokatu zen bigarren postuan, 64,4 istripurekin.

Industria, berriz, 52,5 istripuko ratioarekin (+3,2 puntu 2021arekiko), tarteko posizio batean kokatu zen, baina 2019an erregistratutako intzidentzia baino baxuagoa izan zuen (58,2).

Azkenik, ohikoa den moduan, hirugarren sektorea kokatu zen, 25,3 istripurekin; ezbeharren intzidentziarik txikiena duen sektorea da.

Lurraldearen arabera, 2022an, aurreko urtean bezalaxe, lanaldian gertatu ziren eta baja eragin zuten EAEko istripuen erdiak baino gehiago Bizkaian gertatu ziren (guztizkoaren % 51,7), % 30,9 Gipuzkoan eta gainerako % 17,4a Araban.

Hirugarren sektorean 25,3 istripu gertatu ziren okupatutako 1.000 pertsonako eta, ohikoa den moduan, ezbeharren intzidentzia baxueneko sektorea izan zen

Urte arteko bilakaera kontuan hartuta, 2022an ugaritu egin ziren lanaldian gertatu ziren eta baja eragin zuten istripuak, Bizkaian zein Gipuzkoan (% 8 eta % 2,8, hurrenez hurren); aldiz, jaitsi egin ziren Araban (-% 1,9).

Hala, lanaldian gertatu ziren eta baja eragin zuten ezbeharren ratorik handiena, okupatutako 1.000 pertsonako, Arabari (39,3) egokitu zitzaion, eta Bizkaia (34,1) eta Gipuzkoa (31,3) izan ziren hurrengoak. 2019arekin alderatuta, ratio hori jaitsi egin zen hiru lurraldeetan (Arabaren kasuan, 2019an 42,5koa izan zen, eta 2022an 39,3koa; Bizkaiaren kasuan 34,5etik 34,1era jaitsi zen; eta, Gipuzkoan, 31,5etik 31,3ra).

4.39. TAULA

LANEKO EZBEHAR TASA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (BAJA HARTU ZUTEN PERTSONAK)

		Baja eragin zuten lanaldiko istripuak								In itinere	Gaixotasun profesionala	Guztira
		Guztira	Larritasu-mailaren arabera			Sektorearen arabera						
			Arinak	Larriak	Hilgarriak	Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak			
2011	EAE	30.628	30.392	199	37	665	11.460	4.379	14.124	3.384	1.028	35.040
	Araba	5.732	5.683	43	6	106	2.492	703	2.431	566	136	6.434
	Bizkaia	15.540	15.444	80	16	358	5.177	2.473	7.532	1.826	466	17.832
	Gipuzkoa	9.356	9.265	76	15	201	3.791	1.203	4.161	992	426	10.774
2012	EAE	25.604	25.412	160	32	616	9.320	3.143	12.525	3.324	860	29.788
	Araba	4.705	4.659	40	6	84	1.928	500	2.193	602	99	5.406
	Bizkaia	12.968	12.886	68	14	346	4.221	1.741	6.660	1.761	380	15.109
	Gipuzkoa	7.931	7.867	52	12	186	3.171	902	3.672	961	381	9.273
2013	EAE	24.611	24.445	138	28	574	8.611	2.562	12.864	3.349	777	28.737
	Araba	4.514	4.487	23	4	88	1.859	358	2.209	601	89	5.204
	Bizkaia	12.344	12.263	66	15	306	3.775	1.407	6.856	1.801	307	14.452
	Gipuzkoa	7.753	7.695	49	9	180	2.977	797	3.799	947	381	9.081
2014	EAE	24.816	24.651	137	28	639	8.792	2.527	12.858	3.279	895	28.990
	Araba	4.764	4.744	16	4	121	1.884	375	2.384	653	98	5.515
	Bizkaia	12.262	12.189	59	14	350	3.884	1.380	6.648	1.639	416	14.317
	Gipuzkoa	7.790	7.718	62	10	168	3.024	772	3.826	987	381	9.158
2015	EAE	26.641	26.460	153	28	659	9.094	2.555	14.333	3.580	999	31.220
	Araba	4.963	4.927	33	3	86	1.992	322	2.563	759	142	5.864
	Bizkaia	13.414	13.333	67	14	373	4.007	1.479	7.555	1.826	453	15.693
	Gipuzkoa	8.264	8.200	53	11	200	3.095	754	4.215	995	404	9.663
2016	EAE	28.090	27.918	138	34	673	9.861	2.640	14.916	3.512	1.145	32.747
	Araba	5.251	5.217	30	4	122	2.102	371	2.656	613	147	6.011
	Bizkaia	14.437	14.349	65	23	365	4.421	1.595	8.056	1.786	562	16.785
	Gipuzkoa	8.402	8.352	43	7	186	3.338	674	4.204	1.113	436	9.951
2017	EAE	29.629	29.443	161	25	664	10.281	2.898	15.786	3.935	1.445	35.009
	Araba	5.299	5.257	41	1	113	2.184	392	2.610	723	196	6.218
	Bizkaia	15.443	15.366	62	15	347	4.664	1.721	8.711	2.073	713	18.229
	Gipuzkoa	8.887	8.820	58	9	204	3.433	785	4.465	1.139	536	10.562
2018	EAE	30.115	29.912	169	34	641	10.524	2.998	15.952	3.857	1.511	35.483
	Araba	5.490	5.435	50	5	104	2.207	444	2.735	715	193	6.398
	Bizkaia	15.485	15.394	70	21	353	4.726	1.740	8.666	2.009	766	18.260
	Gipuzkoa	9.140	9.083	49	8	184	3.591	814	4.551	1.133	552	10.825
2019	EAE	33.007	32.819	162	26	679	11.794	3.766	16.768	4.099	1.520	38.626
	Araba	6.145	6.112	27	6	115	2.454	496	3.080	802	192	7.139
	Bizkaia	16.829	16.738	79	12	387	5.270	2.188	8.984	2.039	759	19.627
	Gipuzkoa	10.033	9.969	56	8	177	4.070	1.082	4.704	1.258	569	11.860
2020	EAE	26.958	26.768	169	21	562	9.133	3.426	13.837	3.244	1.242	31.444
	Araba	4.730	4.693	33	4	98	1.846	465	2.321	623	160	5.513
	Bizkaia	13.638	13.531	93	14	323	3.948	1.902	7.465	1.611	660	15.909
	Gipuzkoa	8.590	8.544	43	3	141	3.339	1.059	4.051	1.010	422	10.022
2021	EAE	31.232	31.017	184	31	578	9.867	3.749	17.038	3.619	1.347	36.198
	Araba	5.791	5.745	37	9	116	1.947	515	3.213	771	198	6.760
	Bizkaia	15.640	15.543	86	11	302	4.306	2.085	8.947	1.693	619	17.952
	Gipuzkoa	9.801	9.729	61	11	160	3.614	1.149	4.878	1.155	530	11.486
2022	EAE	32.651	32.410	216	25	573	10.253	4.093	17.732	3.922	1.360	37.933
	Araba	5.680	5.635	41	4	90	2.039	572	2.979	810	162	6.652
	Bizkaia	16.891	16.778	106	7	322	4.540	2.286	9.743	1.901	727	19.519
	Gipuzkoa	10.080	9.997	69	14	161	3.674	1.235	5.010	1.211	471	11.762

Iturria: Osalan. Osalanez argitaratutako hileko txostenetan jasotako datuak, urte bakoitzeko abenduari dagozkionak.

4.4.4. LANEKO EZBEHAR TASA EAE-N: SEXUAREN ARABERAKO ANALISIA

2022an, emakumezko 1.000 langiletik 19,1ek izan zuten laneko ezbeharra, bajarekin; gizonen artean, berriz, 1.000 langiletik 47,5ek

2022an 1.000 emakumezko langiletik 19,1i eragin zien baja eragin zuten lanaldiko istripuek; gizonen kasuan nabarmen altuagoa da datua (1.000 langileko 47,5).


Horrekin lotuta, esanguratsuak dira hainbat faktore. Esaterako, emakumeen presentzia handiagoa da zerbitzuen sektorean eta, aurrez esan dugun moduan, sektore horretan baxuagoa da ezbehar-tasa. Bestetik, lanbide batzuk maskulinizatuta daude, adibidez, eraikuntza. Nolanahi ere, ezbehar-tasak eskaintzen dituen datuak erlatiboak dira, eta sektore guztietan gizonen ezbehar-tasa handiagoa dela ikus daiteke, bai 2022an, bai aurreko ekitaldian.

2021ean, 1.000 emakumezko langiletik 19,5ek izan zuten laneko ezbeharra; gizonen artean, berriz, 1.000 langiletik 45,5ek.

2022an laneko istripuan hil ziren 30 pertsonen artean, 27 gizonenak ziren

4.29. GRAFIKOA

LANALDIAREN BARRUAN GERTATU ZIREN ETA BAJA ERAGIN ZUTEN EZBEHARREN INTZIDENTZIA* EAE-N 2022AN, SEKTOREAREN ETA SEXUAREN ARABERA



*Eustatek argitaratutako EAEko biztanleria okupatuaren inguruko datuetan oinarrituta kalkulatzen dira intzidentzia-indizeak.

Iturria: Geuk egina, Osalaren eta Eustaten datuetan oinarrituta.

2022an EAEn hil ziren 30 pertsonen artean (25 lanaldian eta 5 "in itinere"), 27 gizonak ziren eta 3 emakumeak (1 lanaldian hil zen eta 2 "in itinere").


Era berean, istripu larrien eta arinen kasuan (lanaldian edo "in itinere") ere, gizonak izan ziren horietako gehienak jasan zituztenak (guztizkoaren % 79,4 eta % 70, hurrenez hurren).

2022an gertatutako 3.922 "in itinere" istripuen artetik, emakumeei gertatu zitzaizkien % 55,9, eta gizonei gainerako % 44,1. Aitzitik, lanaldiaren barruan gertatutako istripuei dagokienez (32.651), gizonei gertatu zitzaizkien % 73,2 eta emakumeei % 26,8.

Azkenik, 2022an emakumeeek jasandako 10.949 istripuen artetik, % 80 lanaldian gertatu ziren eta % 20 "in itinere". Gizonek jasan zituzten 25.624 istripuen artetik, berriz, % 93,2 gertatu ziren lanaldian eta gainerako % 6,8 "in itinere".

4.30. GRAFIKOA

BAJA ERAGIN ZUTEN ISTRIPIEN BANAKETA SEXU BAKOITZEAN, GERTATU ZIREN UNEAREN ARABERA. EAE 2022



Iturria: Geuk egina, Osalaren datuetan oinarrituta.

4.5. HAUTESKUNDE SINDIKALAK

1994ko lan-erreformaren arabera, hauteskunde sindikalen sistema prozesu jarraitua da, eta ez dago hauteskunde-aldi jakin baten mende.

Dena den, hauteskunde sindikalen prozesuak lau urtez behin egin ohi dira, hori baita langileen ordezkariak, batzordeetako kideak eta, funtzionarioen kasuan, batzarretako kideak izateko aukeratutako pertsonen agintaldiaren iraupen arrunta. Hala, azken prozesua 2022aren amaieran eta 2023aren hasieran egin zen.

Garrantzitsua da langileen ordezkariak aukeratzea. Izan ere, hauteskunde sindikalen emaitzak negoziaketa eremuen arabera banakatuta eta dagokion araudiaren arabera, langileen ordezkariak negoziazio-mahaietan zer banaketa izango duten erabakitzen da, bai sektoreko hitzarmenetako negoziazio kolektiboaren kasuan, bai funtzionarioen lan-baldintzen negoziazioaren kasuan.

Halaber, hauteskunde horiek egiten diren enpresa bakoitzean, ordezkarien osaera eskuratzen da eta, hala dagokionean, enpresa-batzordeen osaera. Horiek, beste funtzio batzuen artean, negoziazio kolektiboa eta parte-hartzea sustatzen dituzte lan-gatazken planteamenduan eta ebazpenean.

2022ko abenduaren 31ra arte egindako hauteskundeetako emaitzek adierazten dutenez, 17.944 pertsona aukeratu dituzte; horietatik 16.708 langileek aukeratutako ordezkariak dira eta, 1.236 Euskadiko administrazio publikoetako funtzionarioek aukeratutako pertsonak.

2021 amaitzerako, 17.911 pertsona aukeratu zituzten ordezkari gisa. Horietatik 16.754 langileak ziren, eta 1.157 pertsona Euskadiko administrazio publikoetako funtzionarioen artetik hautatu zituzten. Hortaz, hazkundera, batez ere, eremu publikoan gertatu zen, ordezkarien kopurua 79 pertsona areagotu baitzen. Langileen artean, berriz, aukeratutako ordezkari kopurua 46 pertsona murriztu zen.

Bestetik, eta enpresa-ehunarekin bat etorriz, Bizkaian pilatuta daude EAEko langileen ordezkarien % 50.

ELAk eskuratu zituen ordezkarien % 40,79, eta LAB (% 19,59), CCOO (% 18,54) eta UGT (% 10,71) izan ziren hurrengoak


2022ko abenduaren 31ko hauteskundeen emaitzek erakusten dutenez, ELAk eskuratu zituen aukeratutako ordezkarien % 40,79; LAB izan zen hurrengoa, % 19,59rekin; hirugarren postuan CCOO kokatu zen, % 18,54rekin eta, laugarrenean, UGT, % 10,71rekin. Aurreko txostenetan ikusten zen moduan, datu horiek azken urteetan eskuratutako datuekin alderatuz gero, aldakuntzak oso txikiak dira.

2021eko abenduaren 31ko hauteskundeen emaitzek erakusten dutenez, ELAk eskuratu zituen aukeratutako ordezkarien % 40,95, eta hurrengoak LAB (% 19,86), CCOO (% 18,70) eta UGT (% 10,57) izan ziren. Hori dela eta, gure enpresetako ordezkariak sindikalaren ezaugarrietako bat egonkortasuna dela esan daiteke.

Lurralde historikoen arabera analisiak erakusten duenez, lurraldeetako egoera autonomia-erkidegoko egoeraren antzekoa da, baina berezitasun batzuk ditu.

4.31. GRAFIKOA

HAUTESKUNDE SINDIKALEN PROZESUEN EMAITZA METATUAK 2022KO ABENDUAREN 31N (EAE). BANAKETA, EHUNekoETAN



Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

ELAk eskuratu zituen ordezkari gehien hiru lurraldeetan. Araban eta Bizkaian, CCOO izan zen bigarrena; Gipuzkoan, berriz, LAB.

ELA kokatu zen lehen postuan, bai langileen artean, bai funtzionarioen artean. Dena den, ordena orokorrean desberdintasun batzuk daude aztertutako eremuaren eta lurraldearen arabera.

Lan arloan, Araban laugarren ordezkariak postua eskuratu zuen LABek, CCOOk bigarrena eta UGTk hirugarrena. Bizkaian desberdina zen ordena: bigarren postua eskuratu zuen CCOOk, hirugarrena LABek eta laugarrena UGTk. Gipuzkoan aipatutako ordena orokorra errepikatu zen.

Funtzionarioen arloan ere, EAEko ordena berdina izan zen. Dena den, "beste sindikatu batzuk" taldeak, aurreko urteetan bezala, ordezkariak handia lortu zuen (% 15,03). Maila hori, ordea, murrizten joan da 2014tik; urte hartan % 19,90ko ordezkariak lortu zuen eremu horretan. "Beste sindikatu batzuk" taldearen barruan, irakaskuntzako STEE/EILAS sindikatua, funtzionarioen CSI-SIF sindikatua eta ertzainen ERNE sindikatua nabarmentzen dira.

4.40. TAULA

HAUTESKUNDE SINDIKALEN PROZESUEN EMAITZA METATUAK 2022KO

ABENDUAREN 31N: EAE ETA LURRALDE HISTORIKOAK

		GUZTIRA		FUNTZIONARIOAK		LANGILEAK	
		ORDEZKARIAK	GUZTIZKOAREN GAINEKO %	ORDEZKARIAK	GUZTIZKOAREN GAINEKO %	ORDEZKARIAK	GUZTIZKOAREN GAINEKO %
CAPV	GUZTIRA	17.944	100,00	1.236	100,00	16.708	100,00
	ELA	7.320	40,79	460	37,22	6.860	41,06
	LAB.	3.516	19,59	304	24,60	3.212	19,22
	CCOO	3.326	18,54	175	14,16	3.151	18,86
	UGT	1.921	10,71	61	4,94	1.860	11,13
	S.G.	432	2,41	25	2,02	407	2,44
	LSB-USO	315	1,76	6	0,49	309	1,85
	ESK	280	1,56	19	1,54	261	1,56
BESTE BATZUK	834	4,64	186	15,03	648	3,88	
ÁLAVA	GUZTIRA	3.303	100,00	256	100,00	3.047	100,00
	ELA	1.233	37,33	70	27,34	1.163	38,17
	LAB	476	14,41	55	21,48	421	13,82
	CCOO	659	19,95	40	15,63	619	20,32
	UGT	498	15,08	19	7,42	479	15,72
	S.G.	89	2,69	15	5,86	74	2,43
	LSB-USO	103	3,12	4	1,56	99	3,25
	ESK	77	2,33	12	4,69	65	2,13
BESTE BATZUK	168	5,09	41	16,02	127	4,17	
BIZKAIA	GUZTIRA	8.982	100,00	586	100,00	8.396	100
	ELA	3.581	39,87	251	42,83	3.330	39,66
	LAB	1.377	15,33	111	18,94	1.266	15,08
	CCOO	1.908	21,24	83	14,16	1.825	21,74
	UGT	1.115	12,41	36	6,14	1.079	12,85
	S.G.	219	2,44	9	1,54	210	2,5
	LSB-USO	179	1,99	2	0,34	177	2,11
	ESK	147	1,64	4	0,68	143	1,7
BESTE BATZUK	456	5,08	90	15,37	366	4,36	
GIPUZKOA	GUZTIRA	5.659	100,00	394	100,00	5.265	100,00
	ELA	2.506	44,28	139	35,28	2.367	44,96
	LAB	1.663	29,39	138	35,03	1.525	28,96
	CCOO	759	13,41	52	13,20	707	13,43
	UGT	308	5,44	6	1,52	302	5,74
	S.G.	124	2,19	1	0,25	123	2,34
	LSB-USO	33	0,58	0	0,00	33	0,63
	ESK	56	0,99	3	0,76	53	1,01
BESTE BATZUK	210	3,72	55	13,96	155	2,93	

S.G.: Sindikaturik Gabeak.

Iturria: Lan eta Enplegu Saila.

Kontuan izan behar da, legalki konfiguratuta dagoen moduan, sistemak kanpoan uzten dituela unitate txikiak (sei langiletik beherako enpresak); hortaz, ehun mila langile baino gehiago (soldatapeko langileen % 14 inguru) hauteskunde-prozesuetatik kanpo geratzen dira.

4.6. ELKARRIZKETA SOZIALEKO MAHAIA

2019ko urtarrilaren 18an, EHAAn argitaratu zen Elkarrizketa Sozialeko Mahaia sortzeari buruzko 3/2019 Dekretua, urtarrilaren 15ekoa.

Arau horretan ezarritakoaren arabera, hiru alderdiko organoa da Elkarrizketa Sozialeko Mahaia, Lan eta Enplegu Sailaren mendekoa; bertan elkartzen dira eta parte hartzen dute ordezkaritzarik handiena duten erakunde sindikalek eta enpresariak, baita EAEko Gobernuak ere. Organo honen bidez, gizarte eta lan arloan eragina duten politika publikoak diseinatzeko, negoziatzeko eta ituntzeko prozesuetan erakunde horiek duten esku-hartzea kanalizatu nahi da.

3/2019 Dekretuak ezartzen duenez, Mahaiko presidentek urteko lehen bileran parte hartzera dei egingo die ordezkaritzarik handiena duten erakunde sindikal eta enpresarial guztiei; bilera horretan, Mahaiaren osaera berrituko eta zehaztuko da, eta dagokion urterako laneko plana prestatuko da. Zehazki, 2022an CONFEBASK, CCOO eta UGT-k osatu zuten Mahaia, baita Eusko Jaurlaritzako hainbat sailtako ordezkariek ere.

Modu formalean eratu ondoren, Mahaiaren barruan bost lantalde osatu zituzten. Honako hauek: Genero Berdintasuna, Laneko Osasuna, Enplegua, Industria eta Lanbide Heziketa.

2022. urtean, beste hiru talde sortzea adostu zuen Elkarrizketa Sozialeko Mahaiak, eta dagoeneko martxan daude: Lan Ikuskatzaitzaren Aholkularitza Batzordea, Partaidetza Instituzionalaren Lege-proposamena prestatzeko lantaldea eta aldi baterako ezintasun-prozesuetan eragina duten faktoreak aztertzeko talde teknikoa.

ONDORIOAK

-605.000²¹ pertsonari baino apur bat gutxiagori eragiten die negoziazio kolektiboak EAEn; horietako % 55,8 gizonak dira eta, % 44,2, emakumeak.

- EAEn hitzarmen baten bidez arautu gabeko jardueraren batean lan egiten dute 55.000 pertsona inguruk, sektore pribatuan, besteren kontura; gehienak emakumeak dira, eta etxeko langileen kolektiboa nabarmentzen da, duen garrantziagatik.

- Negoziazio kolektiboko akordioen eraginpeko langileen % 71,8k EAEn bertan negoziatzen dituzte haien hitzarmenak.

- Haien lan-baldintzak negoziatzeko, langileen % 75,5 sektoreko negoziazioaren mende daude; gainerako % 24,5ek, berriz, enpresa mailan negoziatzen ditu hitzarmenak.

- 2022aren amaieran, langileen % 45,4k eguneratuta zituzten haien hitzarmenak (guztiz indarrean), % 47,4k luzapen-egoeran zituzten haien akordioak eta % 7,2k indargabetuta.

- Murriztu egin zen hitzarmena indargabetuta zuten langileen ehunekoak; 2022ko abenduaren 31n % 7,2koa zen, 2012ko lan-erreforma indarrean sartu zenetiko ehunekorik baxuena.

- 2022an Arabako Industria Siderometalurgikoko Hitzarmena sinatu zuten, indargabetuta zegoena; ondorioz, gutxitu egin zen hitzarmenak indargabetuta zituzten langileen kopurua.

- Dena den, kopuru hori asko murriztu den arren, aipatu beharrekoa da hitzarmenak indargabetuta dituzten pertsona ia guztiek sektoreko hitzarmena dutela.

- 2022an enpresako 35 hitzarmen berri erregistratu zituzten; hala, enpresako hitzarmen berri gutxien sinatu ziren bigarren urtea izan zen 2012az geroztik.

- Azken urteetan sektoreko negoziazioak pisua irabazten jarraitzen du, enpresako negoziazioaren aldean. Batez ere, indargabetuta zeuden sektoreko hitzarmen batzuk berreskuratu izanaren ondorioz gertatu da hori.

- Indarrean dauden hitzarmen gehienak bi urtetik gorako indarraldirako negoziatzen dira.

- Indarrean dauden eta EAEn negoziatu diren sektoreko hitzarmenetan, aurreko urtearekin alderatuta, murriztu egin zen negoziazio-prozesuen batez besteko iraupena, baina luzea izaten jarraitzen du (496 egun).

²¹ 2022ko abenduaren 31ko datuak

-2022an % 4,08ko soldata-igoera hitzartu zuten EAEn, eta % 2,78koa estatuan. Hitzartutako batez besteko lanaldia, berriz, 1.687 ordukoa izan zen EAEn, eta 1.736 ordukoa Estatuan.

- Langileen % 58,4k 2022rako igoera finkoa zuten ezarrita haien hitzarmenetan. % 30,4k 2021eko KPIaren arabera soldata-igoera zuten ezarrita 2022rako, eta % 3,3rentzat 2022ko KPIaren datuak baldintzatzen zuen igoera.

- CCOO eta UGTk jarraitzen dute hitzarmen gehien sinatzen dituzten sindikatuak izaten, negoziazio-mahaietan duten presentzia kontuan hartuta.

- Aurkeztutako inaplikazioen kopuruak (2022an 22) zein eraginpeko pertsonen kopuruak (338 pertsona) oso txikiak izaten jarraitzen dute, hitzarmenak indarrean (indarraldi osoan eta luzatuta) dituzten langileen kopurua 560.000tik gorakoa dela kontuan hartuta.

- 2022an, aurreko urtearekin alderatuta, ugaritu egin ziren greba kopurua (+% 37,9), greben eraginpeko langile kopurua (+620,6%) eta lan egin gabeko lanaldien kopurua (+173,1%).

- Sektoreko gatazka bakar batek azaltzen du parte-hartzaileen eta lan egin gabeko lanaldien gorakada handia: Bizkaiko Industria Siderometalurgikoko Hitzarmenaren negoziatuetatik eratorritako gatazkak.

- Jaitsi egin zen PRECO-n aurkeztutako eskaera kopurua: 2021ean 576 eta 2022an 525.

- 2022an igo egin zen gatazken konpontze-tasa: adostasunen tasa zati urtean zehar amaitutako eskaera guztiak; ehuneko 5,1 puntu egin zuen gora, eta % 26,8an kokatu zen.

- 2022an zehar, EAEn Administrazioaren aurrean aurkeztutako enplegua erregulatzeko espedienteen artetik, % 29,1 artxibatu edo baztertu egin zituzten, eta % 2,2 ez zituzten baimendu.

- 2022an amaitu egin ziren murrizketak, eta hori erabakigarria izan zen ABEEE-ek eragindako pertsonen kopurua (19.772) jaisteko. 2012an edo 2013an baino baxuagoa izan zen eraginpekoen kopurua, baina pandemiaren aurreko urteetako baino handiagoa.

- Langileen % 99,7ri aldi baterako enplegua erregulatzeko espedienteek eragin zieten, eta % 0,3ri bakarrik eragin zieten lan-harremana iraungitzeko espedienteek.

- Aurreko urtearekin alderatuta, 2022an hazi egin zen laneko ezbehartasuna, baina pandemia agertu aurreko maila baino apur bat beherago kokatu zen.

ERANSKINA.**EAE-KO SEKTORE HITZARMENEN ZERRENDA ETA HORIEN EGOERA 2022KO****ABENDUAREN 31N²²**

ARABA

IZENA	MOTA	INDARRALDIAREN AMAIERA	EGOERA
Industria siderometalurgikoa	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Eraikinen eta lokalen garbiketa	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Oinetakoen salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Eraikuntza	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Zementuaren deribatuak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Hirugarrenentzako kirol-jarduerak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Eguraren industrien hitzarmena	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Aisialdi hezigarria eta animazio soziokulturala	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Altzarien salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Ardoaren industria eta salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Ostalaritza	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Ehunen salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Etxeko laguntza-zerbitzua	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Esku-hartze soziala	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Elikagaien salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Merkantzien errepide bidezko garraioa	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Ogiaren industria eta salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2017/12/31	Luzatuta
Nekazaritza- eta abeltzaintza- jardueretarako sasoikako lana	Hitzarmen kolektiboa	2015/12/31	Luzatuta
Bidaiarien errepide bidezko garraioa	Hitzarmen kolektiboa	2010/12/31	Luzatuta
Ile-apaindegiak eta apaindegiak	Hitzarmen kolektiboa	2009/12/31	Luzatuta
Gozen, pastelen, bonboien eta karameluen industria	Hitzarmen kolektiboa	2018/12/31	Iraungita
Metalaren salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2007/12/31	Iraungita
Emanaldi zinematografikoak	Hitzarmen kolektiboa	1999/12/31	Iraungita

²² Indargabetuta dauden sektore-hitzarmenak ere sartu ditugu zerrenda honetan, baldin eta langile horiek goragoko maila bateko hitzarmen baten babesari badute. 2022ko abenduaren 31ko datuak. Baliteke aurreraeraginean edo indargabetuta zegoen hitzarmen baten 2023aren hasieran berritu izana.

BIZKAIA

IZENA	MOTA	INDARRALDIAREN AMAIERA	EGOERA
Bilboko portuko zamaketariak	Hitzarmen kolektiboa	2027/12/31	Indarrean
Merkantzien errepide bidezko garraioak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Eraikinen eta lokalen garbiketa	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Eutoeskolak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Eraikuntza	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Farmazia-bulegoak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Bilboko portuko zamaketarien enpresak –zamaketariak ez diren langileak–	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Arrain-kontserbak eta arrain gazituak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Butano-banatzailak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Etxez-etxeko banaketa elikagaien salerosketa-sektorean	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Fruta, barazki eta bananen bilteginak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Elikagaien salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Bizkaiko hornitegiak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Kirol arloko lokalak eta zelaiak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Bidaiarien errepide bidezko garraioak	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Esku-hartze soziala	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Industria siderometalurgikoa	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Ostalaritza	Hitzarmen kolektiboa	2021/06/30	Luzatuta
Gozogintza eta pastelgintza artisaua	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Likoreen fabrikazioa, botilaratzaileak eta ardo-bilteginak	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Harria eta marmola	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Hirugarren adinekoen zentroak	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Metalaren salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Altzarien salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Merkataritza orokorra	Hitzarmen kolektiboa	2018/12/31	Luzatuta
Etxez etxeko laguntza	Hitzarmen kolektiboa	2015/12/31	Luzatuta
Ehunen salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2015/12/31	Luzatuta
Okindegiak	Hitzarmen kolektiboa	2014/12/31	Luzatuta
Freskoko arraste-arrantza	Hitzarmen kolektiboa	2013/12/31	Luzatuta
Arte grafikoak, paperaren eta kartoiaren manipulatuak	Hitzarmen kolektiboa	2011/12/31	Luzatuta
Bilboko portuko zamaketarien enpresa (zamaketariak ez diren langileak)	Hitzarmen kolektiboa	2017/12/31	Iraungita
Bulegoak eta despatxuak	Hitzarmen kolektiboa	2012/12/31	Iraungita
Mercabilbaoko arrainen handizkariak	Hitzarmen kolektiboa	2011/12/31	Iraungita
Hormigoiak eta harrobiak	Hitzarmen kolektiboa	2011/12/31	Iraungita
Kafe-txigortzaileak	Hitzarmen kolektiboa	2010/12/31	Iraungita
Kontsignatarioak, zamaketariak eta garraio-kudeatzaileak	Hitzarmen kolektiboa	2009/12/31	Iraungita
Bingoak	Hitzarmen kolektiboa	2008/12/31	Iraungita
Berokuntza, aireztatze eta aire egokituko instalazioak	Hitzarmen kolektiboa	2008/12/31	Iraungita
Ondarroako itsasoko arrantzako saregileak	Hitzarmen kolektiboa	2007/12/31	Iraungita
Larruaren eta oinetakoen salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2007/04/30	Iraungita
Larrugintzaren industria	Hitzarmen kolektiboa	2006/12/31	Iraungita
Tindategiak eta garbitegiak	Hitzarmen kolektiboa	2006/12/31	Iraungita
Ospitaleratze osasun-establezimendu pribatuak	Hitzarmen kolektiboa	2005/12/31	Iraungita
Zinema-banaketa	Hitzarmen kolektiboa	2004/12/31	Iraungita
Egurraren industria	Hitzarmen kolektiboa	2003/12/31	Iraungita
Ile-apaindegiak eta apaindegiak	Hitzarmen kolektiboa	2001/12/31	Iraungita
Garajeen taldea (ibilgailuen aparkalekua)	Hitzarmen kolektiboa	2001/12/31	Iraungita
Beira lauaren manufakturak	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Iraungita
Eraikuntzarako materialak eta prefabrikatuak	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Iraungita
Abokatu, prokuradore eta gizarte-graduatu bulegoak	Hitzarmen kolektiboa	1997/12/31	Iraungita
Aholkulari fiskalen eta kontularien bulegoak	Hitzarmen kolektiboa	1994/12/31	Iraungita

GIPUZKOA

IZENA	MOTA	INDARRALDIAREN AMAIERA	EGOERA
Orearen, paperaren eta kartoiaren fabrikazioa	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Eraikuntza eta herri-lanak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Gasolindegia	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Ostatuak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Informazioaren eta dokumentazioaren kudeatzaileak (artxibategiak eta liburutegiak)	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Gipuzkoako enpresa trantsitarioak	Hitzarmen kolektiboa	2023/04/30	Indarrean
Industria siderometalurgikoa	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Bide-garbiketa publikoa eta hiriko hondakin solidoen bilketa	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Esku-hartze soziala	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Arte grafikoak, paper- eta kartoi-maneatzaileak eta argitaletxeak	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Elikaduraren industria eta merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Arrain eta itsaski freskoen eta izoztuen handizkariak	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Aparkalekua eta trafikoaren antolakuntza	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Gozokien industria eta merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Eraikinen eta lokalen garbiketa	Hitzarmen kolektiboa	2018/12/31	Luzatuta
Errenteriako garbiketako eta gizarte- eta osasun-laguntzako zerbitzuen enpresa emakidadunak	Hitzarmen kolektiboa	2018/12/31	Luzatuta
Bidaiarien errepide bidezko garraioa	Hitzarmen kolektiboa	2018/12/31	Luzatuta
Emakumeen ile-apaindegia, mistoak, gimnasioak	Hitzarmen kolektiboa	2016/12/31	Luzatuta
Okindegia	Hitzarmen kolektiboa	2015/12/31	Luzatuta
Merkataritza orokorra	Hitzarmen kolektiboa	2014/12/31	Luzatuta
Ikuskizun- eta kirol-lokalak	Hitzarmen kolektiboa	2012/12/31	Luzatuta
Eutoeskolak	Hitzarmen kolektiboa	2008/12/31	Luzatuta
Adinekoen egoitzak	Hitzarmen kolektiboa	2008/12/31	Luzatuta
Pasaiako zamaketa-lanak	Hitzarmen kolektiboa	2004/12/31	Luzatuta
Zeramikaren industria	Hitzarmen kolektiboa	2003/12/31	Luzatuta
Beiraren industria	Hitzarmen kolektiboa	2003/12/31	Luzatuta
Fruiten eta baratze produktuaren handizkariak	Hitzarmen kolektiboa	2015/12/31	Iraungita
Irungo etxez etxeko laguntza-zerbitzuen emakidadunak	Hitzarmen kolektiboa	2013/12/31	Iraungita
Titulartasun publikoko kirol-instalazioak	Hitzarmen kolektiboa	2012/12/31	Iraungita
Ostalaritza	Hitzarmen kolektiboa	2010/12/31	Iraungita
Larruaren merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2009/12/31	Iraungita
Bulegoak eta despatxuak	Hitzarmen kolektiboa	2009/12/31	Iraungita
Salgaien errepideko garraioa	Hitzarmen kolektiboa	2009/12/31	Iraungita
Metalaren salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2008/12/31	Iraungita
Jostailuen merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2006/12/31	Iraungita
Hortz-protesiak	Hitzarmen kolektiboa	2004/12/31	Iraungita
Bingo-aretoak	Hitzarmen kolektiboa	2004/12/31	Iraungita
Donostiako zinema-emanaldiak	Hitzarmen kolektiboa	2003/12/31	Iraungita
Egurraren industria	Hitzarmen kolektiboa	2003/12/31	Iraungita
Edari freskagarrien industria	Hitzarmen kolektiboa	2002/12/31	Iraungita
Farmazia-bulegoak	Hitzarmen kolektiboa	2002/12/31	Iraungita
Ospitaleratzea eta klinikak	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Iraungita
Zementuaren industria eratorriak	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Iraungita
Altzarien industria eta lagungarriak	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Iraungita
Bakailao-ontzi bikoteak	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Iraungita
Tindategiak, garbiketa, lisatzea eta ikuzketa	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Iraungita
Ehunaren salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	2018/12/31	Iraungita
Mahats, garagardo eta edarien industria eta merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Iraungita
Altzarien salerosketa	Hitzarmen kolektiboa	1999/12/31	Iraungita

LURRALDE ARTEKOAK

IZENA	MOTA	INDARRALDIAREN AMAIERA	EGOERA
Eskola-garraioko monitoreak eta jolastokiko zaintzaileak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Eusko Jaurlaritzako ikastetxeetako eskola-jantokietako kolektibitateak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Osakidetzaren garbiketako emakidadunak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta UPV-EHUren garbiketa-kontratak	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Ikastolak	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Gizarte-ekimeneko irakaskuntza arautuko ikastetxeak	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Osasungintzako errepideko garraioa	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Ingurumen-hezkuntzako zentroak. Baserri-eskolak	Hitzarmen kolektiboa	2007/12/31	Luzatuta

ESTATUKOAK

IZENA	MOTA	INDARRALDIAREN AMAIERA	EGOERA
Eraikuntza (merkataritza)	Hitzarmen kolektiboa	2026/12/31	Indarrean
Publizitate-enpresak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Animalientzako elikagai konposatuen fabrikazioa	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Hegazti-eta untxi-hiltegiak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Argazkigintzaren industria	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Adingabeen erreforma eta babesa	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Sukaldaritza modernoko marken sektore-hitzarmen kolektiboa	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Lurreko laguntza-zerbitzuak aireportuetan	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Trenbideko kontratak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Zezenketa-ikuskizunak	Hitzarmen kolektiboa	2025/12/31	Indarrean
Aseguruak, berraseguruak eta mutualitateak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Hondakinen berreskurapena eta birziklapena	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Farmazia-bulegoak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Otordu-zerbitzu kolektiboak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Erauzketa, beira eta zeramikaren industriak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Lorezaintza	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Arrain eta itsaskien kontserba, erdi-kontserba eta gazituak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Esneen eta esnekien industriak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Bingo-jokoak antolatzen dituzten enpresak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Etxez etxe saltzeko jaki prestatuen egileak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Zementuaren fabrikazioa	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Trenbidearen kanpoko zerbitzuak	Hitzarmen kolektiboa	2024/12/31	Indarrean
Industria kimikoa	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Aurrezki-kutzak eta finantza-erakundeak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Banka pribatua	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Ile-apaindegiak, apaindegiak eta gimnasioak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Ehungintzaren eta jantzigintzaren industria	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Haragi-industriak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Industria metalgrafikoa eta ontzi metaliko arinen fabrikazioa	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Farmaziako espezialitateen eta produktuen handizkako merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Uraren ziklo integrala	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Kreditu-sozietate kooperatiboak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Desinfekzioa, intsektu-kentzea eta arratoi-garbigeta	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Birjartze-jardueretarako tokian tokiko zerbitzuak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Loreen eta landareen merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Aisialdi hezigarria eta animazio soziokulturala	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Hotz industrialaren industriak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Entzunezko merkataritzako irratidifusioa	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Eutoeskolak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Informazioa, harrera, sarbideen kontrola	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Jabegoaren eta merkataritzaren erregistratzaileak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/31	Indarrean
Industriako, drogeriako, lurringintzako eta antzeko produktu kimikoen handizkariak eta inportatzaileak	Hitzarmen kolektiboa	2023/12/30	Indarrean
Arautu gabeko irakaskuntza eta prestakuntza	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Saltoki handiak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Zaintza eta segurtasun pribatua	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Higiezinen kudeaketa eta bitartekotza	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Zerga-teknikari eta -aholkularien bulegoak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Haurren laguntza eta heziketarako zentroak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Paperaren eta arte grafikoaren merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Mendeko pertsonen arretarako zerbitzuak eta autonomia pertsonalaren sustapenerako garapena	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Administrazio-gestoriak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Bidaia-agentziak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean

IZENA	MOTA	INDARRALDIAREN AMAIERA	EGOERA
Kredituko finantza-establezimenduak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Unibertsitate pribatuak eta graduondoko ikasketen prestakuntza-zentroak –Luzatuta–	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Arte grafikoak, paper- eta kartoi-maneiatzea, argialetxeak eta industria lagungarriak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Estatuko notariotzak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Albaitaritza-zentroak eta -zerbitzuak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Orea, papera eta kartoia	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Aseguru pribatuen bitartekotza	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Komenientziako denden kateak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Hegaztien eta beste animalia batzuen haztegiak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Jai-, dantza- eta diskoteka-aretoak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Ikus-entzunezko lanen produktoreak eta aktoreak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Ogitarako irinak eta semolak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Teilak, adreiluak eta buztin egosizko pieza bereziak	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Uren eta ontziraturako edarien industria	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
Itsas-akuikultura nazionala	Hitzarmen kolektiboa	2022/12/31	Indarrean
ACBko saskibaloi profesionala	Hitzarmen kolektiboa	2022/06/30	Luzatuta
Mendekotasuna duten pertsonen arretarako zentroak eta zerbitzuak	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Drogeria eta lurrin-dendetako txikizkako merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Ile-apainketaren, musikaren eta arte aplikatuen irakaskuntza	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Gasolindegia	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Lurringintza eta antzekoak	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Estatuko eguneroko prentsa eta albiste-agentziak	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Aparkalekuak eta garajeak	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Baso-jarduerak	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Ikus entzunezkoen ekoizpen-industria (teknikariak)	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Estatuko landare-kontserbak	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Oinetako industria	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Perrailaren industria	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Izozte- eta hozte-prozesuak dituzten itsasoko produktuen prestaketa	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Kortxoaren sektorea	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Larru-zurratzeak, uhalak eta industriarako larruak eta larruzko jantzietarako zurratzea	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Ur-instalazioen mantentzea eta kontserbazioa	Hitzarmen kolektiboa	2021/12/31	Luzatuta
Ingeniaritza-enpresak eta azterlan teknikoetako bulegoak	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Aldi baterako laneko enpresak	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Unibertsitate-hezkuntzako eta ikerketako zentroak	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Lorezaintzako zentroak	Hitzarmen kolektiboa	2020/12/31	Luzatuta
Futbol profesionala	Hitzarmen kolektiboa	2020/06/30	Luzatuta
Lehen mailako klubetan zerbitzuak ematen dituzten emakumezko futbolariak	Hitzarmen kolektiboa	2020/06/30	Luzatuta
Eskubaloi profesionala	Hitzarmen kolektiboa	2020/06/30	Luzatuta
Aholkularitza eta merkatu-azterlanak	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Kirol-instalazioak eta gimnasioak	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Bide-garbiketa publikoa	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Contact Center (telemarketina)	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Unibertsitateko ikastetxe nagusi pribatuak	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Loteria-administrazioak	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Ikus-entzunezko lanen produktoreak eta figuranteak	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Taxi-autoak	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Luzatuta
Besteren prebentzio-zerbitzuak	Hitzarmen kolektiboa	2018/12/31	Luzatuta
Naturopatia eta profesional naturopatak	Hitzarmen kolektiboa	2018/12/31	Luzatuta
Garabi higikor autopropulstauak	Hitzarmen kolektiboa	2017/12/31	Luzatuta
Ortopedien eta laguntza teknikoaren txikizkako merkataritza	Hitzarmen kolektiboa	2017/12/31	Luzatuta

IZENA	MOTA	INDARRALDIAREN AMAIERA	EGOERA
Herri-bideetako aparkaleku mugatua	Hitzarmen kolektiboa	2017/12/31	Luzatuta
Etkez etxeko banaketa	Hitzarmen kolektiboa	2014/12/31	Luzatuta
Egurra	Hitzarmen kolektiboa	2013/12/31	Luzatuta
Helbiderik gabeko banaketa	Hitzarmen kolektiboa	2012/12/31	Luzatuta
Txirrindularitza profesionala	Hitzarmen kolektiboa	2012/12/31	Luzatuta
Urpekaritza profesionala eta baliabide hiperbarikoak	Hitzarmen kolektiboa	2012/12/31	Luzatuta
Zinema-banaketa	Hitzarmen kolektiboa	2008/12/31	Luzatuta
Jostuntza, alkandoragintza, joskintza eta antzekoak	Hitzarmen kolektiboa	2002/12/31	Luzatuta
Emanaldi zinematografikoak	Hitzarmen kolektiboa	2001/12/31	Luzatuta
Aireko garraioa	Hitzarmen kolektiboa	2000/12/31	Luzatuta
Gatzaren industria	Hitzarmen kolektiboa	2019/12/31	Iraungita
Kreditu-sozietate kooperatiboak	Hitzarmen kolektiboa	2018/12/31	Iraungita
Izozkien fabrikazioa	Hitzarmen kolektiboa	2010/12/31	Iraungita
Mezularitza	Hitzarmen kolektiboa	2007/12/31	Iraungita